



ALBOAN

entreculturas
ONG JESUITA PARA LA
EDUCACIÓN Y EL DESARROLLO

Parte hartzea: garapenerako gakoak. Hiritar parte hartzearen lau esperientzi

GARAPENERAKO
LANKIDETZAREN
EUSKAL AGENTZIAAGENCIA VASCA DE
COOPERACIÓN PARA
EL DESARROLLOEUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

**Parte hartzea: garapenerako gakoa.
Hiritar parte hartzearen lau esperientzi**



Argitaratzailea:

ALBOAN

Aita Lojendio kalea 2 • Bilbo 48008
Tel.: 944 151 135 • Faxe: 944 161 938
alboanbi@alboan.org
www.alboan.org

ENTRECULTURAS

Pablo Aranda 3 • Madril 28006
Tel.: 902 444 844 • Faxe: 915 902 673
entreculturas@entreculturas.org
www.entreculturas.org

Egileak: Adivasi Kheti Yojna, ALBOAN, Ccaijo, Cipca, Entreculturas,
Inades-Formation Burundi

Data: Uztaila 2011

Itzulpena: Elhuyar

Diseinua eta maketazioa: Marra, S.L.

Inprimatzailea: Lankopi S.A.

Lege-gordailua: bi-1474/2011

Lan honen erreprodukzio partziala baimentzen da, baldin
eta helburu komertzialik ez badu eta jatorria aipatzen bada.

Aurkibidea

1. Aurkezpena	7
2. Parte-hartzea garapenerako giltzarri	11
2.1. Sarrera	11
2.2. Parte-hartzea giza garapenaren elementu nagusi	12
2.3. Gizarte zibila eta parte hartzeko espazioak: zeinek parte hartzen du?	14
2.4. Hitzartze-espazioak aztertzeko mailak eta kontzeptuak	16
3. Proposamen metodologikoa: sistematizazioa	19
3.1. Sarrera	19
3.2. Sistematizazioa, ezagutza sortzeko metodologia bat	20
3.3. Sistematizazio-prozesuaren urratsak	21
3.4. Zertarako eta zer sistematizatu dugu?	24
3.5. Historia berreskuratzea eta ikerketa kritikoa	27
3.6. Ondorioak, ikasketak eta gomendioak	28
3.7. Begirada global bat	29
4. Ccatcca-ri kolorea aldatzen. Herritarren parte-hartze esperientzia bat, bizi-kalitatea hobetzeko	31
4.1. Kasua ulertzea: esperientziaren testuingurua	31
4.2. Egindako bidea: CCAIJO eta tokiko giza garapenaren aldeko apustua	34
4.3. Estrategiak arrakasta izateko funtsezko estrategiak	39
4.4. Helmugak: ondorioak, ikasketak eta gomendioak	43

5. Laborantza Garapenerako Eskualde Batzordea Partaidetzaren erronka politika publikoak definitzean	55
5.1. Kasua ulertzea: esperientziaren testuingurua	55
5.2. Piurako Laborantza Garapenerako Eskualde Batzordeak (CORDA) egindako bidea	57
5.3. Adostasun-gunearen funtsezko elementuak	63
5.4. CIPCA eta CORDA sendotzeko aliantza	68
5.5. Helmugak: ondorioak, ikasketak eta gomendioak	69
6. Kafearen sektorea liberalizatzeko prozesua: Burundiko gubernua kafe-ekoizleen erakundearen aurrean	77
6. 1. Kasua ulertzea: kafearen sektorearen privatizazioa Burundin	77
6.2. Eragindako eragileak	79
6.3. Kafea liberalizatzeko prozesuaren ondorioak gizarte-erakundeetan	82
6.4. Gubernuaren eta gizarte zibilaren arteko elkarrizketa-prozesuaren emaitzak eta erronkak	84
6.5. Helmugak: ondorioak, ikasketak eta gomendioak	85
7. Aurreranzko bidea: adivasiak eta demokrazia Indian. Bhilodan, Gujeraten, Informazioa Eskuratzeari buruzko Legea eta Landa Enpleguari buruzko Legea inplementatzeko egindako lanari buruzko azterketa	93
7.1. Kasua ulertzea: Bhilodako testuingurua	93
7.2. RTI eta NREGA: goitik begiratuta	96
7.3. RTI eta NREGA: behetik begiratuta	97
7.4. RTI eta NREGA: barrutik begiratuta	100
7.5. Helmugak: ondorioak, ikasketak eta gomendioak	103

8. Ondorioak	115
8.1. Herritarren partaidetza: hasteko, parte hartzeko nahia	116
8.2. Parte hartzen jakitea: ikastea eta desikastea baldintza bat da eragindako erakunde guztientzat	118
8.3. Parte hartu ahal izatea: erabakiak hartzeko espazioen garrantzia	120
8.4. Nazioarteko lankidetzarako ikasketak eta gomendioak	122
9. Bibliografia	125

1. AURKEZPENA

Parte-hartzea garapenerako esparru interesgarri bat da, herritartasuna gauzatzeko ezinbesteko osagaia baita. Ahalmen kolektibo eta sozialak sorra razteko aukera ematen duten parte-hartze guneak sortzea eta birsortzea erronka handia da gaur egun. Parte-hartze prozesuak ez dira errazak, koordinatutako elementu asko behar baitira pertsonak eta gizarteak aldatzeko.

Azken urteetan, Estatuko ordezkarien elkarguneetan hiritarrek parte hartzea ohi-ko praktika bihurtzen ari da. Hegoaldeko zenbait herrialdetan esperientzia horiek gauzatzen ari dira, eta emaitzak ematen hasi dira. Parte-hartze horrek garapen-bidean dauden herrialdeetako sistema demokratikoak sendotzen lagundu du, eta, horri esker, kasu batzuetan, politika publikoak hobetu ahal izan dira, eta emaitzak lortu, giza garapenari dagokionez.

Garapenari buruzko pentsamenduan indar handiarekin ari da hedatzen estatu eraginkorren eta herritar ahaldunduaren artean konexio sendoa dagoen ustea. Ez dira eremu isolatuak, baizik eta osagarriak. Horregatik, gobernantzaren auzia lantzeko beharrari buruzko kontzientzia sortzen ari da pixkanaka, era guztietako prozesu sozialetan atentzioa jarrita, eta elementu nagusia hiritarren partaidetza izanik.

Hala ere, garapenerako lankidetzaren arloari erreparatuta, emaitzek gobernantzaren arloan egindako esku-hartze gehienek estatu erakundeekin (estatu zentralarekin edo estatuaz behetiko erakundeekin) egiten den lanarekin zerikusia dutela ikusten da. Bestalde, hiritarren erakundeak eta gizarte zibila, oro har, egoera marjinalan daude auzi horretan. Pentsa daiteke egiazko gobernantza estatuaren eremuan soilik gauzatzen dela, bereziki botere betearazlea sendotzeko. Kontua da ez dela onartzen gizarte zibilaren arloan egindako lana, edo estatuak eta gizarteak bat egiten duten arloan egindakoa.

Horiek horrela, “Empoderamiento de la sociedad civil para la gobernanza democrática en el marco del proceso de descentralización, en Piura, Moquegua y Cusco-Perú”¹ izeneko garapenerako lankidetzaprogramaren esparruan garapenerako hezkuntza jarduera aurrera eramateko, hitzartze-espazio batzuei buruzko ikerketa eta hausnarketa-prozesu bat diseinatu zen. Lan horretan, Estatuaren eta gizarte zibilaren arteko topalekuetan izandako herritarren parte-hartzeari dagozkion lau esperientzia berreskuratzen dira, sistematizazio-metodologiaren bidez, esperientzia horietan sortutako ikaskuntzak eta emaitzak jasotzeko.

Argitalpen honen lehen puntua parte-hartzeari buruzko eztabaida teorikorako hurbilpen bat da. Ondoren, parte-hartzeari buruzko ikerketa hau gidatu duten elementu teoriko-metodologikoak aurkezten dira, lau esperientzia zehatz horiek nola sistematizatu diren ulertzeko. Lau kasuak estatuarekin izandako parte-hartzeari eta hitzartzeari buruzko esperientziak dira, Peru, India eta Burundin izandako esperientziak, hain zuzen. Bi Peruko esperientziak dira, Cuscokoa eta Piurakoa. Bata tokiko esperientzia da, bestea, eskualdekoa. Indiako esperientziak komunitateak bi lege zehatz aplikatzeko eskatzeko izandako inplikazioa jasotzen du. Azkenik, Burundiko esperientziak ekoizpen-enpresa txikiek, gizarte-erakundeek eta banatzaileek kafearen kudeaketaren eta merkatura tzearen erantzule diren estatuko erakundeekin izandako elkarriketa islatzen du.

Azkenik, sistematizazio-prozesutik ateratako zenbait ondorio, ikasketa eta gomendio jaso ditugu, mota horretako adostasun-guneetan parte hartzen duten eragileei jarraitu beharreko bideaerakusteko. Gainera, esperientzia horietatik proposamen batzuk atera ditugu, eta gobernagarritasunaren eta herritarren parte-hartzearen esparruetako garapenerako lankidetzaprogramari orientatibide gisa aurkeztuko ditugu.

¹ Erreferentzia Kodea: PGM-2007BA/0006.

Eskerrak ematea:

Sistematizatzeko prozesuan, eztabaidan eta gogoetan eta kasuen idazketan parte hartu duten pertsona guztiei esker atera ahal izan dugu argitalpen hau. Munduko leku ezberdinetatik, beren prozesu parte-hartzaileetako esperientziak, zailtasunak eta lorpenak partekatzeko prest izan diren pertsonen eskainia dago gure lana.

Ondorengo erakundeak eskertu nahi ditugu bereziki: CCAIJO eta CIPCA Perun, Inades-Formation Burundin eta Adivasi Kheti Yojna Indian.

Balio bezate lerro hauek, bereziki eskerrak emateko honako hauei:

- Ccatca komunitateko liderrei, Quispicanchi herriko eta probintziako agintariei, eta CCAIJO erakundeko langile eta langile-oiei.
- Piurako Nekazaritza Garapenerako Eskualde Kontseiluko kideei: eskualdeko agintariak eta elkarte eta ekoizle taldeetako ordezkariak.
- Burundiko kafe ekoizleen federakundeari.
- Bhilodako adivasi komunitateei Gujerat eskualdean.

Pe rtsona hauek guztiek, bizi eta partekatutako historiak berregiten eta beren esperientziak partekatzen ordu asko eman zituztelako atera ahal izan ditugu zenbait ikasbide eta gomendio, parte-hartzaeri buruz eta garapenarekin honek duen loturaren inguruan.

2. PARTE-HARTZEA GARAPENERAKO GILTZARRI

2.1. Sarrera

Parte-hartzea garapen eta demokrazia kontzeptuen zati da. Gaur egun ezin da ongizateaz hitz egin parte-hartzearen dimentsioa kontuan hartu gabe; parte-hartzeak jendeak bere bizitzari eragiten dien gaiei buruzko erabakiak hartzeko duen ekimen-gaitasuna inplikatzeko du.

Sistematizatu ditugun herritarren parte-hartzeen kasuak ulertzeko, parte-hartze-ari buruzko kontzeptu giltzarri batzuk berrikusi behar ditugu, aztertzen ari garen parte-hartzeko espazio formalak azaldu ahal izateko.

Hau da parte-hartzearen lehen definizio bat: “gizarte osoaren mobilizazioa, jatorrizko interesen arabera, baliabideak kudeatzeko eta haietan parte hartzeko arau gardenak osatzeko, guztion onera eraman gaitzaten²”.

Berrikusi ditugun esperientzietan oinarrituta, badakigu ez dela erraza parte hartzen jakitea eta parte hartu ahal izatea. Askotan jendea bere interes gertukoena bere esku hartu ez duten erabakien eraginpean daudela ikustean mobilizatzen eta kezkatzen da.

Parte-hartzeko espazioak sustatzeak indarra hartu du azken urteotan, bai gizarte zibileko taldeen aldetik, bai hainbat herrialdeetako gobernuen beraien aldetik ere. Elkarrizketarako eta parte-hartzeko espazioak eraikitzea jendea bere garapeneraren, eskubideen eta betebeharren subjektu aktibotzat hartzen duen ikuspegiaren zati moduan sustatu da.

Hori dela eta, ALBOAN eta Entreculturas erakundeok, Adivasi Kheti Yojna, Ccaijo, Cipca, Inades-Formation Burundi-rekin batera, uste sendo honetatik abiatzen gara:

² Cornwall, A.-tik egokituta (2002).

ez dago garapenik beren garapenaren protagonista diren gizarte zibileko taldeen ahotsik eta parte-hartzerik gabe. Baztertutako jendearen iritzia eta ikuspegia haiei zuzenean eragiten dieten politika publikoko erabakiak hartzean eta haiek diseinatzean kontuan hartuko dituen gizarte bat eraikitzea da gure helburua.

Kapitulu honetan, ikerketa definitzen eta sistematizazioaren azterketaren kategoriak zehazten lagundu diguten kontzeptu batzuk jaso ditugu. Jarduera honetan askotariko esperientziak berrikusi ditugu, baina elementu komunak dituzte; parte-hartzea ahalduntzeko **prozesutzat** ulertzen laguntzen digute, eta bizitako esperientziari buruzko ikaskuntza batzuk ateratzen.

2.2. Parte-hartzea giza garapenaren elementu nagusi

Parte-hartzea garapenerako elementu nagusitzat onartzearen oinarria garapenaren ikuskeraren eta sustapenaren inguruan sortutako tentsio batzuk dira. Tentsio horietako bat da pobrezia-egoeran dauden pertsonak pasiboak eta garapenerako politiken hartzaile eta onuradunak direla dioen ideia zaharra. “Garatu behar dutenen” parte-hartzea sustatzeak biztanleriari beste begi batzuekin begiratzea eskatzen du, eta “biztanleria onuraduna” ikuskeratik “herritarrak” ikuskerara igarotzea. Parte-hartzeak ahalduntzea ere eskatzen du. Hau da, “parte-hartzeak botere-transakzio bat eskatzen du beti” (Dubois, 2000). Parte hartzen ez dutenek, entzuten ez zaienek, baztertuak direlako bizi dute egoera hori, eta haien garapenerako haien parte-hartzea ezinbestekotzat hartzen bada, haiek prozesu horretan barneratzea zailtzen duten oztopoak hautsi behar dira.

Pobrezia eta bazterketa aukerak izatea eta askatasunez gozatzea eragozten duten arazotzat hartzen baditugu, parte-hartzeak aukera horiek izateko baldintzak sortzea eskatzen du. Baina aukerez eta askatasunez gozatzeko parada hori itzultzea da, hain zuzen, boterea negoziatzea eskatzen duena. Begirada aldaketa hori egiazko garapenarekin koherentea izan dadin, baztertuak erabakitzeke boterea eta ahalmena dituztela onartu behar da, erabili edo aldarrikatu ez den boterea. Pertsona bat pobrea da ez pobrea diru-sarrerak edo objektu materialak falta zaizkiolako bakarrik, baizik eta “ez duelako aukerarik garapenerako beharrezkotzat hartzen diren mailak lortu ahal izateko bere bizitzari eragiten dioten erabakietan behar bezala parte hartzeko” (Dubois, 2000).

Pentsatu izan da pobrezia-egoeran bizi direnek ahalegin guztia bizirautera eta oinarrizko beharrak asetzea bideratzen dutela, eta ez direla kezkatzen hain presakoak ez diren kontuez, baina hori ez da zuzena. Izan ere, erakunde eta komunitate askok

munduko hainbat herrialdeetan egindako lanak erakusten du parte hartzeko gogoia dutela, eta mugimendu ugari sortzen direla beren eskubideak defendatzeko, proposamenak aldarrikatzeko, garatzeko eta ahaztu egin dituen gizartearen gizarteratzeko beharragatik.

Parte-hartzearen ideia eta hiritartasunaren ideiarekin oso lotuta daude. Parte-hartzea jendea komunitate politikoko partaide sentitzeko aukera baino ez da, eskubide eta betebeharrak askatasunez erabiliz. Parte-hartzeak eskatzen duena da jendeak bere baitan boterea duela planteatzea, eta parte-hartzearen bidez, boterea berreskuratzeko eta eguneratzeko aukera dutela, eta horrek gizarte-harreman pribatu nahiz publikoak berrantolatzen ditu.

Parte hartzeak askatu eta ahaldundu egiten duela ulertzen badugu, orduan prozesu hartu beharko dugu. Gaitasunak sortu eta, pixkanaka-pixkanaka, bestearen boterea onartzeko egiturak aldatzen dituen prozesu hartu. Parte-hartzeak adierazten du eskubideak modu eraginkorrean gauzatu daitezkeen espazioak proposatzeko, erabakitzeko eta sortzeko gaitasuna izatea, eta komunitateko ekonomiako, politikako eta gizarte-bizitzako zati aktibo bihurtzea. Parte-hartzea sustatzeak gizarteko maila guztietan balio demokratikoak onartzea dakar.

Parte-hartzea baztertuen taldeetatik sortu behar da, eta haien interesak, erritmoak eta prozesu partikular jaso eta errespetatu behar ditu. Kasu batzuetan, badirudi prozesu horiek emaitza gutxi ematen dituztela, baina prozesuak berak, elkarrizketarako eta laguntzarako espazioa den heinean, gaitasun indibidualak, kolektiboak eta harremanetarakoak garatzen ditu, eta horrek emaitza handiagoak emango ditu etorkizunean. Horregatik, egiazko parte-hartzea pertsonak eta haien inguruak aldatzeko bide ematen diona da.

1. koadroa. Parte-hartzearen definizioa

“Pobretuek elkarrizketa- eta hitzarmen-espazioetan parte hartzearen helburu nagusietako bat da pobreen aldeko politikak eta programak definitzea, pobrezia-rekin eta bazterketarekin zerikusia duten arazoak agenda publikoa txertatu daitezkeen. Egoera horretan bizi direnek konponbideak diseinatzen parte hartu dezatela, eta baliabide publikoak zuzenago banatu daitezela. Beste ideia bat da pobreen parte-hartzeak elkarre-bizitza indartzen duela, eta tokiko boterea demokratizatzen lagundu. Haien arazo eta beharrei kolektiboki erantzuteko aukera ematen du”.

Iturria: Bebbington et al., 2005.

2.3. Gizarte zibila eta parte hartzeko espazioak: zeinek parte hartzen du?

Sistema demokratikoen krisi sakona bizi duten honetan parte hartzeko gaitasunak eta botereak ukatzeak parte handiak sortu ditu politikak erabakitzen dituztenen eta haien “erabiltzaile” edo “onuradun” direnen artean. Testuinguru askotan ikusten da klase politikoaren eta gizartearen arteko urruntze handia; demokrazia ordezkatzailerik ordezkatzeko duen gizartearen parte-hartzea eta elkarren arteko elkarrizketa gauzatzeko mekanismo eraginkorrak sortzeko gaitasuna zalantzan jartzen hasi da.

Demokrazia ordezkatzailerik sendotzen joan den heinean, bi krisi izan dira: parte-hartzearen krisia eta ordezkari politikoaren krisia (Velásquez eta González, 2003). Herritarrek ez dute politikan parte hartzeko interesik agertzen eta ez dute sentitzen agintariak beraien ordezkariak direnik.

Sistema demokratikoen krisi hori gizarte-taldeek informazioa eskuratzeko eta boterea izateko duten aukera txikian islatzen da. Demokrazia ordezkatzailerik hutsuneak sortzen ditu, bereziki boterea besteen esku uzteari eta gutxiengoak ordezkatzeari dagokienez, eta horren eraginez, gizarteko maila zabalek ez dute lortzen beren eskubideak onarraraztea.

Testuinguru horretan, herritarren parte-hartzea herritarren eta demokraziaren arteko harremanak berriro diseinatzen lagundu dezakeen tresna bat izan daiteke, eta hala, harreman hori berariazkoagoa eta gogoetazkoagoa izango da, eta ekintza politikoa parte-hartzaileagoa eta gardenagoa izaten lagunduko du. Demokrazia parte-hartzailearen elementu giltzarri bat da gizarte-mugimenduek kultura-aniztasuna instituzionalizatzeko eta politikari beste esanahi bat emateko duten rola (Velásquez eta González, 2003). Gizarte-mugimenduek ezin dute eremu politikotik bereizita egon, praktika menderatzaileak aldatzen, hiritartasuna erabiltzeko espazioak eragotzen eta baztertuen gizarteratzea bermatzen saiatzen diren heinean.

Horiek horrela, garapena demokratizatze, besteak beste, herritarrek elkarrekin harremanetan jartzeko eta beren beharrei irtenbideak aurkitu ahal izateko hausnartu eta eremuak eta erreferentzia-esparruak sortzeko espazioak sortu dira. Baina galderahauiek sortzen dira: Nork parte hartzen du eta nork parte hartu beharko luke? Nor gonbidatzen da? Nori onartzen zaio parte hartzeko aukera? Aurreko atalean azaldu den moduan, parte-hartzea askatasunaz gozatzea da, eta horiek horrela, gizarteko talde zabalei ez zaie onartzen gaitasun hori eta/edo ez dute horretarako gaitasunik.

Gizartearen munduan, etengabe aipatzen da gizarte zibilaren parte-hartzea, herri-ekintzen taldeek gizartean duten espaziotzat ulertuta.

Gizartea horrela ikusteko, ikuspegi zabala behar da, gizartea osatzen duten erakundearen aniztasunaren eta konplexutasunaren ikuspegia bertan txertatu ahal izateko (Carmen eta Volkhart, 2007). Gizarte zibil hori, modu formalean antolatuta edo modu informalean bilduta, demokratizazio-prozesuetako eragile nagusitzat osatzen da. Gaur esaten da ezin dela estatu sendotarik izan gizarte ahulekin. Garapenaz hitz egiteko, geure buruari galdetu behar diogu zer gizarte ari garen erakitzen, eta hiritartasuna nola erabiltzen da. Estatuak ahulak edo indartsuak izan daitezke; estatuko gizartea nolakoa den.

Adibidez, Latinoamerika inflexio- eta krisi-unea bizitzen ari da, eta aztertu behar da gobernuak eta herritarrak nola ari diren sortzen proiektu kolektibo bideragarriak, demokrazia ahul bat indartzeko, eta aldi berean, garapen jasangarri eta barneratzaileko prozesuetara bideratzeko.

GNBPren arabera: “politika ekonomia bezain garrantzitsua da garapena arrakastatsua izateko” (PNUD, 2004: 30). Hori dela eta, gobernagarritasun demokratiko moduak sortu behar dira gizarteko maila guztietan; instituzionaltasuna sendotu eta legitimatu behar da; estatuari eta ekonomiari buruzko eztabaidak sustatu behar dira, eta bereziki, gizarte zibileko taldeak aktibatu eta indartu behar dira, eztabaida horretan parte hartzen.

Herritarrak gizarte zibileko erakundeekin lotu behar dira. Erakunde horiek subjektu garrantzitsuak izaten dira erakuntza demokratikoan, gobernuen kontrolan eta politika publikoak definitzeko eztabaida- eta barneratze-mekanismo berrien garapenean.

Gizarte zibileko talde horien parte-hartzeak gizartea eta politika sakonago aldatzen lagundu dezake. Azken urteotan, espazioak irabazi dira herrialdeetan izaten diren politika-aldaketei laguntzeko, gatazka arau demokratikoetan oinarrituz lantzeko, legezko sistemak bermatzeko, gobernuak zenbait arlotan egiten dituzten ekintzak kontrolatzeko... Egia da aurrerapauso nabarmenak egin direla gizarte zibilaren espazioak sortzen, baina egia da halaber, oraindik ere hutsune handiak bete behar direla, eta horietan eztabaida posible dela; adibidez, merkatuen arautzeari eta garapenaren ereduari buruzkoak. Badirudi herritarrek parte hartzeko espazioak eztabaida politikoki lotuago daudela askotan. Hala ere, erabaki ekonomiko handiak ez dira gi-

zartearen eskuetatik igarotzen oraindik, eta horrek gero eta tarte handiagoa sortzen du gobernuen eta gobernu horiek zerbitzatzen duten gizartearen artean.

Azken batean, oinarrian dagoen eztabaida da nola inplikatzen den gizartea interes komunei buruz hausnartzeko, eta zer espazio eta arlotan hartzen diren erabakiak. Halaber, gizartearen eta gizarteko talde antolatuen interesak nola ulertzen dituzten erakunde publikoek. Parte-hartzeko espazioak sustatzeak arlo publikoan, gizartean eta politikan interesa duten herritarrak sortzera eraman behar gaitu. Interes horrek gizarte zibileko talde formalei nahiz herritar guztiei lagundu diezaieke estatuarekin egiaz guztien onari begiratuko dioten eztabaida- eta negoziazio-baldintzak eraikitzen.

2.4. Hitzartze-espazioak aztertze mailak eta kontzeptuak

lkerketa honetan sistematizatutako hitzartze-espazioetarako hurbilpen eta azterketa honi ekiteko, behatze- eta eztabaidatze-tresnetan txertatuko diren azterketa-dimentsio batzuk hartu dira kontuan, eta horiek gorpuztuko dute parte-hartzeko esperientziak sistematizatze ariketa.

Boterearen asimetria eta haren azterketa

Posible da espazio horietara John Gaventa-ren (2006) proposamenetik hurbiltzea; hark esplikatzen du testuinguru horietan parte hartzeko elementu nagusia boterearena simetria eta hura identifikatzeko, kudeatzeko eta arautzeko aukera dela. Boterearen dinamika balizko hiru dimentsioan hartzen da kontuan: maila, espazioa eta forma.

Gaventarentzat, “espazio politikoak” herritarrek (bereziki pobrezia-egoeran daudenek) beren bizi-baldintzak hobetzeko baliatzen dituzten bide instituzionalak eta praktika sozial eta politikoak dira. Espazio horiek gizarte zibileko talde desberdinek har ditzakete une eta aukera zehatzetan, eta herritar aktibo izateko eskubidea aldarrikatuko dute; espazio horien bidez, beren bizitzetara eta interesetara eragiten dieten erabakitze-prozesuetan gobernuetara eragiteko aukera dago.

Hiru espazio-mota sailkatzea proposatzen dugu: itxiak (herritarrentzat itxita egon ohi diren erabakitze-prozesuak, eskuarki burokraziari, hautatutako ordezkarietara edo adituetara dagozkienak); gonbidatuak (erakunde, agintari edo gobernuetara herritarrak parte-hartzearekin gonbidatzen dituztenak); eta sortu edo eskatuak (herri-mobilizazioetatik etorri ohi diren taldeek sortuak; gizarte eragileek hegemonia dute espazio horietan eta beraiek sortzen dituzte espazio horiek).

Hitzartze-espazioak aztertzeke proposatutako kategoria-proposamen horri jarriki, esan daiteke gizarte zibileko taldeek estrategia eta espazio desberdinetatik jar duntan dutela boterea lortzeko. Adibidez, aztertutako hitzartze-espazioak botere ikusgarriko eremuak dira, eta eztabaida publikoak, gardentasun handiagoa, politika publiko hitzartuak diseinatzea eta abar eskatzen dute. Egon daitezke beste talde batzuek (edo hitzartze-espazioetan parte hartzen dute talde berak) “lobby” bat egiteko eta eztabaida politikoko edo programa jakin bateko elementuetan modu pribilegiatuan eragiteko mobilizatzen direnak. Azkenik, talde horiek gizarte-kontzientziazioaren arloan, ikusezina denaren arloan, lan egin eta behin eta berriz ekin dezakete, eta hala, herritarren babesa lortu daiteke; hori boterea eta babesa da proposamen eta protestarako.

3. PROPOSAMEN METODOLOGIKOA: SISTEMATIZAZIOA

3.1. Sarrera

Estatuaren eta gizarte zibilaren arteko elkarrizketa eta topagunerako gunetan herritarren parte-hartzeari buruzko ekarpen teoriko-praktiko gutxi daudela jakinda, lan honen helburua da, esparru horretan, hausnarketarako eta analisirako elementuak eman ditzaketen esperientziak berreskuratzea. Gizarte zibilak erakunde publikoetan modu eraginkorragoan parte hartu ahal izateko gaitasunak sortzeari buruzko gakoak emango dizkiguten partaidetza-prozesuak berreskuratzen nahi dira.

Ikerketa hau gidatu duen metodologiak ikerketa kasuetako pertsona protagonisten ekarpenak zentralizatzen hartzen ditu. Kasu honetan hiritar partaidetzaren lau esperientzia aukeratu dira: bi Peruko deszentralizazioaren markoan, bat Indiako eta adostasun esperientzia bat Burundiko kafe esparruan. Ondorengo aktoreak aintzat hartzen zituzten esperientziak dira: tokiko komunitateak eta komunitate-erakundeak; estatuko ordezkariak; eta bi aldeetan sendotze eta bide-laguntza erakunde bat.

Esperientziak bizi izan zituzten subjektuek eurek esperientzia horiek berreraikitzea eta interpretatzea proposatzen du sistematizazioak, tresna metodologiko gisa. Kanpoko erakunde baten laguntzarekin landu ditugu aztertutako kasuak. Metodologia horren helburua da esperientzia bizi izan zuten pertsonek berek esperientzia gogoratzea, haren azpiko logikak ulertzea eta ondorioak, ikasketak eta gomendioak atera ahal izatea, esperientzia horiek bizi izandakontzat eta hirugarrenentzat baliagarriak izan daitezen eta etorkizuneko esku-hartzeak bideratzen lagun dezaten.

Tresna hori erabiltzea erabaki dugu, partizipazioaren esparruan, eta egunerokotasunetik abiatuta, adostasun-guneek zer potentzial eta zailtasun dituzten jakiteko. Alde horretatik, esperientzia eta teoria lotzeko eta, hartara, galdera berriak eta ezagutza berriak sortzeko aukera ematen digu metodologiak.

2. koadroa. Sistematizazioarako proposamen metodologikoaren ekarpenak

- Gure praktiken inguruko berrikusketa kolektiboa eta amankomuneko.
- Praktika bizi dutenek esperientzia horren gaineko jabetzea.
- Ikasketa berria.
- Orokortu ahal daitezkeen proposamen alternatiboak aurkitzeko aztarnak.
- Praktika konkrituak eta gogoeta esparruen arteko uztarketa erraztu dezakeen ezagutza berria.

Iturria: Sistematizazioa, gure praktiken gaineko begirada berria. Giza transformazioko esperientziak sistematizatzeke gidaliburua (2004).

3.2. Sistematizazioa, ezagutza sortzeko metodologia bat

Aurretik esandakotik ondoriozta dezakegu sistematizazioa metodologia parte-hartzaile bat dela, lan praktikoaaren berrikuspen kolektiboa eta partekatua ahalbidetzen duena eta bizi izandako praktika barneratzen laguntzen duena, ikasketa berriak sortzeko.

ALBOANen, Pedro Arrupe Giza Eskubideen Institutuarekin eta Hegoarekin batera egindako proiektuan landutako sistematizazioaren definizioa erabiltzen dugu. Gure ikuspegitik, sistematizazioa esperientzia bat edo batzuren interpretazio kritikoa da, zeinek berauen ordenamendu eta berreraikitzearen bitartez, bizitutako prozesua aurkitu edo azaltzen duen, baita prozesuan eragin duten faktoreak, zein nola eta zergatik erlazionatu diren horrela elkarren artean, eta honela, eza-guera berriak sortzen dituelarik³.

Lan honetan, ikerketa eta ebaluazioa lotzen dituen tresnatzat hartzen da sistematizazioa. Ikerketarekin lotutako tresna gisa, aukera ematen digu Estatuak eta herritarrek partekatzen dituzten gune publikoetan herritarren parte-hartzeari buruzko esperientziak ezagutzeko eta jasotzeko, praktikatik ikasteko, garapen teorikoarekin egiaztatzeke eta ikasketa berriak sortzeko.

³ Hainbat egile, Sistematizazioa, gure praktiken gaineko begirada berria. Giza transformazioko esperientziak sistematizatzeke gidaliburua. Bilbo, ALBOAN eta beste zenbait, 2004: 14.

3. koadroa. Sistematizazioak ezagutzak sortzeari egindako ekarpenak

Ezagutzak sortzeko xedea duen produkzioa da: maila epistemologikoan, ezagutza soziala nondik, zertarako eta nola sortzen jakiteko jarrera kontzientea da.

Ezagutza sortzeko produkzio kolektiboa da: eragile sozialek hartzen dituzte ikerketaren erabaki nagusiak: zer, zergatik, zertarako eta nola egin.

Sistematizazioaren objektu den **praktika sozialaren konplexutasuna onartzen du.** Testuinguruek, harremanek, zentzuen eraikuntzak, efektuak aurreikusitakoak izateak ala ez izateak, etab. baldintzatzen dute.

Praktika **berreraiki nahi du**, bere zabaltasun osoan. Ikuspegietatik eta jakintzetatik abiatuta, esperientziaren kontaketa deskribatzailea egitean datza.

Esperientzia osatzen duten logika eta zentzuen interpretazio kritikoa egitea du helburu. Esperientzia berre raikitzeaz gain, haren logika partikularra, osatzen duten zentzuak, ulertzea du helburu.

Esku-hartze sozialaren praktika indartu nahi du. Abiapuntuko interesa pragmatikoa da: praktika hobetzea.

Oro har, praktika sozialen kontzeptualizazioari ekarpenak egiten dizkio. Praktika sozialen zentzuak ulertzea du helburu, eta hortik abiatuta, soziala dena ulertzeko interpretazio-eskemak egitea: praktika-alor bateko zenbait sistematizazioen balantzeak hausnarketa teoriko zabalagoak eragin ditzake.


Iturria: Sistematizazioa, gure praktiken gaineko begirada berria. Giza transformazioko esperientziak sistematizatzeko gidaliburua (2004).

3.3. Sistematizazio-prozesuaren urratsak

Bizitako esperientzien ikerketa, analisi eta interpretazio hori egiteko, pausoak hauek eman ditugu:

4. Koadroa. Sistematizazio-prozesuaren urratsak

- **1. pausoa: abiapuntua**
Esperientzian parte hartu izana eta sistematizazioa borondatez egitea.
- **2. pausoa: hasierako galderak**
Itxaropenak eta galdera hauek definitzea:
Zertarako sistematizatu nahi dugu? (Helburua)
Zein bizipen sistematizatu nahi dugu? (Helburua)
Zein dira interesatzen zaizkigun bizipenaren alderdi nagusiak? (Ardatza)
- **3. pausoa: bizitutako prozesua berreskuratzen**
Historia berreraikitzea, ordenatzea, informazioa sailkatzea, une erabakigarriak identifikatzea.
- **4. pausoa: sakoneko hausnarketa**
Prozesua kritikoki aztertzea eta interpretatzea, egindako ekarpen teorikoekin lotuta.
- **5. pausoa: helmugak**
Ondorioak, ikasketak eta gomendioak zehaztea.
- **6. pausoa: gure ikaspenak komunikatzea**
- **7. pausoa: ezagutza osatu eta lantzea**
Sistematizazioen sistematizazioa egitea, hau da, antzeko gaia duten esperientziak biltzea, gauza berriak ikasteko.



Iturria: Sistematizazioaren abentura. Nola ikasi gure praktiketarik praktika horietatik abiatuta (2006).

Ondoren aurkeztuko ditugun esperientziak aztertze⁴, tailer parte-hartzaileak egiteko bi une aurreikusi genituen. Erakundeetan “ad hoc” sortutako sistemazio-talde batek, zeinetan ALBOANeko kideek parte hartzen zuten, dinamizatu behar zuen lan hori. Hasiera batean, hasierako galderak egitea eta bizitako prozesua berreskuratzen hastea zen asmoa. Lehen fase horretan, zenbait tailer planifikatu genituen eragile-taldeekin (toki- eta eskualde-agintariak, ordezkari komunitarioak eta erakunde bideratzailea). Ondoren -aldi bat pasatua zelarrik-, bizitako prozesua eta oinarriko hausnarketarako irizpide batzuk berreskuratzen hastea zen asmoa. Hala, bigarren zati horretan landu nahi genituen interpretazio kritikoa eta helmugak, alegia, ondorioak, ikasketak eta gomendioak. Esperientzietako batean, praktikak aukera eman zuen prozesu hori betetzeko. Beste batzuetan, pertsona guztiekin batera kontaktatzeko zailtasunengatik, mintegi batzuk erdi estrukturaturako elkarrizketek ordezkatuak izan ziren. Honen mugatu egin zuen ezagutza bateratua eraikitzea, ikerketaren prozesuak bere gain hartu behar izan zuen muga..


Ondorioen, ikasketen eta gomendioen hasierako hurbilketa egin ondoren, nazioarteko mintegi bat egin genuen, argitalpen honetan agertzen diren lau esperientzien ordezkariak, eta ALBOAN eta Entreculturas-eko langileak hartu-emanen jartzeko. Esperientzien analisia sakontzeko, neurri batean ala bestean komunean zituzten elementuak definitzeko eta esperientzia horiei buruzko galdera berriak egiteko egin genuen mintegia.

Mintegi horren ondoren, erakunde publikoekin elkartzeko gune bat antolatu genuen, eta esperientzien ordezkariak ere parte hartu zuten. Bilgune horretan, finantziarako eta lankidetzaren politikekin lotutako jardueretarako funtsezkoak iruditzen zitzaizkigun ikasketak aurkeztu genituen.

Azkenik, gizarte zibilaren eta Estatuaren arteko adostasun-esparruan ezagutzak eta ikasketa berriak sortzen laguntzeko, oraindik ere garrantzitsua da zenbait dokumentu argitaratzea -argitalpen honen hasieran adierazitako moduan- eta esperientzia eta baliabide horiek zabaltzea.

⁴ Proposamen metodologikoaren oinarria hemen garatutakoa da: Sistematizazioaren abentura. Nola ikasi gure praktiketatik praktika horietatik abiatuta. ALBOANen eska daiteke edo ALBOANen webgunean kontsultatu daiteke.

5. koadroa. Lan-ibilbidea



Iturria: Geuk egina.

3.4. Zertarako eta zer sistematizatu dugu?

Sistematizazioaren aldeko aukera metodologikoa egin genuen, ikerketa- eta hausnarketa-prozesua esperientzien protagonisten parte-hartzearekin egin ahal izateko. Sistematizazioak aukera hauek ematen ditu:

- Egindakoa aztertzea.
- Martxan jarritakoaren memoria berreskuratzea.
- Egindako akatsez gain, bidean egindako aurrerapausoak eta bizitako une kritikoak aztertzea eta identifikatzea.
- Prozesu zehatzak aztertzea, testuinguru zabalago batean.
- Praktikatik ikastea.
- Praktikatik bertatik abiatuta, ezagutza berriak sortzea.
- Gure praktikak hobetzea.
- Eraldaketa sozialaren esparruan egiten dugun lanean aurrerapenak egitea.

Datozen kapituluetan azaldutako esperientzia zehatzetan, helburu honetarako sistematizatu dugu eta hau sistematizatu dugu:

6. koadroa. Jesús Obrero Elkartea (CCAIJO),
Quispicanchi probintzia, Cusco, Peru

- **Helburua:** Ccatcca-ko mikroarroko ur-uztaren esperientzia berreskuratzea. Leku horretan, mikropresak eraitzea proposatu zuten, Peruko mendietako euri-urak jasotzeko, eta parte-hartze eta antolaketa komunitarioaren elementu dinamizatzailea bihurtu zen tokiko esparruan.
- **Objektua:** mikropresak eraikitzea (2001 urtean hasi ziren eta 2006ko abenduan bukatu zituzten, Ccatccako mikroarroan, Quispicanchi probintzian) eta tokiko adostasun-guneekin izandako lotura.
- **Ardatza:** eragileen parte-hartzea eta antolakuntza (gizarte zibila, tokiko gobernua eta erakunde sustatzailea), mikropresak eraikitzeko, ura kudeatzeko eta esperientzia hori gobernuaren eta gizarte zibilaren arteko elkarriketa-guneetan txertatzeko.

Iturria: Geuk egina.

7. koadroa. Nekazaritzarako Ikerketa eta Sustapen
Zentroa (CIPCA), Piura eskualdea, Peru

- **Helburua:** CORDA erakundea nekazaritza-sektorearen eskualde mailako politika publikoko proposamenak sortzeko Estatuaren eta gizarte zibilaren arteko harremanetarako gune gisa berreskuratzea eta haren funtzionalitateari buruzko hausnarketa kritikoa egitea.
- **Objektua:** gizarte zibilaren eta Estatuaren arteko harreman-esperientzia, CORDAren politika publikoak sortzeko, 2004-2008 epealdian.
- **Ardatza:** CORDAren parte-hartzea eta antolakuntza, nekazaritza-sektorean politika publikoak lantzeko, ezartzeko eta horiei segimendua egiteko adostasun-prozesuan.

Iturria: Geuk egina.

8. koadroa. Inades-Formation Burundi

- **Helburua:** Inades-Formation Burundik kafearen sektorea privatizatzeko prozesuan Burundiko kafe-ekoizleen erakundeak ahalduntzeko sustatutako kafearen laborarien prestakuntza- eta antolaketa-esperientzia berreskuratzea.
- **Helburua:** Inadesek 2007-2008 urteetan kafearen laborarientzako sustatutako prestakuntza-, laguntza- eta antolaketa-prozesua.
- **Ardatza:** esperientziak eragindako eragileen parte-hartzea eta antolaketa berreskuratuko ditu: Inades-Formation Burundi, kafe-ekoizleen erakundeak eta botere publikoak kafearen sektorea privatizatzeko prozesuan.

Iturria: Geuk egina.


9. koadroa. Adivasi Kheti Yojna (AKY)

- **Helburua:** Adivasi Kheti Yojna-k (AKY) Gujerateko Sabarkhanta eskualdean adivasien komunitateekin demokrazia parte-hartzailea sustatzearen arloan baliatutako komunitateko ahalduntze-eredua berreskuratzea eta hari buruzko hausnarketa kritikoa egitea.
- **Helburua:** adivasien komunitateetan azken sei urteetan (2003-2006) aurrera eramandako prestakuntza- eta laguntza-prozesua, hiritartasun-eskubideak erabiltzeko lege hauek inplementatzeko: REGA (Rural Employment Guarantee Act); RTI (Right to Information Act).
- **Ardatza:** eragindako subjektuen (herritar onuradunak eta AKY) parte-hartzea eta antolaketa demokrazia parte-hartzailea sustatzeko.

Iturria: Geuk egina.

Bestalde, sistematizazioaren erakunde sustatzaileek -oinarrizko komunitateekin lan egiten zuten tokiko erakundeek eta ALBOANek- sistematizazioari buruzko agenda propioa geneukan, gerora komunitateekin partekatu genuena. Atxikitako grafikoan, tresna horren potentzialtasuna eta ikerketaren asmoa azaltzen dira eskema batean, hau da, nazioarteko lankidetzeta-politiketarako ikasketak eta gomendioak sortzea eta, hala, gizarte zibilak adostasun-guneetan parte hartzearekin lotutako politika publikoen definizioan eragina izatea.

10. koadroa. Herritarren parte-hartze esperientzien sistematizazioaren egitura



Iturria: Geuk egina.

3.5. Historia berreskuratzea eta ikerketa kritikoa

Aipamen berezia egiten dugu historia berreskuratzeari, eta bereziki, hausnarketa kritikoa, prozesu metodologiko honetan bereziki kontuan izan behar diren bi une giltzarri baitira.

Historia berreskuratzea oso une garrantzitsua izan da (eta eskuarki, hala izaten da) baterako lan eta eztabaidarako, elkar indartzeko, eta, denborak aurrera egin ahala, egindako lana eta lan horrek sortutako ikaskuntza onartzeko. Prozesuaren une hori oso erakargarria da prozesuan parte hartzen dutenentzat. Parte-hartze handia izaten da, esperientzian parte hartu zuten, baina hainbeste denbora esperientzian in-

plikatuta egon gabeko jendearekin elkartzeko unea izaten da. Une horretan, gainera, bizitako esperientzia baten elementu berriak ere aurkitu daitezke.

Bigarren unea, ikerketa kritikoa egitekoa, une zailagoa da jendearentzat. Batzuetan, denbora eta esfortzu asko eskaintzen dizkiogu historia berreskuratzeari, eta ikerketa kritikoa garaia iristen denerako, taldea ia indarririk gabe egoten da. Puntu horretan, garrantzitsua da sistematizazioaren dinamizazio-taldearen lana eta teoriarekin egiaztatzea, galdera eta ikuspuntu berriak sortzen dituen jakiteko. Eskuarki, talde dinamizatzaileak planteatzen ditu galdera kritiko batzuk edo eztabaida-arlo batzuk, esperientzia hori bizi izan duten pertsonekin egiten diren lantegietan erkatzeko. Nolanahi ere, komeni da nabarmentzea historia kritikoki aztertzea eta interpretatzea dela kontua, ez irtenbiderik edo errurik bilatzeko, baizik eta ulertzeko zer gertatu zen eta sakoneko egiatzko hausnarketa egiteko. Une horretan ona izaten da egindako lan guztia gogora ekartzea, eta esperientzian zehar sortu diren galderei buruz berriro hausnartzea. Prozesu bakoitzaren ardatzetik abiatuta, esperientziari buruzko galdera berriak egitea da helburua, gertatu zena zergatik gertatu zen jakiteko. Azken batean, esperientziari uztea bideak irekitzen. Gerta liteke galderek erantzuteko ahalmena gainditzen duten itxura ematea, baina sistematizazioaren, ardatzera, teoriara eta elkarrizketara itzuliz, esperientziarekin ia galdera guztiak erantzun ditzakegu, eta hori baino interesgarriagoa dena, harritu gaitzaketen erantzunak.

3.6. Ondorioak, ikasketak eta gomendioak

Sistematizazioan, garrantzitsuak dira bai prozesua bai “bistako emaitzak”, ahaldundu egiten dutelako eta ikasketak sortzen dituztelako. Ondorioak, ikasketak eta gomendioak sortzeko garaian, ondorengo irizpidea erabili dugu horiek taldekatzeko.

Ondorioek esperientziaren analisitik ateratako lehen erantzunari egiten diote erreferentzia. Erantzun hori izaera orokorrekoa da eta analisia gidatzen duen ardatzarekin lotuta dago. **Ikaskuntzak** esperientziaren eraginez sortutako hausnarketak eta aplikazio praktikoak dira. Esperientziak emandako ondorioak gehiago sakontzea dakar horrek. Eta, azkenik, **gomendioak** dira gure elkarrekin erantzutzea balio duten zehaztasunak eta gainerako elkarteekin partekatzeko eta etorkizunean antzekoak izan daitezkeen esperientziatarako kontuan hartzeko orokortasunak.

Dagozkigun kasuetan, ahalegin berezia egin dugu, esperientzia bakoitzaren amaieran, parte hartzen duen eragile bakoitzari dagozkion ondorio, ikasketak eta gomendioak zehazteko.

3. 7. Begirada global bat

Halako sistematizazio-prozesu bat egiteko esperientzia ona izan da, ALBOANen erakunde aliatuekin lan eta metodologia bat partekatzeko aukera eman baitigu. Posible egin du nazioarteko lankidetzaren prozesu horietan parte hartzen duten eragile guztien arteko hausnarketa eta elkarrizketa zuzena: komunitateak eta elkarte komunitarioak; kide diren bigarren mailako elkarteak; erakunde publikoetako ordezkariak eta iparraldeko erakunde eragilea. Horrek ezagutza bat eta esperientziak eta erronkak partekatzeko aukera eman digu, eta bereizten gaituen baino batzen gaituen arazo eta estrategia gehiago dagoela onartzea. Era berean, iparraldeko erakunde publikoetan elkarlan-politikak eta -programak definitzeko ardura duten pertsonekin harreman zuzena izateko aukera eman die erakundeei.

Zalantzarik gabe, ez da zailtasunik gabeko bidea izan. Hasteko, erakundeek ahalegina egin behar izan dute esperientziak aukeratzeko, pertsonak trebatzeko -metodologia aplikatu dezaten- eta esperientzien bideratze- eta egiaztapen-lanak egiteko.

Bizitako esperientziaren baten inguruan jendea biltzeko prozesua desberdina izan da esperientziaren arabera. Kasu batzuetan, jendeak borondate eta motibazio handiak izan ditu sistematizazioa egiteko inplikatzeko; beste kasu batzuetan, jendearen aldatetarik eta parte-hartzaileen erantzukizunagatik, haien parte hartzea zailagoa izan da.

Esperientziak jaso dituzten testuak egiteko ardura sistematizazioa egiteko ardurazuen taldeak bereganatu du, eta eragindako erakundeek gainbegiratzea izan dute. Esperientziak adierazten zigen halako testu bat idaztea erronka handi bat dela, kostu handia baitu, bereziki ekintzara ohituago dauden erakundeentzat.

Sistematizazio-prozesuaren bidez, gizarte-erakundeek ikerketarako dituzten gabeziak, praktikari buruzko hausnarketaren gabeziaren eta prozesu parte-hartzaile horiek (sistematizazioa, esaterako) ikaskuntza estrategikoak ekar ditzakeela iruditzen zaigun proiektuetan txertatzeko garrantziaren berri jaso da.

Horren aurrean, aipatzekoa da sistematizazio-prozesuan parte hartu dutenek haren balorazio oso positiboa egin dutela. Sistematizazioaren bidez, prestakuntza-, topaketa- eta hausnarketa-espazio partekatu bat izan dugu eta oso aberasgarritzat hartu da. Elkarrekin eta berriro topo egiteko aukera eman du, fisikoki ez ezik, baita sentimenduetan, sineste sendoetan, konpromisoetan eta ametsetan ere.

Era berean, esperientziak sakonago ezagutu eta haietatik ikasi nahi izatea aitorpen handia izan da esperientzia horietan parte hartu duten pertsona guztientzat.

Esperientzia desberdinak jaso eta trukitzea izan da prozesu horretan balioztatutako beste alderdi bat. Esperientziak harremanetan jarri dira, ikaskuntzak eta egiteko moduak aberastu eta kontaktuak egin eta lankidetzaz sortu.

Zalantzarik gabe, baterako ikaskuntzaren bidez praktikak hobetzeko elementuen eta praktika horiei eragiten dieten eta haiek baldintzatzen dituzten elementuen jakitun egin gara; elementu horiek kanpokoak dira, eta kontuan izan behar dira. Horrez gainera, gure prozesu gehienetan talde baztertuei buruz kontzientziatzeko aukera ere izan dugu. Elementu horiek guztiei aurre egin beharko diegu datozen parte-hartze eta adostasun-prozesuak bideratzeko.

Azkenik, malgutasuna nahiz zehaztutako ibilbidearen argitasuna giltzarriak direla aipatu behar da. Erronka oreka da; izan ere, esperientzia eta erakunde guztien abiapuntuko eskema antzekoa bada ere, erakundeen sormena, aurretiazko esperientziak, eskuragarri dagoen denbora, dinamika propioak nahiz laguntzen zaion taldeak askotariko egokitzapenak behar dituzte. Aberastasun eta sormen horrek esperientziak partekatzea eta haietatik ikastea ahalbidetzen du.

4. CCATCCA-RI KOLOREA ALDATZEN: HERRITARREN PARTE-HARTZE ESPERIENTZIA BAT, BIZI-KALITATEA HOBETZEKO

4.1. Kasuaren ulertzea: esperientziaren testuingurua

Ccatca barrutiko (Quispicanchi probintzia, Cusco, Peru) herritarren parte-hartze esperientzia baten eta antolaketa komunitarioaren sistematizazioa da **Ccatcca-ri kolorea aldatzen**. Ccatcca-ko barrutia Peruko barruti txiroenetako bat da; ur-eskasia eta muturreko pobrezia dira arazo larrienetakoak. Ccatca eremu indigena da, eta gizarte-marjinazio maila altua du.

CCAIJO (Centro de Capacitación Agro Industrial Jesus Obrero-CCAIJO; orain Jesús Obrero Elkarte) esperientziaren erakunde sustatzailearen helburu zabalago bat betetzeko elementu nagusia izan da “uraren uzta”: nekazaritza- eta abeltzaintza-produkzioa eta etekin produktiboa hobetzea, eta horren bidez, muturreko pobrezian bizi diren familietako irabaziak hobetzen laguntzea. Hasieran, ura biltzeko eta egoki kudeatzeko gaitasuna sortzea, komunitateei ahalmen produktiboa ematea eta, era berean, barrutiko negoziazio eta elkarrizketa politikorako gaitasun kolektiboa sendotzea zen asmoa.

Deszentralizazio-prozesua

Gaur egungo Cuscoko eskualde-gobernuak ez du lidergo handiagorik izan deszentralizazio-prozesuan. Hala eta guztiz ere, araudia betetzen ari da, parte-hartze eta adostasun-prozesuei dagokienean. Hala, batetik, eskualdeko aurrekontu parte-hartzailea egin du, baina eskualde-gobernuaren parte-hartzea hobetzea espero da, haren proiektuak eztabaidan jartzeari dagokionean. Bestalde, Eskualdeko Koordinazio Batzordea (CCR) sortzea onartu du, eskualde-gobernuaren eta udalen arteko organo aholku-emaile eta koordinatzaile gisa. Probintzietako alkatetzek

eta gizarte zibilaren ordezkariak osatzen dute batzorde hori, legeak adierazitako funtzioekin eta eskuduntzekin⁵. Kideen % 60 eskualdeetako eta udaletako agintariak dira, eta % 40 gizarte zibileko ordezkariak⁶. Arautegiak tradizionalki baztertutako erakundeek (besteak beste, emakume indigenak eta gazteak) parte hartzeko kuotarik ezarri ez duen arren, CCRn haien parte-hartzea eta integrazioa sustatzeko borondatea dagoela aitortzen da.

CCRren funtzio berezia da Eskualde-kudeaketako alderdi nagusiei buruz adostasunak sortzea eta iritzia ematea, besteak beste, hauei buruz: urteko partaidetza-aurerentua, hitzartutako garapen-plana, hitzartutako eskualde-plana osatzen duten programen ikuspegi orokorra eta gidalerro estrategikoak⁷. Batzorde hori Cuscoko Garapenerako Eskualde Plana ari da bultzatzen, eta Eskualdeko Hezkuntza Proiektua ere onartu du.

Adostasunei dagokienez, sektore-gune berriak osatzeko pausoak eman dira. Emakumeari eta giza eskubideei buruzko eskualde-batzordeak dira; eratu gabe daude oraindik, baina ordenantzak eginak dituzte. Gaur egun, 14 eskualde-batzorde daude; adibidez, hauek: hezkuntzaren, emakumearen, nekazaritzaren eta turismoaren arloko eskualdeko parte-hartze batzordea.

Quispicanchi-ko eta Ccatca-ko testuinguru politikoa

Aipatutako deszentralizazio-prozesuaren eraginez, halaber, 2003. urtetik aurrera, udalerrien inbertsioari lehentasuna ematen hasi ziren, udalerrri bakoitzeko erakunde sozialekin, politikoeekin eta ekoizleekin adostasunean egindako partaidetza-aurerentuen bidez. Hala, Quispicanchi-ko Udal Probintzialak adostasun-guneak proposatu zuen (adibidez, Quispicanchi-ko arazo sozialei aurre egiteko Sektore Anitzeko Batzordea eta Tokiko Koordinazio Batzordea), probintziako garapena sustatuko duten tokiko politikei lehentasuna emateko helburuarekin.

Ccatca barrutian, adostasun-prozesuak are indar handiagoa hartu zuen, Ccatca-ko Barrutiaren Garapenerako "Allin Kausaypac" Kudeaketa Batzordea sustatzean. Udalerrri bakoitzeko batzorde bat sustatzeko beharrik ez zegoenean sortu zuten

⁵ Eskualde Gobernuen Lege Organikoa. Probintzietako alkateen eta gizarte zibilaren eskualdeko gobernuetako parte-hartzea arautzeko eta deszentralizazio- eta erregionalizazio-prozesua indartzeko Eskualdeko Gobernuen 27867 zenbakiko Lege Organikoa aldatzen duen 27902 zenbakiko Legearen 11. artikulua laugarren paragrafoa.

⁶ Eskualdeko Aholkularitza Kontseiluko gizarte zibilaren ordezkarien % 40k -herena- enpresa- eta ekoizpen-sektorea izan behar du.

⁷ Eskualdeko Koordinazio Udalbatza. Guía para una participación activa. Programa Pro descentralización-PRODES. 2006: 18.

gune hori. Juvenal Ormaechea-ren garaian (2002-2006), tokiko inbertsio-politikak lehenesten zituzten eta partaidetza-aurrekontuaren prozesua prestatzen ari ziren gune horretan.

Quispicanchi-ko testuinguru soziala

Biztanleria-eroldaren arabera, 2005ean, Quispicanchi probintziak 82.202 biztanle zituen, lurralde horretako biztanleriaren % 7. Urcos eta Camanti barrutiek des-hazkunde-tasak zituzten (% -1,4 eta % -2), migrazio handien eraginez. Bestalde, Ccatcca eta Ocongate barrutiek hazkunde-tasa positiboak eta altuak zituzten (% 2,8 eta % 1,7, hurrenez hurren), ozeano arteko errepidea eraikitzeko izandako mugimendu ekonomikoen ondorioz.

Quispicanchi-ko pobretazia eta muturreko pobrezia maila handia da, FONCODES garapen sozialerako lankidetzak funtsak 2005 urterako egindako pobrezia-maparen arabera. Quispicanchi-ko barrutiak honela izendatu dituzte: muturreko pobrezia (Ccatcca, Ocongate, Marcapata, Cusipata eta Quiquijana); oso pobreak (Urcos, Andahuayllillas, Huaru, Lucre Oropesa eta Camanti).

Hezkuntzari dagokionez

Quispicanchi barruan, Urcos-en eta Ocongate-n biltzen da da ikasle-populazioaren heren bat. Horrek lotura izan dezake eremu horietako populazio-kontzentrazioa handiagoa izatearekin.

Egoera horrek gutxitu egiten ditu gazteek karreara tekniko bat ikasteko dituzten aukerak eta, baita ere, minusbalotasunen bat dutenek hezkuntzan sart zeko dituzten aukerak. Giza eskubideen eta bakearen arloko Peruko Hezkuntza Institutuak egindako ikerketaren arabera, Quispicanchi-ko ikasketa-urteen batez bestekoa 3,9 urtekoa da gizonetan eta 1,5ekoa emakumeetan; horren ondorioz, emakumeen populazioa analfabetoa da nagusiki (% 55,2). Beste faktore batzuekin batera, lehiakortasuna eta aukerak murriztea dakar egoera horrek.

Bete gabeko oinarrizko zerbitzuak

Udalerrri bateko garapen-mailaren beste adierazle bat da bete gabeko oinarrizko zerbitzuena. Horrekin lotuta, azken errolda nazionalaren arabera (2005 urtekoa), Quispicanchi-ko biztanleriaren % 91,4k oinarrizko behar bat edo gehiago bete gabe zituen. Era berean, biztanleriaren % 70 landa-eremuetan bizi da, ur-, argindar- eta hustubide-zerbitzuak eskasak diren -eta, azken kasuan, ia ez dauden- tokietan.

2000 urtean, 17 osasun-etxe⁸ zeuden probintzian, eta, gaur egun, 2 osasun-etxe gehiago daude: bata Tinki-ko Centro Poblado-n eta bestea Incacancha-n.

Jaiotze- eta hilkortasun-tasak

Cusco-ko Osasunerako Eskualde Zuzendaritzaren 2005eko datuen arabera, hauek dira jaiotze-tasa handiena duten barrutiak: Ocongate, Ccatca, Ccarhuayo, Marcapata eta Quiquijana, hurrenez hurren. Barruti horietan, ‰ 40,2, 29,9, 29,4, 29,4 eta 25,6koa da jaiotze-tasa, eta zifra hori probintziako batez bestekoa baino handiagoa da (‰ 22,7). Bestalde, haurren hilkortasun-tasa, 2005 urtean, bizirik jaiotako mila haurretik 49,5koa izan zen probintzian.

Desnutrizioa

Desnutrizio kronikoa da Quispicanchi probintziako arazo nagusietakoa. 2005 urtean⁹, eskualdeko bigarrena zen, Chumbivilcas-en ondoren. Hala, urte horretan, 6 eta 9 urte bitarteko haurren % 47,7k desnutrizio kronikoa zuten; eskualdeko tasa, aldiz, % 33,7koa zen. Nazio-mailako zifra % 21,9koa da.

4.2. Egindako bidea: CCAIJO eta tokiko giza garapenaren aldeko apustua

Paradigma-aldaketa eta esku hartzeko eredu berria: biztanle onuradunetatik, herritar aktiboetara

CCAIJO Jesusen Konpainiako erakunde bat da. 30 baino gehiago daramatza Quispicanchi probintzian lanean, eta eremu horretako giza garapenaren alde lan egitea du helburu, bereziki komunitate txiroenetan. 2001 urtean, CCAIJOk plangintza estrategiko bat egin zuen. Plangintza horretan, erakundearen lan-sektore batzuetan aldaketak egin zituzten, baina, batez ere, probintzian egindako esku-hartzeen ikuspegiari buruzko hausnarketa egin zuten, eta, une hartatik aurrera, biztanleriarekin zituzten harremanei eta garapenaren sustapenari heltzeko modu berriak definitu zituen.

Paradigma-aldaketa horrek lanean ari zen komunitateetan sentsibilizazio- eta trebakuntza-lan oso handia egitea eskatu zion CCAIJOri, komunitate horiek -eta CCAIJO bera ere bai-, eskubideen ikuspegitik, herritartasunean oinarritutako ikuspegia hartzen joateko. Hortik aurrera, komunitateak berak beren garapenaz

⁸ CCAIJO, Diagnóstico de la Provincia de Quispicanchi, 2000: 68.

⁹ III Censo Nacional de Talla en Escolares 2005, MINEDU.

ardura daitezen, parte har dezaten, eta batez ere, erabakiak har ditzaten azpimarratuko dute, bereziki.

Eredu horrek, komunitateei eta beren biztanleei zuzendua badago ere, tokiko gobernuak barneratzen ditu funtsezko eragile gisa, eta horrez gain, gaitasun instituzionalak sortzeko trebakuntza- eta bideratze-lana hartzen du kontuan.

CCAIJOK herri-hezkuntzaren arloan izandako esperientzian eta, aurretik, landagarapeneko proiektuetan izandako esperientzia zabalean oinarritu zen eredu hori. Giza garapenari buruzko ikuspegi zabalagoa sustatzen zuten garapenari buruzko korrante berriek bultzatu zuten aldaketa. Gaitasunak sortzeari eta garapenaren dimentsio politiko-soziala sendotzeari buruzko diskurtsoa funtsezko elementuak izan ziren eta CCAIJOren hurbilketa eta esku-hartze modu berriak markatu zituzten.

Uraren uzta

Quispicanchi probintziako komunitateen -eta, zehazki, gehien baztertutako barrutien- jarduera produktiboaren alde egitea izan da CCAIJOren hamarkada honetako erronka nagusietako bat. Lan horren bidez, komunitateek gaitasun produktiboak garatu ditzaten eta horretarako beharrezko azpiegiturak eduki ditzaten lagundu nahi da. Eskualde horretan, ur-eskasiak eta egoera geografikoak baldintzatzen dituzte, neurri handi batean, jarduera produktiboak eta familien bizi-kalitatea.

Behar horren aurrean, ur-uztaren kontzeptua sortu zen, eta presa txikien bidez euri-urak jaso ahal izateko proiektu gisa zehaztu zen. Presa horiek urte osoan zehar erabili ahal izatea zen asmoa, hartara, komunitateen ekimen produktiboak zabalteko. “Ur-uzta biltzeak” oso arraro jotzen zuten belarrira komunitateentzat, eta CCAIJOk lan handia egin behar izan zuen “uzta” hori nola egin behar zen eta zer onura ekar zitzakeen azaltzen.

Ura, elementu dinamizatzaile gisa

CCAIJOren estrategiaren eta esku hartzeko eredu-aldaketaren barruan sartu zuten Ccatcca-ko barrutia, ur-behar larria zuen eskualdea, eta horrez gain, CCAIJOk bere historian inoiz esku-hartzerik egin ez zuen eremua. Beraz, ez zen harremanik landu komunitatearekin, eta beste erakunde sozialek sustatuko arrakastarik gabeko proiektuen aurrekariak zeuden. Hala, Ccatcca barrutiak ezaugarri batzuk betetzen zituela eta, elementu dinamizatzaile bat -ura- ardatz harturik,

esku hartzeko diseinatutako eta pentsatutako lan-estrategia berri bat martxan jarri zitekeela pentsatu zuten.

Ccatca barrutian, familien artean liskarrak izaten ziren ura ren erabileragatik, batez ere, lehorte-garaietan. Ura ren kudeaketaren gatazkaz gain, ura ren behar larria zegoen laborantza-lurrak zabaltzeko.

Arazoari heltzeko eta biztanleriaren behar argi horiek betetzeko, CCAIJOk uraren uzta proposatu zuen hainbat helburu betetzeko, besteak beste, komunitateko ki-deek herritar gisa zuten protagonismoa beren gain hartzeko, uraren uztaren prozesuan inplikatzeko eta ekimena bereganatzeko.

Ccatca-ko esku-hartzearen aurretik, CCAIJO mikropresak egiten hasia zen beste mikroarrobazuetan. Horrek ez zuen teknika- eta azpiegitura-ikuspegitik ikasteko bakarrik balio izan, baizik, horrez gain, uraren erabilerak arroan sortutako gatazka soziala konpontzeko funtsezko elementua izan zen. Aurretizko esperientzia horiek tokiko lidergoen garrantziaz jabetzeko balio izan zuten.

Sentsibilizazio-kanpaina: “Berde nahi zaitut, Ccatcca”

Lehen estrategia “Berde nahi zaitut, Ccatcca” sentsibilizazio-kanpaina izan zen. Kanpaina hori herritarrek parte hartzeko estrategia izan zen, hasiera batean, barrutiko komunitateetako buruei, erakunde komunalei eta ekoizle txikiei zuzendutakoa. Sentsibilizazio-programak uraren arazoan jartzen zuen arreta, euri-urak jasotzeko konponbide posible batean, eta, batez ere, biztanleek beren burua beren garapenaren eraikitzaile gisa onarraztean.

CCAIJOk bisitak antolatu zituen aurrez beste barrutietan eraikitako mikropresetan, komunitateetako buruontzako. “Praktika” horiek une garrantzitsu moduan gogoratzen dituzte denek, proiektuaren esanahia, aurretik zeukaten lana eta irekitzen zitzaizkien aukerak bertatik bertara ikusi baitzituzten.

CCAIJOk erakunde komunitarioak bideratzeko egindako lana eta elkarrizketa lasaiak eta etengabeak emaitzak eman zituen, pixkanaka. Komunitateetako liderrekin konfiantzazko eta negoziatorako harreman bat eraikitzea funtsezkoa zen ibilbideari batera ekiteko. CCAIJOko taldeak komunitateko asanbladetan hartzen zuen parte, era askotako ikusizko baliabideekin eta diskurtsoekin, herritarrek sinetsiz ezaten posible zela ura biltzea.

Sentsibilizazio-estrategia ez zen komunitateetako liderrengana bakarrik iritsi, eta mezua biztanleengana eta tokiko agintariengana ere hedatu zen. Irratia eta ikusizko elementuak erabili zituzten (kartelak, hormetako mezuak, etab.), “Berde nahi zaitut, Ccatca” leloarekin, eta horrek komunitatearen arreta erakarri eta itxaropena piztu zuen nekazaritza-lurretara ura izateko. Komunitateen gaitasunak mobilizatzeko mezua zabaldu zuten etengape, baliabideak ekartzeko aukera zutela adieraziz, baina, batez ere, ura berreskuratzeko eta egoki kudeatzeko aukera azpimarratuz.

Kanpainak harrera ona izan zuen. Ondorioz, barrutietako agintarien, lider komunalen eta CCAIJOren arteko kontzientziazio- eta elkarrizketa-prozesu nekezari ekin zioten.

Aipatu behar da hainbat oztopo ere gainditu behar izan zituztela. Tartean, ezezagun denaren aurrean mesfidati agertzeko joera naturalaz gain, komunitate batzuetako talde batzuek gogor egin zioten proiektuaren kontra. Komunitateetan aginte-guneak¹⁰ egoteak negoziazioa zailtzen zuen eta erabakitzekeo prozesuetan eragiten zuen. Talde horiek inbertsio rako gaitasuna zuten, eta uraren uzta haien eragin-eremutik kanpo zegoen.

Esku hartzeko estrategia integrala: berrikuntza teknologikoa eta gaitasunen trebakuntza

Ura biltzeko proiektuak berrikuntza teknologikoari dagokion oinarri osogarran tzitsua du. Mikropresak eraikitzekeo, inguruko baldintzetara egokitutako teknologia aplikatu zen, eskualdekeo materialak erabili ziren, eta obra ren antolakuntza-proposamena ez zen presaren eraikuntzarabakarrik mugatu, baizik baita ondorengo mantentze-lanetara eta uraren kudeaketara ere.

Komunitateek aukeratutako toki estrategikoetan eraiki zituzten mikropresak, CCAIJOke teknikarien laguntzarekin. Behin eraikuntzarako lur onenak identifikatuta, hurrengo pausoa lurralde horiek negoziatzea izan zen, mikropresa eraikitzekeo. Une horretan, komunitateetako zuzendaritzek izan zuten protagonismo nagusia. Utzitako lurak baldintza berekeo beste batzuekin ordeztu behar zituzten, lurak eman zituzten familiak kaltetuak izan ez zitezen. Aholkularitza tekniko ga-

¹⁰ Aginte-guneak Fujimoriren garaian sortutako unitateak dira, eta komunitateetan lanak egitekeo funtsak jasotzen zituzten gobernu zentraletik. Gobernuak sortutako antolakuntza horrek ez zuen aintzat hartzen antolaketa komunitarioa, eta antolatzekeo eta erabakiak hartzekeo ohiko prozesua hausten zuen. Aginte-guneak aginte-talde horren eta ohiko antolakuntzaren artekeo proiektuen kudeaketa txar baten aurrekariak ziren.

r rantzitsua izan zen lurrak definitzeko, baina komunitatearen asanbladaren eta zuzendaritzaren artean egin zen negoziazioa.

Barruti horietako euri-urak jasotzeko ideia ez zen izan berrikuntza bakarra; horrez gain, CCAIJOk taldeak eremu hartan zeuden materialak erabiltzea erabaki zuen. Hartara, kostuak arrazoizkoak ziren eta materiala lortzea askoz ere errazagoa.

Proiektu horretarako, lurrez gain, eskulana ere jarri zuen komunitateak. Lan gogorra izan zen, tentsioak eta negoziazioak izan ziren komunitatearen barruan, baina proiektuaren kostuaren zati handi bat kentzeko aukera eman zuen. Mikropresak eraikitzeak ez zuen kualifikatu gabeko eskulana erabiltzea bakarrik ekarri; horrez gain, presa mantentzeko, banaketa-kanalak diseinatzeko eta eraikitzeko eta inguruan ezarritako ureztatze-sistemak erabiltzeko trebakuntza eta ezagutzak jaso zituzten.

Komunitateek beren ura kudeatu ahal izateko eta, horren bidez, produkzio-proposamen berriak sortu ahal izateko gaitze-prozesua hasteko lehen urratsa izan ziren mikropresak. Uraren uza ezinbesteko baliabide bati sarrera emateko bidea izan zen, baina beste helburu batzuk lortzeko bitartekotzat hartu zuten une oro (esaterako, produkzio-aukerak zabaltzea, komunitateen eta taldeen gaitasunak sendotzea edo inguruko familien diru-sarrerak hobetzea).

Diziplina arteko taldea eta esperientzia bideratzeko lana

Proiektu honetarako osatutako taldeak “benetako lan-talde” gisa definitu zuen bere burua. Helburu bat zehaztu zuten, eta gai izan ziren pertsonak integratzeko eta beren gaitasun profesionalak eta pertsonalak jokoan jartzeko, elkarren osagarri izateko eta CCAIJOren papera Ccatcca-ko barrutian finkatzeko.

Talde teknikoak “urrael artifizial bat egiten” ikasi behar izan zuen, tokiko materialekin “Qocha”¹¹ bat eraikitzen, ureztatze-sistema bat diseinatzen, ura kudeatzen. CCAIJOK langileen trebakuntzan inbertitu zuen, baina batez ere, diziplina arteko talde trebatu bat, proposamenak egiteko eta erabakiak hartzeko gaitasuna zuena, sortzea ahalbidetu zuen. Kitxua hitz egiten zekiten eta, beraz, komunitate-etako liderren hizkuntzan hitz egiteko eta asanbladak egiteko, parte hartzeko eta antolatzeko prozesu tradizionalak ulertzeko gai ziren profesionalak parte hartu zuten, eta horrek Ccatcca-n sartzea erraztu zuen.

¹¹ Kitxuaz, ‘tanga’ edo ‘presa’ esan nahi du *qocha* hitzak.

CCAIJOko taldea irekia zen, eta aldaketarako ideiak sortzeko eta proposatzeko aukera ematen zuen. Diziplina arteko talde hori gai zen hitz egiteko eta proiektuari eta CCAIJOri berari ekarpenak egiteko, eta esperientzia horretako zeharkako gaiak lantzen hasteko aukera eman zuen: genero-gaiak eta herritartasun-idea proiektuan txertatzen joan ziren.

Esku hartzeko estrategiak helburu izan zuen, hasieratik, komunitateko antolakuntza-gaitasunak sendotzea, sentsibilizazioa eta lider komunitarioak trebatzea, ez gai teknikoetan bakarrik, baizik baita komunitatearen sare soziala indartzean ere.

4.3. Estrategiak arrakasta izateko funtsezko estrategiak

Antolakuntza tradizionala finkatzen

Komunitateak uraren uzta bereganatzea, presaren jabe izatea eta, hortik abiatuta, inguruko bizitza sozialaren, ekonomikoaren eta politikoaren beste eremuetan parte hartzera animatzea; hori zen une oro buruan zuten ideia. Proposamenaren beste elementuetako bat zen hitz egiten hastea, baina ez komunitateen liderren artean edo komunitate baten barruan bakarrik, baizik eta barrutiko agintariekin negoziatzen hastea, proiektuarekin bat egin zezaten, indartu zezaten eta, uneren batean, biztanleriaren behar hori betetzeaz arduratu zitezten.

Antolatutako erakundeek probintziako agintariak presionatu zituzten presak eraikitzeke laguntza lortzeko. Ccatcca-ko udalak eraikuntza-lana finantzatu zuen makineria erositik, eta, alkatearen gidaritzak lagundu zuen probintziako gobernua proiektuan inplikatu eta lanean has zedin.

Eraikuntza-lan hori izan zen CCAIJO ren eta komunitateen artean Ccatcca-n egingo lankidetzari buruzko ariketa. Barrutietako eta probintziako liderren eta gobernuen protagonismo handia zuen lankidetzari horrek ezaugarri.

Komunitateetako lidergoak

Komunitateetako agintariak jokatuak papera funtsezkoa izan zen ur-bilketaren arrakastarako. Liderrak izan ziren proposamenetara atxikitzeke lehen helburu-taldea, baina, batez ere, haiek gogoratzen dutenez, Ccatcca “beste kolore” batekin imajinatzea oso garrantzitsua izan zen. Ur-ekasiaz biztanleriaren behar larria da eta izan da. Egia esan, CCAITJOk komunitatearekin hasitako elkarrizketa-lana ez zen behar hori ikusaraztea, baizik eta behar hori nola asetu erabakitzea eta komunitateak proiektua eta handik eratorritakoa beregatztea.

Prozesuan parte hartu zuten liderrek azpimarratu zuten, kasu askotan, zein zaila izan zen “goch”-ak eraikitzea. Zailtasun asko izan zituzten, lurren negoziazioan ezezik, baita komunitateak proiektuan zuen konfiantzan, elkarriketa-lanetan eta euri-urak jasotzea posible zela konbentzitzeko lanean ere. Ur-uztaren porrota aurikusten zuten komunitateko eliza edo talde politikoaren iritzi ezkorreari buelta ematea izan zen gauzarik zailenetakoa.

Negoiazioa ez zen erraza izan agintari batzuentzat, denbora eta ahalegina eskatu zuen, baina azkenean, denek gogobeteta onartu zuten, gaur egun, “goch”-ak komunitate guztietan daudela. Eraikitze-prozesuaren, negoziazioaren eta ur-uzta martxan jartzearen buru izateak harrotasun-sentimendua eman zien, beren lanarekin, denborarekin eta, batez ere, konpromisoarekin laguntzeagatik.

Komunitateetako ordezkariak badakite asko daukatela egiteko oraindik, baina agintari guztiak sinetsita zeuden elkartuta, bata bestearekin konfiantza izanda eta taldeko lanaren konpromisoarekin bakarrik direla gai beren komunitateentzako gauza hobek lortzeko. Gaur egun, poztasunez ematen ditugute labore, larre, ureztatze-sistema, ur-banatzeko sistemak berrikuntza... berri berri. Ccatca-k marjinazio handiko eremua izaten segitzen badu ere, uraren uzta aldaketa kualitatiboa izan da familia askoren produkzio-aukeretarako eta, beraz, haien bizi-kalitatearako.

Parte-hartzearen artikulazioa adostasun-guneetan

Ura izan zen gizartearen parte-hartze artikulatzeko elementu dinamizatzailea, eta, ondoren, eragileen arteko elkarriketak aurrera egin zuen adostasun-guneak sortzeko eta Ccatca barrutiaren garapenari buruzko ikuspegia bateratzeko.

Ccatca-ko komunitateetako asanbladak, taldeak eta elkarteak eskualdearen garapenaren inguruko kezka izaten hasi ziren. Liderrak konturatzen ziren dagoeneko ura bazeukatela, eta, beraz, agintariarekin negoziatu behar zutela, bestelako proiektuak eta inbertsioak sustatzeko.

Barrutiko CCAIJOko taldeak adostasun-gune hori bultzatu zuen, eremuko garapena bultzatzeko estrategiaren barruan. Laguntza teknikoa eta trebakuntza eskaini zituen plana egiteko, eta elkarriketarako guneak bideratu zituen, komunitateek barrutiarentzako lehentasunezko proiektuei buruzko erabakiak hartzeko, baina baita ere, laster izango zen barrutiko gobernu-aldaketaren aurrean eragina izateko estrategiak artikulatzeko.

Barrutiko gobernuak elkarrizketarako irekitasuna eta borondate politikoa adierazi zituen. CCAIJOk elkarrizketa-gunea bideratzen izandako parte-hartzeak konfiantza eman zien komunitateari eta tokiko gobernuari, eta horrek lana erraztu zuen. Proposamenak egiteko eta erabakiak hartzeko adostasun-gune horretan sar zitezten, beste erakunde batzuei deitzeko gai izan ziren -besteak beste, Agustina Rivas eta PRONAMACHS komiteak-, eta agian, hori izan zen gune horren alde onetako bat.

Antolakuntza-modu berriak

Esan bezala, “qoch”-ak eraiki aurretik, bitartean eta ondoren hartu zuen parte komunitateak, intentsitate-maila askorekin eta jarduera mota askotan, eta hasieratik bukaerara protagonista izanez. Eraikuntzaren aurretik, eta behin “qoch”-a eraikitzeko lurak hitzartuta, komunitateko asanbladak obra-komite bat izendatu zuen. Erakunde hori asanbladaren barruan eratu zen, eraikuntzalanen ardurak hartzeko eta horiek kudeatzeko. Obra-komite horiek oso garrantzitsuak izan ziren lana eta komunitatearekin eta CCAIJOrekin zituzten harremanak kudeatzeko.

Behin presak bukatuta, ura nola banatu, nola administratu eta horretarako nola antolatu erabakitzeko hurrengo pausoa, uraren erabilera zentzuzkoa eta eraginkorra izan zedin. Berriz ere, komunitatearen “jakinduria” izan zen CCAIJOko langile teknikoek ureztatze-planari ezagutzak aplikatu ahal izateko tresna onena.

CCAIJOk, aholkularitzaz gain, konpromisoa hartu zuen ura banatzeko sistema martxan jartzeko trebakuntza eta laguntza teknikoa emateko eta komunitateari sistema administratzeko antolakuntza-modu bat bilatzen laguntzeko.

Udalak uraren zainketa eta kudeaketa estatutu komunal izatea sustatu zuen. Banaketa-plana egin ondoren, eta ureztatze-sistema berria berriz ere martxan jartzean, komunitateak antolatu beharra zeukan sistema hori kudeatzeko eta mantentzeko. Ia berehala osatu zituzten ureztatze-komiteak. Antolatzea eta trebatzea zuten helburu, erabiltzaileek ura eta azpiegiturak eraginkortasunez erabiltzeko.

Ureztatze-komitea antolakuntzarako gune bihurtu zen, uraren gaineko boterea eta erabakiak hartzeko ahalmena zuena. Komite hori komunitate-asanbladaren barruan dago, eta asanbladak izendatzen ditu kideak denbora-epe jakinetarako. Horrek antolakuntza tradizionala sendotzen du eta, era berean, ura eraginkortasunez administratzeko kudeaketa-unitate arina da.

Aldaketak tokiko gobernuan aldaketak eta partaidetza aurrekontuetan

Alkateak berriak errespetatu zuen hauteskunde-kanpainan sinatutako hitzarmena, zeinaren bidez hautagaiek barrutian hasitako garapen-prozesuak errespetatzeko konpromisoa hartu zuten. Gizartearekin hartutako konpromiso horrez gain, erabakigarria izan zen alkate berriak uraren egoera ondo ezagutzea eta CCAIJOren lanaren seriotasunean konfiantza izatea. Alkate hasiberriak bazekien uraren uztak potentziala zeukala eta barrutiko pertsonen bizi-kalitatea hobetzen lagun zezakeela.

Tokiko gobernu-aldaketaren ondorioz, komunitateak, gobernuak eta erakunde sozialek landa-eremura bideratu zuten garapenaren ikuspegia, konpromiso handiagoa agertu zuten proiektu berrien aurrean, eta udalak garapen-proposamena egin zuen. Ccatca-ko garapenaren ikuspegi berri horren bultzadarekin, eta alkateak gardena izateko eta parte hartzeko eta adostasun-guneak irekitzeko hartutako konpromisoarekin, Barrutiko Garapenerako Kudeaketa Kontseilua (CGDD) finkatu egin zen, eta bere ibilbidea egiten jarraitzen du, Cusco eskualdeko erreferentziazko adostasun-gune bihurtuta.

Urte berean, partaidetza-aurrekontuak onartu zituzten Perun. Lege horrek bultzada berria eman zien parte hartzeko guneei, eta partaidetza-aurrekontua tresna garrantzitsua bihurtu zen “qoch”-ak eraikitzea ziurtatzeko, tokiko gobernuaren finantziazioarekin. Partaidetza-aurrekontuei nazio-mailan emandako bultzada hori funtsezko elementua izan zen uraren uztak jarraitu ahal izateko.

Sektore produktibo berrien sustapena

Azaldu dugun moduan, laborantza berriak ureztatu ahal izatea zen ur-uztaren helburu nagusietako bat. Urte osoan zehar ura edukitzeak esan nahi zuen denboraldiko nekazaritzarekin amaitzea eta laborantza berriak sustatzea.

Beste behin ere, komunitateak sutsuki erantzun zuen. Ura edukitzea lortu zuten, ondoren ureztatze-sistema jarri zuten martxan, eta beren lursail txikietan laborantza berriak landatzen saiatzeko unea zen orain. Berriz ere bistakoa izan zen komunitateetako liderren lana. Komunitatea jarduera berriak egiteko trebatu eta antolatu zen, zituzten baliabideak erabili zituzten (ezagutza, denbora, aurrezkiak, etab.), eta ura eta larreak edukitzeak aukera eman zuen azientak elikatzen hasteko, eremu batzuek basoberritzeko eta, besteak beste, akuriak eta behiak hazteko proiektuak abian jartzeko. Emakumeak bihurtu ziren proiektuaren etapa horren protagonista, eta lehen mailako papera hartu zuten produkzio-sektore berri horietan.

Teknologiaren transferentzia eta protagonismo-aldaketa komunitatean

Peruko deszentralizazio-prozesuak eskualde- eta toki-gobernuzako finantziario handiagoa ekarri zuen. Cuscoren kasuan, meatzaritza-kanonaren ordainketa jarri zen martxan, eta horri esker, eremuko funts publikoak asko hazi ziren. Funts berri horiei esker, udalek lan horiek eta beste batzuk finantzatu ahal izan zituzten, baina transferentziaren muina ez zen finantziarioa, baizik eta, mikropresak e-raiki aurretik, bitartean eta ondoren, “qoch”-ak eraikitzeko eta komunitatearekin koordinatzeko modua.

CCAIJOK horrela amaitu zuen mikropresen eraikuntzan eta uraren uztari emandako bultzadan izandako esku-hartzea. Eraikuntza horien ondoren, ura egoki jasotzeko eta kudeatzeko gaitasunetik eratorritako bestelako esperientziekin jarraitu zuen CCAIJOK.

4.4. Helmugak: ondorioak, ikasketak eta gomendioak

Komunitateentzako ondorioak, ikasketak eta gomendioak

1. ondorioa: Parte-hartzea eta ordezkartza soziala arazo komunak konpontzeko

Ikasketa.

Arazo komunak konpontzeko, beharrezkoa da komunitateek parte hartzea.

Gomendioa.

Parte-hartze prozesuak sustatzea, komunitateak berak izan daitezen arazo komunak kudeatzeko eta konpontzeko eragile nagusiak.

2. ondorioa: Parte-hartze prozesuetan kanpoko eragileei atea irekitzean aukera berriak sortzen dira

Barrutian parte hartzeko ekimenak bultzatzeko helburua ezartzeak esan nahi zuen, babes handiko eta etengabe bideratutako parte-hartzetik, beste parte-hartze mota batera pasatzea, inguruko talde nagusiak integratutako zituena eta zegozkien auzietan (politikoak, ekonomikoak, sozialak eta ingurumenari buruzkoak) kolektiboetan artikulatzeko aukera emango ziena. Hasieran, komunitatetik “kanpoko” eragile batek (CCAIJO) sustatu zituen parte hartzeko prozesuak, eta parte hartzeko eta antolatzeko gidari- eta bideratzaile-lanak hartu zituen bere gain, helburu batekin: barrutian ureztatzeko ura edukitzea.

Gomendioa.

Kanpoko eragileen aholkuak entzutea, beti ere, komunitatearen iritzia errespetatzen badituzte.

3. ondorioa: Ekarpen teknikoak, elkarbizitza, konfiantza eta lana izan ziren esperientziak arrakasta izateko funtsezko elementuak

Komunitateek adierazi zuten, “esnatzekolektiboa” bizi izan zuten, produkzioari, ureztatzeari eta azpiegitura produktiboari zegozionean..

Komunitateetako agintzarien ustez, Ccatcca-n parte-hartzea bideratu zuen funtsezko elementuetako bat CCAIJOren presentzia izan zen. Adierazi zuten, ura jasotzeko talde teknikoa komunitatean integratzea, elkarbizitza, konfiantza eta laneko “kide” izatea ezinbestekoak izan ziren proposamenean konfiantza izateko eta elkarrekin bideari ekiteko.

Ikasketak.

Komunitateak parte-hartze prozesuetan inplikatzeko, beharrezkoa da oinarrizko arazoei konponbide bat ematea.

Horizontaltasunarekin landutako harremanek komunitateko pertsona askoren parte-hartzea sustatzen dute.

Gomendioak.

Komunitateen oinarrizko arazoak identifikatzea eta konponbideak prozesu parte-hartzaileen bidez bilatzea.

Trebakuntza eta ekarpen teknikoak komunitateekin horizontaltasunean oinarritutako harremanekin osatzea komeni da.

4. ondorioa: Beharrezkoa da ikasteko eta parte hartzeko behar diren esperientzia eta guneak izatea

Esperientziak antolatzeko elementu berriak eman dizkio komunitateari. Komunitateko zuzendaritza-batzordeak beharrezko informazioa izaten eta zuzendarien eta asanbladako kideen artean bilera iraunkorrak dinamizatzen ikasi du, eta hori oso garrantzitsua izan da zuzendari-lanerako eta asanbladarekin harremanak hobetzeko.

Komunitateko asanbladak balio handiagoa hartu du, erabakigune gisa. Asanbladak erabakitze eta biztanleriak bete eta baloratzen dituen arau komunitarioak ezartzeko gaitasuna berreskuratu eta aplikatu du. Ureztatze-komiteak eta, ondoren, barrutiko ureztatze-batzordea sortzeak, aukera eman zien, erabiltzaile eta kudeatzaile gisa, eskualderako hain baliotsua den baliabide baten -uraren- inguruko erabakietan parte hartzeko.

Ikasketak.

Parte hartzeko beharrezkoak esperientzia eta esperientzia hori partekatzeko guneak.

Komunitateak parte hartzeko guneak onartzea funtsezkoa da, pertsonentzat eta komunitatearentzat garrantzitsuak izan daitezen.

Gomendioa.

Komunitatean parte hartzeko gune propioak finkatzea eta, bertan, pertsonen gaitasunak sendotzea.

5. ondorioa: Erabaki badaiteke, parte-hartzea estrategia interesgarria da

Parte-hartzean jarrera proaktiboagoa hartzen joateko, erabakitzeko gaitasuna izan da, agian, elementu nagusia.

Adostasun-guneei dagokienez, esan liteke CCAIJO Ccatcca-n lanean hasi zenean sortu zela CGDD.

Ikasketak.

Erabakiak hartzea funtsezkoa da komunitateak parte hartzeko.

Erabakiak komunitatean hartzeak komunitateak sendotzen eta ahalduntzen ditu, gainerako eragileekin dituzten harremanetan.

Komunitateek gaitasunak eta lidergoa erakusten dituzten neurrian, tokiko agintariak konfiantza agertzen dute haiengan proposamenak garatzeko.

Gomendioak.

Komunitatean parte hartzeko eta erabakiak hartzeko gune propioak finkatzea eta, horietan, pertsonen gaitasunak sendotzea.

Komunitatea behar bezala sendotu denean, beste eragile batzuetan adostasun-prozesuak abiatu ditzan bultzatu eta lagundu behar zaio.

6. ondorioa: Tokiko mailan izandako partaidetza-esperientzia arrakastatsuek maila altuagoetan parte hartzera bultzatzen dute

Komunitate-antolakuntza sendotzen bada eta erabakitzeko gaitasuna duela ikusten badu, horrek eragina du barrutiko adostasun-guneetan.

Ikasketa.

Beste toki batzuetako esperientziak ezagutzeak berrikuntzak onartzera eta haien alde borrokatzera bultzatzen du komunitatea.

Gomendioa.

Komunitateen arteko harremanekin eta esperientzia arrakastatsuekin, ikasketak sortzeaz gain, irtenbide berriak ematen zaizkie komunitateen arazoei.

7. ondorioa: Modu kolektiboan heldutako erronkek arrakasta handiagoa dute eta “ez dira hain astunak”

Ikasketa.

Elkartuta eta ardurak partekatuta, indar handiagoa lortzen da.

8. ondorioa: Beste lekuetako komunitate arrakastatsuei buruz jakiteak estrategia berriak erabiltzera animatzen du

Ikasketa.

Beste lekuetako komunitateekin kontaktatzeak arazoak planteatzerakoan forma eta estrategia berriak erabiltzera animatzen du.

Gomendioa.

Kontaktuan jarri arazo komunak konpontzeko anitz motatuko esperientziak alternatiba berriak sortarazteko laguntzen du.

9. ondorioa: Testuinguruan alde ditugun elementuak baliatu behar ditugu

Ura ren uztaren garaian, deszentralizazio-prozesuak bultzada handia eman zien adostasun-guneei toki- eta eskualde-mailan. Horregatik, aukera hori hartu, eta uraren berreskurapenean eta kudeaketan lortutako emaitzekin uztartu zen. Hala, garapenaren ikuspegia baliabide horretatik haratago zabaldu zen, eta Ccatcca-ko garapenari buruzko hausnarketa partekatua hasi.

Ikasketa.

Lekuko espazioetan parte-hartzeak sortzen ditu trebetasunak, gaitasunak eta beste espazio handiagotan parte-hartzeko interesa.

Gomendioa.

Espazio erregionalean edo handiagoetan parte hartzeko komeni da taldeek lekuko mailetan parte-hartze esperientzia eta ibilbide bat ukan izatea.

CCAIJOk ateratako ondorioak, ikasketak eta gomendioak

10. ondorioa: Landa-esparruan, beharrezkoa da garapen tekniko espezifikoak eta partaidetzaren sustapena konbinatzen dituzten proiektuak egitea

CCAIJOk proiektu bat, informazioa eta laguntza teknikoa eskaini zituen, eta herri-tarrek horrekinbat egitea erabaki zuten, baina, beti ere, antolakuntzak babestutako eskema baten barruan.

Esperientzian etengabe sustatu zen parte-hartzea. Esperientziaren protagonistek parte-hartzea baloratzean, egiaztatu ahal izan zuten, izandako zailtasunekin ere, uraren uztak helburu bikoitza bete zuela: batetik, ur-eskasiaren arazoa konpon-tzen laguntzea eta, bestetik, gaitasun sozialak eta komunitateen partaidetza sendotzea Ccatcca barrutian.

Ikasketa.

Ezagutza teknikoen ekarpenaren eta parte-hartzea sustatzeko lanaren sustapenaren arteko oreka eta ezagutza horiek bereganatzea funtsezkoa da proiektuen bideragarritasunerako.

Gomendioa.

Elementu teknikoak beste elementu metodologiko batzuekin eta komunitatearen gaitasunak indartzeko elementuekin konbinatzea eta proiektuak bereganatzea.

11. ondorioa: Beste tokietako esperientzia arrakastatsuen berri izatea elementu katalizatzailea da komunitateentzako.

Ikasketa.

Komunitateetako esperientzien arteko harremana elementu motibagarria eta aberasgarria da, komunitateen arazoak konpontzeko.

Gomendioa.

Komunitateko esperientzien arteko harremana bultzatzea elementu motibagarria da komunitateei egindako proposamen batzuetan, eta konbentzitzen laguntzen du.

12. ondorioa: Komunitatean harreman horizontalak izatea funtsezkoa da proposamenak arrakasta izateko

Partaidetza eta antolakuntza sustatzeko, komunikazioak horizontala eta pertsonala izan behar du komunitateekin. Denbora eta erritmo espezifikoak behar ditu horrek, eta ezin dira behartu eta presaka egin.

Ikasketak.

Komunitatearekin harreman horizontalak izatea funtsezkoa da proposamenak arrakasta izateko.

Komunitateek, motibatuta daudenean, uste baino ekarpen gehiago egin ditzakete.

Gomendioa.

Komunitateekin ezarritako harreman horizontalak zaintzea, proposamenean inplikatzeko eta proposamena bereganatzea bultzatzen duelako.

13. ondorioa: Trebakuntza eta laguntza tekniko eta parte-hartzailea konbinatzea beharrezkoa da mota honetako proiektuetan

Partaidetzak trebakuntza eta laguntza teknikoak behar du.

Ikasketa.

Arlo teknikoetako eta komunitatea indartzeari buruzko arloetako trebakuntza eta laguntza konbinatzeak mesede egiten dio proiektuaren garapeneri.

Gomendioa.

Trebakuntza- eta laguntza-proposamenetan funtsezkoa da alderdi teknikoak eta komunitatea sendotzeko alderdiak konbinatzea.

14. ondorioa: Diziplina anitzeko taldea, inplikaturik eta konprometitua arrakastarako gakoa da

Proposamenarekin inplikaturik eta konprometitutako taldea izatea izan zen uraren uztaren arrakastaren gako nagusietako bat. Proiektua egiteko ikuspegi integratua “burua altxatze ra” eta diziplina arteotasunez parte hartze ra behar izan ditu pertsona guztiak, arazo konplexuak etengabe konpontzeko.

Ikasketak.

Elementu teknikoak eta partaidetza-elementuak orekatzeko, beharrezkoa da diziplina arteko talde bat.

Inplikaturik eta motibatutako talde bat funtsezkoa da komunitatea motibatzeko eta inplikatuzeko.

Gomendioa.

Diziplina arteko talde inplikatuak eta motibatutak sortzea funtsezkoa da mota horretako proiektuak garatzeko.

15. ondorioa: Parte-hartzea tresna gisa ikustetik eskubide gisa ikustera pasatzeak komunitateen protagonismoa handitzen laguntzen du

Parte-hartzearen helburuak aldatzen doaz. Hasieran, tresna bat zen; egoera jakin bat aldatzen lagunduko zuen helburu zehatz bat lortzeko bitarteko bat. Parte-hartzea bitarteko gisa ikusteko ideia hori aldatzen joan da, eta biztanleriak eta liderrek egiaztatu dute antolatzea eta bestelako guneetan eta beste eragile batzuekin parte hartzea onuragarria izan daitekeela komunitatearentzat, baina, aldi berean, parte hartzea ardura eta eskubidea dela.

Ikasketa.

Beharrezkoa da partaidetza metodologia jakin bat eskatzen duen eta komunitateak garatu ahal izateko eskubidea sortzen duen prozesu gisa ulertzea.

Gomendioa.

Komunitateen partaidetzaren inguruko lana, metodologia edo tresna batetik, komunitateek beren garapenerako duten eskubidera doan prozesu gisa ulertu behar da.

16. ondorioa: Tokiko agintariekin egindako lanak eragile guztientzako onura dakar

Gaur egun, tokiko agintariekin harremanetan egotearen balioa onartzen du CCAIJOk: “gai politikoeekin interesatzera bultzatu gaitu. Ez dugu hautu politiko-alderdikoirik egiten, baina gertatzen dena adi jarraitzen dugu, eta badakigu gure ekintzetan ikuspegi politikoa izan behar dugula”. CCAIJOren proiektuetan partaidetzaren moduko dimentsioak gehitzean, eragin-guneak zabaltzeari buruzko hausnarketa eragin du erakundeetan, eta tokiko eta eskualdeetako esperientziak nola artikulatu eta herritarrentzako elkarrizketa- eta partaidetza-guneak etengabe nola dinamizatu galdetu dio bere buruari.

Ikasketa.

Tokiko agintariekin lan egitea beharrezkoa da, eta onuragarria izan daiteke komunitatean proiektua bideragarria izateko.

Gomendioa.

Tokiko agintariekin lan egitea beharrezkoa eta funtsezkoa izan daiteke komunitatean proiektua bideragarria izateko eta komunitateak beren garapenean protagonista izateko.

Tokiko agintarien ondorioak, ikasketak eta gomendioak

17. ondorioa: Tokiko agintarien ahultasuna pertsonalismoetatik eta gaitasun instituzional urritik dator

Barrutietako gobernuen ahultasun instituzionala agerian geratzen da, kanpoko eragile dinamizatzaile bat (kasu honetan, CCAIJO) ez dagonean, elkarrizketa-gunek desagertu edo kudeatzeko oso zailak suertatzen badira.

Ikasketa.

Tokiko agintarietan, hitz egiteko eta parte hartzeko prest dauden lidergoak sendotu behar dira, baita instituzionaltasuna bera ere.

Gomendioak.

Tokiko agintariak eta lidergo partekaturako dituzten gaitasunak sendotzea funtsezkoa da demokrazia eta giza garapena sustatzeko.

Partaidetza-prozesuetan erakunde dinamizatzaile bat egoteak prozesu horiek arrakasta izaten laguntzen du.

18. ondorioa: Elkarrizketa, komunitateekin lan egiteko bitarteko gisa

Ikasketa.

Komunitateekin hitz egitea funtsezko estrategia da, herritartasuna garatzeko eta gauzatzeko.

Gomendioa.

Eragile guztiak elkarrizketarako gaitzea estrategikoa da.

19. ondorioa: Tokiko erakundeen legitimotasuna funtsezkoa da proiektuek arrakasta izateko

Ikasketa.

Inguruko erakunde eragileen legitimotasunak garrantzi handia du proiektuen garapenean.

20. ondorioa: Dimentsio sozialaren eta teknikoaren arteko oreka estrategia interesgarria da komunitateekin lan egiteko

Gomendioa.

Komunitatearen garapenerako proiektuetan, partaidetza sustatzeko estrategia bat da komunitatea produkzioa garatzeko edo bizi-baldintzak hobetzeko proiektuetan integratzea.

21. ondorioa: Partaidetza-prozesuen bideragarritasuna, proiektu edo esperientzia zehatzez haratago

Gomendioa.

Prozesuak eta proiektuak diseinatzean, prozesuen bideragarritasuna ahalbidetuko duten estrategiak eta baldintzak integratzea komeni da, proiektutik haratago.

22. ondorioa: Emakumeek ahalduzko aukera ikusten dute komunitateetako bizi-baldintzak hobetzeko proiektuetan eta prozesuetan

Gomendioa.

Landa-eremuetan emakumeak ahalduzko, estrategia arrakastatsua izan daiteke emakumeak produkzio-proiektuetan edo bizi-baldintzak hobetzeko proiektuetan inplikatzeko.

5. LABORANTZA GARAPENERAKO ESKUALDE BATZORDEA PARTAIDETZAREN ERRONKA POLITIKA PUBLIKOAK DEFINITZEAN

5.1. Kasua ulertzea: esperientziaren testuingurua

Esperientzia honen bidez, Estatuaren eta gizarte zibilaren artean izandako harreman baten esperientzia aztertzen da, esparru jakin batean: laborantza-sektorea, Peruko eskualde-esparruan. Analisia egitean, parte-hartzearen, parte hartzeko prozesuen eta adostasunean oinarritutako politika publikoen aldeko ikuspuntu berriak aztertu nahi ditugu: Esperientziara hurbildu gara, praktikatik abiatuta, honen gisako galderei erantzuteko: posible da, oinarrietatik, pertsonen bizitzan eragiten duten politiken definizioan parte hartzea? Nola bultzatzen dira Estatuaren eta gizarte zibilaren arteko interakzio horiek eta nolako emaitzak lortzen dira?

Peruko Piura eskualdeko Laborantza Garapenerako Eskualde Batzordean (CORDA) bizitako historia eta prozesua berrikisuz erantzungo diegu galdera horiei. Batzorde hori gobernuko erakundeen eta eskualdeko gizarte zibilaren ordezkarien arteko el-karrizketa- eta harreman-gune bat da. 2003an eratu zen CORDA adostasun-gunea, eskualdeko laborantza-sektorea garatzera bideratutako politikak egiten laguntzeko.

Piurako testuinguru politikoa eta produktiboa¹²

Piurako eskualdeak askotariko potentzial ekonomikoa dauka, eta produkzio-sektore nagusien artean nabarmendu behar dira hidrokarburoak, laborantza tradizionala eta modernoa, arrantza eta zerbitzuak. Ekonomia-politika nazionalak bultzada handia eman die inbertsio handiei, lehen sektorearen eta esportazio-sektorearen garapen-eredua aldatu gabe. biztanleriaren % 40 pobretasunera behart zen duen; laborantza lurretan eta, bereziki, emakumeen kolektiboan areagotzen da hori.

¹² Programa honetatik erazitako informazioa: Empoderamiento de la sociedad civil para la gobernanza democrática en el marco del proceso de descentralización, en Piura, Moquegua y Cusco-Perú. ALBOAN 2007.

Langabeziak eta lanpostu informalek Peru osoko joera bera agertzen dute (biztanleria aktiboaren % 50 baino gehiago). Piurako eskualdeko garapen soziala maila baxukoa da, familiako per capita irabaziak ez dira hileko 60 dolarre ra iristen eta bigarren hezkuntzako matrikulazio-tasa ez da % 70era iristen. Eskualdean bertan, alde nabarmena dago kostaldearen eta Andeetako eskualdearen artean. Pobretasuna askoz ere handiagoa da landa-eremuetan.

Piurako produkzio-sektoreen dinamismo ekonomikoa desorekatua da. Oihaneko petrolio-jardueraren garapena (eskualdean sortzen da produkzio nazionalaren % 40) eta, azkeneko urteetan, eskualdera iritsi diren enpresa transnasionalek beste natura-baliabide batzuek ustiatzeko egindako inbertsio handiak eragin handia izaten ari da eskualdean, baina modu desorekatuan.

Esan bezala, Piurako sektore tradizioaletako bat laborantza-sektorea da, baina erabat baztertuta dago eta ez dago sektoreari laguntzeko eskualde-politikarik. Sektore garrantzitsuenetako bat da laborantza-sektorea, ez eskulana ematen duelako bakarrik, baizik baita laborantzarako 140.000 hektarea inguruk duten potentzialagatik ere. Gehienek ureztatze erregulatua dute, eta % 90 kostaldeko eta mendizerrako produkzio txikien eskutan daude (batez beste, 1,8 hektarea ditu bakoitzak).

Piura eskualdeko laborantza nagusiak arroza, PIMA kotoia, artoa, mangoa, banana, limoia, kafe organikoa eta indaba dira. Joera nazionalari jarraiki, Piura eskualdeko gobernua nekazaritza- eta abeltzaintza-korporazio handiei laguntzeko proiektuak sustatzen ditu. Berriki, 15.000 hektarea erosi dituzte korporazio horiek, agro-erregaiak produzitzeko, eta horrek tentsio handiak sortu ditu eremu horietan bizi diren komunitateekin.

Bestalde, duela gutxi, zenbait ekimen jarri dituzte abian Piurako mendizerran, eskualdearen ikusgarritasun soziala, politikoa eta ekonomikoa handitu dutenak. Horien artean, kafe-produkzio txikien enpresa-ekimenean sendotzea azpimarratu behar da. Enpresa horiek enpresa-kudeaketa asoziatiboan oinarritzen dira, eta zentral ustiatzaile propioa dute (Central Piurana de Cafetaleros-CEPICAFE). Eskualde-mailan, lurren merkatuari ari dira ematen lehentasuna, inbertsio handiak bultzatzeko, bereziki, esportatzeko laborantzaren arloan eta bio-erregaienezako "input"-en produkzioan.

Perun, oro har, eta Piurako eskualdean bereziki, indarrez ezartzen hasi dira ekonomia liberalizatzeko mekanismoak. Hain zuzen, Estatu Batuekin sinatutako Merkataritza Librerako Hitzarmenak izan du eragin handiena laborantza-sektorean,

laborantza txikiaren (eskualdeko laborantza-eremuaren % 90) bideragarritasuna arriskuan jartzen baitu; izan ere, hitzarmen horren bidez, diruz lagundutako prezioetan, eskualdeko produkzioarekin (kotoia, artoa, esnekiak, etab.) lehiatuko duten produktuak sartuko dira herrialdean. Ondorioz, beharrezkoa da, batetik adostutako gobernu-politikak sortzea, ahultasun hori gutxitzeko eta parte-hartze soziala aktibatzeke eta, bestetik, produkzio txikien baldintzak hobetuko dituzten politika publikoak adostea eta diseinatzea. Horregatik guztiagatik da hain beharrezkoa laborantza-sektoreari lotutako adostasun-guneak aztertzea. Gune horiei sendotasuna eta presentzia publikoa emateak mesede nabarmena egingo lieke eskualdeko produktore txiki gehienei.

5.2. Piurako Laborantza Garapenerako Eskualde Batzordeak (CORDA) egindako bidea

Gizarte zibileko eragile batzuk Peruko eta eskualdeko baldintzei aurre egiteko sortutako ekimen baten bidez sortu zen CORDA. Peruko deszentralizazio-prozesuaren bigarren etapan (2001 urtean hasi zen Toledoren gobernuarekin), nazioz azpiko gobernuek hainbat neurri eta mekanismo prestatu zituzten adostasuna eta gizarte zibilaren parte-hartzea aktibatzeke. Horrek gizarte-mugimenduak eta organizazioak aktibatu zituen, eta Estatuaren eta gizarte zibilaren arteko elkarrizketarako gune berriak sortzen joan ziren. Testuinguru horri esker, Perun azken urteetan, banaketa sozial handia izan bada ere, talde batzuk antolatu egin dira eta adostasunerako eta elkarrizketa politikorako gune egituratuagoetan parte hartzerantz animatu dira.

Gizarte zibilaren ekimena

Deszentralizazio-prozesuarekin batera, 2003 urtean, Piurako Ingeniarren Elkar-goak (CIP) eta Piurako Unibertsitate Nazionalako Agronomia Fakultateak (UNP) bilerak antolatu zituzten Piurako laborantza-sektorearen arloko adituekin, eskualdeko laborantzaren inguruko diagnosi bat egiteko, eta, horren bidez, laborantza-garapenerako ekintza- eta sustapen-ildoak proposatzeko. Sektorako liderrek ekimena babestu zuten, testuinguru horretan, iritzia sortzeko eta sektorearen garapenera ekarpenak egiteko aukera ikusi baitzuten. Besteak beste, klimaren eta gobernuaren egoerak eragin zuen proposamena, testuinguru horiek eragina baitzuten eta aukerak sortzen baitzituzten laborantza-sektorearen garapenean.

Hasierako proposamena nekazaritza-gaietan laguntza teknikorako gune bat sortzea zen, eta, denborarekin, aldatu egin zuten asmo hori. Hala ere, gaur egungo adostasun-gunearen iturria izan zen. Gobernuko kideekin (eskualdeko garapenean

gerentzia) eta laborantza-ikerketako espezialistekin (akademiako kideak, adibidez) hasi ziren osatzen batzordea, eta, denbora gutxian, Piurako Laborantza Garapenerako Eskualde Batzordea (CORDA) bihurtu zenaren ikuspegi komuna landu zuten.

Eskualdeko presidentea gonbidatzeak indartu egin zuen abian jarri berria zen gu-nea. Gonbidapen horren bidez, espezialista-talde horren laguntza eskaintzen zi-tzaion, eskualdeko laborantza-politikak egiteko. Batetik, unibertsitateko ikerke-tarako eta jakintza sortzeko gaitasunean eta, bestetik, laborantza-sektoreko pertsona jakin batzuen esperientzian eta ezagutzan oinarritzen zen taldea. Gon-bidapenak harrera ona izan zuen, eta eskualdeko presidentek nekazariak talde-an sartzea erabaki zuen, kontuan hartu beharreko eragile nagusiak zirenez. San Lorenzoko batzordea eragile aktibo bihurtu zen, une hartan meatzaritza-enpresa baten instalazioa zela-eta gatazkan zegoen eremu bateko ordezkari gisa.

Hori dela hasi zen eratzen CORDA. Hasierako talde horrek gobernu-ordenantza bat egin zedin lortu zuen, taldearen eraketa eta martxan jartzea definitzen zuena. De-kretuaren arabera, hauek dira CORDAren oinarritzko helburuak: “Piura eskualdeko laborantza-produkzioa planifikatzea, ordenatzea eta sustatzea, eta horrez gain, la-borantza-produktoreen ordezkarien, Estatuaren eta eskualdeko laborantza-gara-penean interesa duten beste instituzioen arteko adostasun-tresna izatea, epe ertai-nean eta luzean eskualdeko laborantza-politikak ezartzeko eta aplikatzeko”¹³.

Gizarte zibilak gobernuko presidentea gune horren burua izan zedin eskatu zuen, batzordeak laborantza-politikak definitzean benetako eragina izateko neurri politiko gisa. Azkenean, Piurako gobernuko gerente nagusiaren esku jarri zuten ordezkari-tza.

11. koadroa. Nola funtzionatzen du CORDAk?

- Eskualdeko gobernuko 7 instantziatako ordezkariak eta gizarte zibileko 12 ordezkariak osatzen dute.
- Erakundearen jarduerarako, idazkaritza teknikoko kargua definitu zuten, Piurako Garapen Ekonomikorako Gerentziaren mende dagoena.
- Hilean behin elkartzen da eta lan-batzordeetan antolatzen da, plan operatiboan definitutako gai sektorialen arabera.
- Ez dauka funtzionamendurako aurrekonturik.

Iturria: geuk egina.

¹³ 025/GRP-CR zenbakiko Eskualde Ordenantza.

Lehen urratsak

2004an hasi ziren CORDAren jarduerak, eta haiekin batera, eskualdeko lehen adostasun-prozesua. Lehen ordenantza horren, eta CORDAren egitura ren, zati gisa, kontseiluari lanpostu iraunkor bat eman zitzaion: Idazkaritza Teknikoa. Hark dinamizatu eta martxan jarri behar zituen kontseiluaren lehen pauso horiek. Kontseiluaren lehen helburuetako bat zen CORDAren beraren araudi bat sortzea, CORDA martxan jarriko zuena eta adostasun-prozesuan behar besteko ordezkari itza izango zuen egitura bat emango ziona (gizarte zibileko sektoreak, akademia eta gobernua).

Araudi hau 2004ean bertan onartu zuten, eta hauen parte-hartzea jasotzen zuen: eskualdeko nekazaritza-institutuak -adibidez, Chira-Piura proiektu berezia eta Peruko ingeniarien elkargoa; Piurako departamentu-kontseilua; ordura arte parte hartzen ez zuten ekoizleen elkarteak; “Ureztatze-erabiltzaileen batzordeak” (mendizerran, ura erabiltzen zutenak izan ezik); eta nekazaritzari lotutako instantzia publikoak. Kontseiluak, ordea, ez zuen lortu deialdia sektoreko eragile garrantzitsuei egitea, eta horrek ordezkari itza zalantzak jarri zuen. Oraindik ere badute arazo hori.

12. koadroa. Nola funtzionatzen du CORDAk?	
Estatua	Gizarte zibila
<ul style="list-style-type: none">• Eskualdeko gobernuko lehendakaria edo haren ordezkaria da lehendakaria.• Eskualdeko Laborantzako zuzendaria• Tokiko gobernuko ordezkaria (izendatzeko).• Chira-Piura arro hidrografikoko ordezkaria.• AGROBANCOKo gerente nagusia.• Chira-Piura proiektu bereziko gerentea.	<ul style="list-style-type: none">• Mendizerrako ekoizleen hiru ordezkari (nekazaritza, abeltzaintza eta basogintza).• Kostaldeko ekoizleen hiru⁴⁴.• Eskualdeko eremu bakoitzeko erabiltzaileen batzordeko lehendakaria.• Nekazaritza-ingeniarien elkargoko ordezkaria.• Piurako Unibertsitate Nazionaleko Nekazaritza Fakultateko dekanoa.

Iturria: geuk egina.

⁴⁴ Hauek dira: banana organikoen ekoizle txikien Piurako zentrala (CEPIBO); Piura garaiko haraneko mango-ekoizleen elkarte (APROMALPI); algodoi-ekoizleen eremu-batzordeak (COSAPAL).

Erabiltzaile-taldeek presentzia handia zuten, eta nolabait eragiten zuten beren agendari eta beharrei arreta jartzeko. Parte-hartze handi horrek azaltzen du zergatik izan zen uraren gaia hain garrantzitsua CORDAren hasierako urteetan. Lehorteak gogor astindu zituen nekazariak, eta beharrezkoa zen produkzio txikiari laguntzea. Uraren arazoari arreta jar zezak eta horrek laborantzekin zuen loturak bideratu zuen CORDAk hartutako lehenengo erabakietako bat: leku jakin batzuetan arroza landatzeko kanpaina debekatzea. Ordenantza horrek CORDAren ibilbidea markatu zuen, politika publikoak definitzeari dagokionez.

Erabakiak gatazka paradigmaticoa eragin zuen, CORDAko kideak aurrez aurre jarri zituen. Erabiltzaile-taldea banatu egin zen arroza landatzearen debekua onartzen zutenen eta ez zutenen artean. Debekuaren alde zeudenen uraren erabilera ren jasangarritasuna eta arrazionaltasuna aipatzen zituzten, eta aurka zeudenen, berriz, uste zuten uraren erabilera -eta, ondorioz, laborantza- mugatuko zirela. Azken talde horren presioen aurrean, gobernuak amore eman zuen, eta atzera bota zuen batzordetik etorritako ordenantza. Gizarte zibilaren ordezkariaren irakurketa izan zen kasu hartan “egokia” zena nagusitu zela politikaren, iritzi teknikoaren eta batzordean hartutako erabakiaren aurrean. Erabaki horren eragin sozialak eta mediatikoak batzordearen funtzioa eta jardueramarkatu zituen, onerako eta txarrerako.

Gara berean sortu zen Laborantza Garapenerako Plan Estrategikoa. Zenbait GKEk eta herritar-taldek bultzatutako prozesua zen eta eskualdeko nekazaritzaren egoera aztertzeke aukera eman zuen, baita politika berriak sustatzeko aukerak aztertzeke ere. Ez zuten plana bere osotasunean onartu, baina Eskualde Garapenerako Plan Hitzartuaren prozesua egiteke erabili zuten.

Sektorea aktibatzeke kezka zegoenez, laborantza berriak errentagarriak eta jasangarriak izateke eta eskualdeko produkzio-aukerak dibertsifikatu ahal izateke proposamenak egin ziren. Kezka horretatik abiatuta, datilen laborantza ren bidegararritasunari buruzko ikerketa bat egin zuten. Ikerketa eta proposamen horrek ez zuen jarraipenik izan.

Erabaki horiez gain, CORDAk kotoi-sektoreari buruzko hausnarketa bati ekin zion. Sektoreke arazoak eztabaidatu zituzten, eta Laborantzarako Eskualde Zuzendaritzari eta Nekazaritza Ministerioari proposamenak egin zizkioten. Sektorean politika publikoa egiteke zegoen zailtasuna adierazten du gai horrek, instituzionaltasuna oraindik ahula zelako eta eskualdeko gobernu ezarri berria zelako. Ordura arte, maila askotako gobernu-istantzieke elkarrekin jarduten zuten baina, laborantza-sektorean politika publikoak ezartzeko, koordinatu be-

hara ze ukaten. Hala, kotoiaren merkataritza formalizatzeko programa nazionalaren legea aldatzearen alde egiten zuten proposamenek, eta Errepublikako Kongresuan eztabaidatu zen lege hori. Hala ere, legean sartu zituzten proposamenak (esaterako, hazi hibridoak erabiltzeko murrizketak, PIMA sartzea, AGROBANCOk kreditu-arreta eskaintzea eta batzorde iraunkor bat eratzea kotoi-sektorearentzat hain garrantzitsua zen gai horri jarraipena egiteko).

Adostasunean aurrera egiten

Hurrengo urteetan, talde produktoreen ordezkariak erakartzen jarraitu zuen CORDAK. Batzordearen jarduera hobetzeko, lan-taldeak edo batzordeak sortu ziren, sektore jakin baten ikerketatik eta analisitik abiatuta, proposamen zehatzak egiteko. Hala, lan-taldeak eta batzordeak finkatzen joan ziren; besteak beste, hauek:

- Teknologiaren ikerketari eta transmisioari buruzko proposamenak egiteko batzordea taldearen gomendioekin, Laborantzari buruzko Ikerketarako eta Transferentzia Teknologikorako Zentroa (CRIAT) sortzea lortu zuten. Zientziaren eta Teknologiaren arloko Eskualdeko Institutuak hartu zuen funtzio hori, eta laborantza-sektoreari buruzko kalitatezko ikerketa hartu zuen lehentasunezko lanildo gisa.
- **Chira-Piura sistema hidraulikorako batzorde teknikoaren** helburua zen, bategitik, sistema horren funtzionamendua eta mantentze-lana arautzea eta, bestetik, uraren erabilera erregularizatu eta horrek sortutako arazoak ekiditea.
- Lurraren erabilera- eta kontserbazio-batzordea eratzea talde horren helburua zen Piura barrutiaren erdialdeko eta behealdeko lurren erabilera eta kontserbazioa arautzea. Eskualdeko gobernuari proposamen batzuk egin zizkion, eta, handik urtebetera, gobernuko instantziekin hitz egin zuten, proposamenak martxan jartzeko.
- PIMA kotoiaren talde teknikoaren eraketa Kotoi mota horren produkzioaren, ikerketaren eta komertzializazioaren egoera aztertzeo eraturako taldea da. 2007an, laborantza optimizatzeko eta arautegia eguneratzeko gomendioak aurkeztu zituen. Gobernuak kontuan hartu zituen gomendio horiek, batzordea finkatu egin zen, eta produkzio-fase horien komertzializazioari, produkzioari eta artikulazioari buruzko gomendioak egiteko asmoa agertu zuen, azpisektorea hobetzeko helburuarekin.

Lan-taldeen eskema horrek hainbat arazo konpontzeko aukera eman zuen: partaidetza espezializatzea eta azpisektoreetako ordezkariak ordezkatzeko zituzten

pertsonentzako gai garrantzitsuei buruz eztabaidatze ra bideratzea. Hala, proposamenak sortzen joan ziren eta CORDA proposamenak eta gomendioak egiten hasi zen. Dinamika horretan, landa-koordinakundeak sustatutako Laborantza Agenda egiteko lanean parte hartzen hasi zen batzordea. Agenda horren eraginez, Laborantza Garapenaren Plana eguneratzeko prozesua bultzatu zen eta, batez ere, sektoreak une hartan aurrean zituen arazoak lehentasuna ematea ahalbidetu zuen. Agenda hori sektoreko hainbat partaidek aurkeztu eta eztabaidatu zuten, baina lan eta ahalegin handiak egin arren, ez zen adostasunik lortu, eta eskualdeko gobernuak presidentetzak ez zuen bere gain hartu.

2006ko lehen zatian, hitzartutako Eskualde Garapenaren Plana landu zen azpie-remuka (antzeko ezaugarri geografikoak zituzten eremuen arabera, hau da, arro- en arabera). CORDA lanean aritu zen Eskualdeko Laborantza Garapenaren Plan Estrategikoan landutako hiru gidalerroak sartzeko¹⁵. Laborantza- eta ureztatze- planak egiteko, onartzeko eta ikuskatzeko arautegia ere landu zuen. CORDAk la- bo rantza-kanpaina eta baliabideen erabilera antolatzeke elementuak eman nahi zituen. Urak gatazka sozial handia eragiten zuen, baina gatazka hori arintzea eta baliabideen erabilera antolatzea lortu zuten.

Eta horretan, CORDAk aliatu garrantzitsu bat lortu zuen sendotzeko: CIPCA. Urte hartan, CIPCA erakundeak trebakuntza-programa bat eskaini zuen, batzordearen gaitasunak sendotzeko bereziki prestatua; zehazki, politika publikoak egiteko. Gai horretan zuten interes handiaz gain, CORDAko kideak, CIPCAkoekin batera, plan operatiboak egiteko prozesu bati ekin zioten, batzordearen lanari norabide bat emateko, jarraipen-mekanismoak sortzeko eta konpromisoak berrikusteko.

Gizarte zibileko taldeak biltzen dituen beste esparru bat Partaidetza Aurrekontua da (PA). 2007an, CORDAko zenbait kidek izena eman zuten PAK eztabaidatze ko, laborantza-garapenerako kontseiluan sortzen ari ziren eztabaidak eta norabide- ak gune horretara eramateko asmoarekin. Hala, esparru horretan sartzeari esker, aurrekontuaren partida bat eskualdeetako batzordeen funtzionamendurako bi- deratzea erabaki zen.

¹⁵ **A. Arroen kudeaketa osoa eta lurralde-garapena:** "Piturako eskualdeko nekazaritza-eragileek baliabide naturalen (ura- ren, lurzorua eta landare diaren) zentzuzko erabilera planifikatzea eta kudeatzea, arro hidrografikoetan haien eskain- tza jasangarria bermatuko duten eta populazioaren bizi-kalitatea hobetuko duten teknologia modernoak erabiliz". **B. Giza kapitala eta lehiakortasunerako erakunde- eta instituzio-garapena:** "Instituzio-esparru handi batean anto- latutako nekazaritza-ekoizleek nekazaritza lehiakorra eta jasangarria lortzen dute ekoizpen-kateetan". **C. Ga rapen ja- sangarrirako teknologia eta ekoizpena:** "Laborantza eta hazkuntza nagusien ekoizpena, produktibitatea eta errentaga- rritasuna modu jasangarrian handitzea." Iturria: Piturako Eskualdeko Nekazaritza Garapenerako Adostutako Eskualdeko Plan Estrategikoa. 2006ko urria.

2007an CORECA (Laborantza Adostasunerako Lurralde Kontseilua) izeneko batzordea sortu zen, gobernu zentralak eta, zehazki, Errepublikako Kontseiluko laborantza-batzordeak sustatuta. Urte hartan, kontseilu horien sorrera erregulatzen zuen lege bat atera zen, deszentralizazio-prozesuaren esparruan. Gertakari hori oso interesgarria da CORDAren ibilbidean, eta hasiera batean oztopo moduan hartu bazuten ere, gauzak beren bidea hartzen joan dira. CORECA eratu zen, baina ez du eraginik izan laborantza-politikan, eta halaber, ez du nahikoa eraginkortasun izan parte-hartzea bideratzeko edo gune horrek eduki zezakeen paper estrategikoa bultzatzeko. CORDA hedatu egin zen, gizarte zibileko taldeak erakartzeko ahalmena zeukan eta kideen artean adostasuna zegoen egindako lanarekin jarraitzeko eta irabazitako gune politikoan ez amore emateko.

Urte hartan egin zuten CORDAren lehen plan operatiboa. Lana antolatzea, taldearen papera sendotzea eta barne-funtzionamendua hobetzea zen planaren helburua. 2008an onartu zuten, eta besteak beste, ildo nagusi hauek jasotzen zituen: bileren aldizkakotasuna, landu beharreko gaiak, gaikuntza-guneak eta akordioak berrikusteko eta landutako gaietara egiteko mekanismoak.

Sektorearen etorkizunaren inguruko kezka, eskualdeko erazketa-industriarekin zituzten tentsioak eta Peruko eta nazioarteko ekonomiaren baldintzek eztabaida sakonak eragin zituzten batzordean. Testuinguruaren analisi horrekin, garbi ikusi zuten nazioarteko merkataritzarekin lotutako gaietan trebatu beharra. Zehazki, Merkataritza Libre rako Hitzarmenaren inguruan trebatzeko prozesu bat egituratzea proposatu zuten, eskualdeko politika publikoak egitean, hitzarmenak eskualdeari eskaintzen zizkion aukerak baliatu eta inpaktu negatiboak arindu ahal izateko.

5.3. Adostasun-gunearen funtsezko elementuak

Partaidetza- eta adostasun-gunea inoiz ez dira neutralak (Corwall 2007). Alegia, herritarrek gonbidatuz edo herritarren ekimenez sortzen diren guneek testuinguruarekin eta gune horietan sortzen diren botere-erlazioekin oso lotuta dauden ezaugarriak errepikatzen joera izaten dute, eta ezaugarri horiek errepikatu egiten dira parte hartzeko gunean. CORDAren kasuan, ekimena gizarte zibiletik sortu zela eta eskualdean sortutako kasu bakarra dela kontuan hartuta ere, gunearen antolaketarekin eta adostasun-prozesuarekin lotutako muga batzuk ditu parte-hartzeak, eta muga horiek eskualdeko kultura politikoa islatzen dute.

Gune propio bat sortzea

Laborantza-sektoreko politika publikoaren diseinuari ekarpenak egiteko eztabaida demokratiko eta irekirako organo gisa definitzen dute kideek batzordea. CORDAren izateari eta eskualdeko laborantza-politikarekin zuen loturari buruzko balorazioan adostasuna zegoen, baina egia da CORDA izan beharko litzatekeenaren ikuspegietan eta itxaropenetan tentsioak zeudela. CORDAri buruzko ikuspegia desberdina zen, eragileen jatorriaren arabera. Gobernuko ordezkariaren ustez, elkarrizketarako, herritarrengana hurbiltzeko eta jendearen iritzia entzuteko gunea zen, baina ez erabaki lotesleak hartzekoa. Gobernuaren arabera, gune hori, gehienez ere, proposatu, entzun eta hitz egiteko zen, baina ez zegoen han adostutakoarekin jarraitzeko konpromisorik.

Gizarte zibilaren ordezkariaren ustez, batzordeak demokrazia sendotzeko eta adostasun politikoa sortzeko balio zuen, eta politikak eta programak definitzeko orduan inoiz parte hartu ez zuten sektoreen ahotsak integratzeko. Produkzio-partaideen iritziz, beren gobernuaren kudeaketan eta beren eskualdearen hobekuntzan parte hartzeko aukera zen. Zenbait urteko ibilbidearen ondoren, CORDAren helburuari buruzko adostasuna honela azal daiteke: “sektoreko eragileen adostasunarekin, laborantza-sektorea antolatzeko eta sustatzeko politikak, planak eta programak proposatzeko ahalmena duen gunea”.

CORDAko kideek uste dute, sektorearen beharren aurrean, proposamenak egiteko fasean baino, fase erreaktiboan egoten jarraitzen duela guneak. Gizarte zibila eta gobernuaren adostasuna daude CORDA oraindik ez duela ikuspegi integralik eman eta sinergiarik sortu eskualdeko laborantza-garapenean. Hau da, egoeraren arabera erantzuna ematen die sortzen diren arazoek, baina ezin izan du epe ertaineko eta luzeko sektore-ikuspegiarik adostu.

Parte-hartzea

CORDA gizarte zibileko eta gobernuko eragileak ditu, harreman-gune arautu batean. Partaideek garbi daukate beren parte-hartzearen helburua ez dela boterea legitimatzea, baizik eta eztabaida eskualdeko garapenerabideratzea eta baztertu den daudenei laguntzea. Gune horretan parte hartzeak zailtasunak eta potentzialtasunak ditu, eta horien arabera, erabakiak hartzen eta gaitasunak indartzen joaten dira, parte hartzen jarraitzeko eta horretan sakontzeko.

Parte hartzeko **motibazioa** oso lotua dago erakunde parte-hartzailearen izaerari. Arazo puntualak konpontzeko motibazio zehatzak eta sektorearen eta eskualdeko garapenera ikuspegi zabalago bat nola bateratu asmatzea da garrantzitsua.

Horrez gain, interesa sortzen duten gaiek ere bultzatzen dute motibazioa. Parte-hartzaileek onartzen dutenez, banakako motibazioak eta erakunde bakoitzak ordezkatzeko duen azpisektorean izan dezaken eraginak bultzatzen du parte hartzeko interesa.

Ikuspegi partekatuagoa edukitzeko, lagungarria izan da batzordeak edo **lan-taldeak** eratzea, zeintzuk arduraz jokatzen baitute proposamenak egitean edo programa jakin bati segimendua egitean. Egitura horren bidez, parte-hartzea antolatzen da, eta gaietan espezializatzen diren eta sakontzen duten “azpiguñeak” sortzen dira.

Partaidetzari lagundu dion beste elementu bat da batzordean sortzen joan den errespetu- eta irekitasun-**giroa**. Parte-hartzaileak konfiantza hartzen joan dira parte hartzeko eta beren ikuspegiak adierazteko. Ezaugarri hori bat dator CORDAko kideak jasotzen ari diren trebakuntzarekin eta parte hartzeko denborak eta moduak ordenatzen eta erregulatzen dituzten mekanismoak sortzearekin.

Batzordean **hartutako erabakiek** eragina izateak eragina du partaidetzan. Alde horretatik izandako esperientzia negatiboek parte hartzeko motibazioa galarratzen dute.

Ordezkaritza

CORDAn parte hartzeak **konpromiso handia** eskatzen dien bertako kideei eta taldeei. Trebatzea, aukerak zabaltzea, negoziatzeko prest egotea, erresistentzia propioak lantzea, hitz egitea eskatzen du batzordeak. Eraginkortasunari dagokionez, CORDAko ordezkari izateak denbora, ahalegin pertsonala eta beste gauza batzuei uko egitea eskatzen ditu. Askotan, parte hartzea neketsua da, emaitzak ez dira epe laburrean ikusten eta ordezkaturako taldearekiko harremanetan tentsioak sor daitezke. Gune horietan sinesteak esan nahi du banakako **gaitasunak eta gaitasun kolektiboak** sortzean eta kide guztiek emaitzak lortzeko konpromisoa agertuko dutela konfiantza izatean sinestea.

CORDA parte hartzeak kontsultarako ohitura zaharrak gainditu ditu eta **adierazpenerako, analisi partekaturako, eragiteko eta elkarrizketarako** aukerak ireki ditu. CORDA “subjektu aktibo” ari da bihurtzen, eta gero eta eskuduntza gehiago hartzen ari da, komunitate politiko bateko kide izateagatik. Adostasunaren bidez sortzen ari den gaitasun horrek zerikusi handia du partaideekin, ordezkarien eta, orokorrean, gizartearen artean zubiak eratzeko moduarekin, oinarriekin, etab.

Horregatik, CORDAko kideak ados daude erakundean garrantzitsuena **ordezkaritzak** direla. Ahalegin handia egin dute produktoreen erakundeak sartzeko, espektroa zabaltzeko, baina funtsezko azpisektore batzuk oraindik ez daude taldean (adibidez, udalerrriak edo komunitate indigenen ordezkariak). Laborantza-industriak eta produktore handien azpisektoreak ere ez du ordezkariarik. Bakarka eragiteko ahalmenik ez zuten edo normalean elkarrizketa politikoan isilarazten zituzten kolektiboei ahotsa emateko xedearekin sortu zen CORDA. CORDAko kideek garbi daukate produktore handiek bakarka eragina izateko ahalmena dutela, eta gune horren asmoa da lehentasuna ematea ikusgai egoteko eta ahotsa izateko zailtasunak dituztenei eta politika publikoen eragin handia jasaten dutenei.

Aurrekoarekin lotuta, CORDAn parte hartzen duten kolektiboak kolektibo dinamikoak dira, oinarri sendokoak eta dagokien sektorea ordezkatzeko, iraunkorrak izateko eta gaitasunak lortzeko adinako egitura dutenak. Beste kolektibo batzuk -parte hartzeko gaitasunak eta adostasun-guneetan parte hartzeko garrantziari buruz duten ikuspegia indartzeko beharra dutenak- nola erakarri asmatzea da erronka.

Parte-hartzeari buruz kezka sortzen duen beste gai bat da **lider batzuek** ordezkari-tzen duten taldearekin duten dependentzia. Zalantzak edo zailtasunak daude oinarri sozialarekin duten “joan-etorriko” komunikazioari buruz.

Gaitasunak sortzearen aldeko apustua

CORDAren ibilbidean, bertako kideek **ikasi eta ulertu** behar izan dute zer den politiko publiko bat eta nola eragin daitekeen haren diseinuan eta inplementazioan. Proposamen berriak sortzeko, ezagutza teknikoa eduki, ingurunea aztertu eta erakunde espezializatuekin lotura izan behar da, eta ondoren, adostasun politikoa lortu behar da (lobby- eta intzidentzia-estrategiak eskatzen ditu horrek), kide guztiek bultzatutako ekimena izateko. CORDAko kideen ustez, beharrezkoa izan da ulertzea, politika publikoetan eragina izateko, ikuspegi zabala izan behar dela laborantza-gaiei buruzko gidalerro, prozedura eta araudietan **eragiteko moduari** buruz, eta horrez gain, proposamen horien emaitzak baloratzen jakin behar dela. Orain arte CORDAn egindako ordenantzak eta gomendioak garrantzitsuak izan dira sektorearentzako, baina oraindik ere, izaera errektibokoak dira, eta CORDAko kideek onartzen dute eskualdearen garapen integralerako proiektu baterantz bideratzeko beharra dagoela.

CIPCAk lan garrantzitsua egin du **trebakuntzan**. Hala, CORDAko kideak politika publikoan gaitu dira, hasi aurrekontuak edo gobernuaren diru-sarre rei buruzko

informazioa ulert zetik, aditu teknikoekin eztabaidatzeko eta argudioak emateko moduko hizkera menderatzeraino edo plan operatibo bat prestatu eta akordioen eta adierazleen jarraipena egitea ino. Hau da, gizarte zibileko taldeak adostasunerako gaitzean oinarritu da estrategia.

Emakumeak: CORDAtik kanpo

Parte hart zeko modu berriei buruz kontuz hitz egin behar dugu, eta gure buruei galdetu ea modu horiek “status quo”-a aldatu ala iraunarazi dezaketen. CORDAn Piu rako laborantza-sektorearen errealitatea islatzen da, eta beraz, erabakigune eta ordezkari-tza-guneetan gizonak daude. CORDAren ibilbidean, emakume baka-rrak hartu du parte, idazkari tekniko lanetan, eta beraz, ez du gizarte zibileko kolektiborik edo kargu politikorik ordezkatu. Hutsune horrek zalantzan jartzen du adostasun-mota berri horiek nori zuzentzen ari zaizkion.

Txandatzeta: etengabekoa gobernuaren partaidetzan

Eskualdeko gobernuak borondate politikoa adierazi du CORDAK gizarte zibilarekin hitz egiteko gune izaten jarraitzeko. Hala ere, eskualdeko laborantza-sektorean, gobernuko bi ordezkari-tza daude: Eskualdeko Laborantza Zuzendaritza, batetik, eta Garapen Ekonomikorako Gerentzia, bestetik. Bi instantziek hartzen dute parte CORDAn, eta beren ikuspegiari eta eskuduntzetan oinarrituta eztabaidatzen dute eta egiten dituzte proposamenak.

CORDArentzat, Garapen Ekonomikorako Eskualdeko Gerentzia egotea oso garrantzitsua da. Izan ere, hizketakide izateaz gain, batzordeko **idazkaritza tekniko**ko lanak hartu ditu, zeinak adostasun-guneak dinamizatzen eta sustatzen baititu. Batzordea eraginkorra izateko, idazkaritza teknikoaren zeregina zentrala izan behar du. Paradoxikoa dena da, CORDAren ibilbide laburrean, postu horretan izugarritzko txandatzeta izan dela. Eta, bestalde, idazkaritza teknikoaren gaitasun teknikoaren, jendea erakartzeko gaitasunaren, sareak eta harremanak sortzeko gaitasunaren arabera izango da, neurri handi batean, batzordea eraginkorra eta haren lana ona. Konpromiso pertsonal handia, sektorea ezagutzeta eta adostasuna bideratzeko gaitasun politikoa eskatzen duen postua da.

Bestalde, Eskualdeko Gerentziako eta Garapen Ekonomikorako Gerentziako postuak betetzen dituzten kideak ere etengabe aldatu dira urte hauetan. Gobernuko postuen, eta beraz, CORDAko postuen, etengabeko txandatzeta-aren ondorioz, oso zaila da batzordeak urrats sendoekin aurrera egitea.

5.4. CIPCA eta CORDA sendotzeko aliantza

Pro zesua berreskuratzean onartu denez, 2005 urtean, CIPCA eta CORDA harremanak estutzen hasi ziren eta gunea sendotzeko aliantzak egiten. CIPCA ibilbide luzeko eta sona handiko duen erakundea da Piurako eskualdean. 35 urtetik gorako ibilbidea du, eta ahalegin handia egin du garapenerako proposamenak egiten, testuinguruaren irakurketa politikoa eginez eta gizarte zibilaren parte hartzea eta antolaketa sustatzeko ekimenak sustatuz. Gizarte zibileko taldeek nahiz produkzio-kolektibo antolatuek, eta gobernuak berak ere, laborantza-sektorearen garapenean funtsezko eragile moduan **onartzen dute** CIPCA. Laborantza-sektoreari buruzko ezagutza teknikoetan eta proposamenen izaera politiko eta sozialean oinarritzen da erakundearen ekarpena. Ikerketa-zentro eta garapenerako ekimenen sustatzaile gisa duen zilegitasun horrek aukera eman dio Estatuaren eta gizarte zibilaren arteko elkarrizketa- eta harreman-guneak sustatzeko eta bideratzeko.

CIPCArentzat, CORDAren moduko erakunde batekin bat egitea gizarte zibilaren eta eskualdeko gobernuaren lokarri izateko estrategia instituzionala gauzatzeko modu bat da. Gobernagarritasuna eta demokrazia sendotzeko ekintzak bultzatzeko aukeratzat jo zuen CIPCAk Peruko deszentralizazio-prozesua. Horregatik, eskualde-mailan, tradizionalki eskualdean baztertuta egon diren taldeen partaidetza sustatzea eta azken urteetan sortutako adostasun-guneak sendotzea izan da CIPCAren lan-eremua, eskualderako garapena sustatzeko ikuspegia duten politika publikoak garatzeko instantziak direlako.

2005ean, CIPCAk foro bat antolatu zuen, eta eskualdeko batzordeei egin zien dei, deszentralizazio-prozesuaren eta partaidetzaren inguruan hausnartzeko. Eskualdeko batzordeentzako bilgune bat sortzea zen helburua eta gizarte zibilaren partaidetza atikulatzea. Urte hartatik aurrera, CIPCA erakundeak bat egin zuen CORDA sendotzeko ahaleginekin, modu iraunkorrean parte hartuz eta adostasuna bultzatuz. CIPCAk gaikuntza espezializatua eskaini zien CORDAko kideei eta erakundearen eguneroko jardunean parte hartzearen aldeko apustua egin zuen, lanerako, elkarrizketarako eta negoziatiorako tresna baliagarriak emanez.

Hiru dimentsiotan hauetan oinarritzen da CIPCAren estrategia: bideratze-lana, trebakuntza eta aholkularitza. Eta estrategia hori hiru subjekturi zuzenduta dago: pertsoneri, pertsona horiek parte hartzen duten erakundeeri eta batzordeari, Estatuaren eta gizarte zibilaren arteko elkarrizketa-gunea den neurrian.

CIPCaren arabera, adostasun-gune horri eta beste batzuei emandako trebakuntzak oreka izan behar du trebakuntza teknikoaren (espezifikoa, sektoreko elementuei dagokiona), trebakuntza metodologikoaren (adostasun-gunearen kudeaketa, negoziazio-tresnak eta eragina), komunikazioaren arloko trebakuntzaren eta eragin politikoaren (testuingurua, lege-alderdiak, etab.) artean.

Era berean, bideratze-lana egiteko, CIPCAk gizarte zibilaren ordezkartzaren arloan egin du lan, eta adostasun-lanaren ikuspegi politikoa zorrotzen eta eragiteko, aztertze eta negoziatzeko gaitasunak sendotzen saiatu da.

5.5. Helmugak: ondorioak, ikasketak eta gomendioak

Ordezkaritzari buruzko ondorioak, ikasketak eta gomendioak, gizarte zibilaren ikuspegitik

1. ondorioa: Peruko une politikoa eta deszentralizazio-prozesua funtsezkoak izan dira gizarte zibilak adostasun-gune hori bultzatzeko

Ikasketak.

Gizarte zibilaren ekimen bat, gobernuko ordezkariak lotzen eta konprometitzen dituen, egingarria izateko, kideen konpromisoa eta partaidetza behar da eta onarpena izan behar du gizartean.

Beharrezkoa da testuingurua etengabe aztertzea, aukerak eta gai interesgarriak identifikatzeko eta proposamenak egiteko.

Gomendioak.

Estatuaren eta gizarte zibilaren arteko elkarriketa-guneak sortzeko orduan, alde guztien partaidetza bideratu eta inplikaturako alde guztien konpromisoa eta onarpena sustatu behar da.

Testuingurua aldizka aztertzea, eta gure ekintza egiteko aukerak, gai interesgarriak eta aukerak identifikatzea eta baloratzea.

2. ondorioa: CORDAn parte hartzeak motibazioa, gaitasunak sortzea, dedikazioa eta jarraitasuna eskatzen du, eskualdearen garapenerako politika publikoak definitzeko

Ikasketak.

Adostasun-gune batean parte hartzeak esan nahi du partaidetza prozesu moduan ulertzea eta balore indibidual eta kolektibo gisa onartzea.

Partaidetzak trebakuntza, gaitasunak sortzea, jarraitasuna eta epe luzeko inbertsioa eskatzen ditu.

Motibazioak eta lankidetzak eta adostasun-giroak guztiek parte hartzea errazten du.

Interes zehatzeko gaiak lantzeko metodologiak eta gune bereziak sortzea garrantzitsua da partaidetza motibatzen.

Ordezkariek lana funtsezkoa da; ordezkatzen dituzten komunikazioa errazten duten eta lidergoak eskualdatzea bultzatzen duten liderrek izan behar dute.

CORDAko kideen artean ezagutzak partekatzen mekanismoak bilatu behar dira, jakintza hori mantentzeko.

Gomendioak.

Beharrezkoa da kideen motibazioa eta konpromisoa bultzatzea, gaitasunak sortzean inbertitzea eta partaidetza-prozesua eraikitzen bideratze-lana egitea.

Sektorean ezagutza eta esperientzia duen jendeak trebakuntza- eta partaidetza-prozesuak bideratzeko parte hartzeak prozesu horien garapena bultzatzen du.

Beharrezkoa da adostasun-guneak lankidetzak eta adostasun-giroan sortzea.

Batzordeetan eta talde espezifikoetan lan egiteak intereseko gaiei heltzea eta kolektibo guztiak motibatzea ahalbidetzen du.

Beharrezkoa da ordezkatzen duten lidergoak sortzea, oinarriekin komunikatzeko gaitasuna dutenak eta haien ezagutzak transferitzeko ahalmena dutenak.

Batzordetik irteten eta izendatzen diren ordezkariek arteko transferentzia-mekanismoak ziurtatu behar dira adostasun-guneetan.

3. ondorioa: CORDAren ardatz nagusia garapen integrala planifikatzea izan behar du, eta ez egoera zehatzen aurrean erreakzionatzea bakarrik

Ikasketak.

Beharrezkoa da politika publiko bat zer den ulertzea, nola diseinatzen den, hura ezartzeak zer dakarren eta nola eragin behar den aurrera egin dezan.

CORDAko kide izateak berarekin dakar eskualdeko garapenaren ikuspegi zabala onartzea, ordezkatutako taldearen interesak gainditzea eta jarre ra proaktiboa hartzea, politika publiko berriak martxan jartzeko eta dagoeneko eginda zeude-nak inplementatzeko beharrak eta aukerak identifikatu ahal izateko.

Adostasun-gunean hartutako erabakiak lotesleak izan behar dira.

Izandako esperientzia negatiboek parte-hartzea eta adostasun-gunearekiko konfiantza galarazten dute.

Gomendioak.

Beharrezkoa da politika publikoak diseinatzeko eta ebaluatzeko gai diren insti-tuzioekin eta/edo organizazioekin artikulatzea, hartara, sareko lana sustatzeko eta gizarte zibilaren proposamenak sendotzeko.

Garrantzitsua da, adostasun-gunearen barruan, garapenerako helburu zabalak definitu ahal izateko dinamikak sustatzea, partaidetza eta ahaleginak, egoera-ren araberrako eskaerei erantzuna ematera baino, helburu handiagoetara bide-ratzeko.

Adostasun-guneetan hitzartutako erabakiak denek onartu behar dituzte, gunea-ren motibazioak eta legitimotasunak bere horretan iraun dezan.

4. ondorioa: Azpisektore guztien ordezkartza beharrezkoa da gunearen legitimotasunerako eta proposamen berriak bultzatzeko

CORDAren iraunkortasuna eta izena lortu ditu gobernuan nahiz sektorean, hainbat arazo irengatik. Horietako bat da sektoreko liderrek eta eskualdeko produkzio-erakunde esanguratsuek parte hartu izana. CORDAn zalantzan jarritako gauzetako bat ordezkartzaaren legitimotasuna izan da, alegia, azpisektore guztiak kontuan hartu ote diren eta eztabaidatutako proposamenak oinarriekin eta neurriek eragiten dieten taldeekin adostu ote diren.

Ikasketak.

Gizarte zibilaren ordezkariak onartu dute gunea hedatzearen eta ordezkartzarik ez duten beste azpisektore batzuek parte hartzea lortzearen garrantzia.

CORDAko kide diren erakundearen legitimotasuna funtsezkoa da, eta, horretarako, beharrezkoak dira lidergo arduratsu bat eta parte hartzen duten kide eta komunitateekin etengabeko komunikazioa izatea. Ordezkartzak esan nahi du oinarriekin komunikazio-mekanismo eraginkorrak sortu behar direla eta erakundeak sendotu behar direla.

Gomendioak.

Adostasun-guneak zabalak eta irekiak izan behar dira, parte hartzen duen gizarte zibilaren izenean, adostasunaren legitimotasuna bermatzeko.

Adostasun-gune batean parte hartzen duen gizarte zibileko erakundeek ardura hartu behar dute oinarriek parte hartu ahal izateko mekanismoak eta komunikazio-kanal eraginkorrak sortzeko eta erakundeak berak sendotzeko.

CCIPCARI (Nekazarien Ikerketarako eta Sustapenerako Zentroa) buruzko ondorioak, ikasketak eta gomendioak

5. ondorioa: CIPCAk gizarte zibileko hainbat talderen partaidetza sustatzearen aldeko apustua egin zuen, bereziki tradizionalki eskualdeko elkarrizketa politikotik baztertutako sektoreen zeregina indartuz

Piurako polarizazio sozialaren nabarmenaren aurrean, CIPCAk talde eta komunitate baztertuenekin lan egitea erabaki zuen. Eskualdeko produktoreak antolatzeko aholkularitza emateko eta horiek indartzeko, gaitasun indibidual eta kolektibo gutxi dituzten taldeekin lan egin behar da, eskualde mailako adostasun- eta partaidetza-guneetan sartu daitezzen.

Ikasketak.

Antolatzeke eta parte hartzeke gaitasun txikiak dituzten gizarte zibileko taldeak eskualdeko elkarrizketa politikotik baztertzen dituzte.

Garrantzi berezia du emakumeak parte hartu duten talde guztietan jasaten duen bazterketak.

Gomendioak.

Laguntzarako erakundeek baliabideak eta bideratze-lana eskaini behar dituzte, sektore baztertuenak adostasun-prozesuetan sartzea bultzatzeko.

Beharrezkoa da talde bakoitzaren barruko bazterketari eta, bereziki emakumeen bazterketari, arreta berezia eskaintzea.

6. ondorioa: Eragina izateko ahalmena edukitzeko, segimendu berezia egin behar izan diegu CORDAko kideei eta, bereziki gizarte zibileko ordezkariari, trebatzeko eta erabakiak hartzeko informazio garrantzitsua emateko

Adostasun-guneei dagokienez, CIP CAk bere gain hartu ditu gune horietako dinami- ken trebatzaile- eta sustatzaile-lanak, proposamenak sortzeko, elkarrizketa politikoa indartzeko eta gunea eraginkorra izateko. CIP CAk gaikuntza espezializatua eskaini die CORDAko kideei, eta erakundearen egunerokotasunean laguntza ematearen alde- ko apustua egin du, lanerako, elkarrizketarako eta negoziatziorako baliagarriak ziren tresnak emanez.

Ikasketak.

Trebakuntza-prozesuetan, kontuan izan behar da trebakuntza teknikoaren (es- pezifikoa, sektoreko elementuei dagokiona), trebakuntza metodologikoaren (adostasun-gunearen kudeaketa, negozioazio-tresnak eta eragina), komunika- zioaren arloko trebakuntzaren eta eragin politikoaren (testuingurua, lege-alder- diak, etab.) arteko oreka.

Trebakuntza-proposamenak talde bakoitzaren beharretara eta ezaugarrietara egokitu behar dira; kontuan izan behar emakumeak, nekazari-kolektibo bat, hi- ritarak... diren. Trebakuntza ematean eta bideratze-lana egitean, ezinbestekoa da ikuspegi politikoa sakontzea.

Gomendioak.

Adostasun-guneetan ordezkaturako gizarte zibileko taldeei eta kideei eskainita- ko eta proposaturako trebakuntza-prozesuetan, gai teknikoaren trebatzeko inber- titu behar da, baina baita prozesu metodologikoetan, eragin-prozesuetan, parte hartzeko prozesuetan eta testuinguruaren analisi-prozesuetan trebatzeko ere.

Trebakuntza-proposamen orok egokitze-prozesu bat behar du, zer kolektibori zuzentzen zaion eta zer behar espezifiko dituen kontuan izanda (emakumeak, nekazarien kolektibo bat, hiritar-talde bat...).

Beharrezkoa da adostasun-guneak bideratzen eta dinamizatzen dituen erakun- dearen gaitasunen sorreran inbertitzea.

7. ondorioa: Adostasun-gune hori sendotzeko, CIPCAk CORDAren zerbitzura jarri zituen haren historia, izen ona eta sinesgarritasuna

Garapenaren ikuspegi partekaturik ez izatearen eta adostasun-guneen helburuak betetzeko mekanismorik ez egotearen ondorioz, CIPCAk, erakunde bideratzaile gisa, aholkularitzarako eta trebakuntzarako eskaera handiagoa izan du. Eskaera horrek, baina batez ere, adostasun-guneetako partaideek CIPCAn jarritako konfiantzak agerian uzten du aipatutako erakundeak gune horretan duen garrantzia.

Ikasketak.

CIPCAk adostasunean giltzarri-lana egiten eta partaide guztientzako elkarrizketa- eta konfiantza-gune irekiak sortzen ikasi behar izan du.

Eskualdean CIPCAk izandako ibilbidea, sektorean pilatutako jakinduria eta urte hauetan guztietan kalitatezko lana egiten ahalegindu izana funtsezkoak izan dira bete duten zereginen.

Gomendioak.

Gune horien erakunde bideratzaileak jarraitzeko instituzional kritikoa eta proposamenetan oinarritua izan behar du gobernuarekin, eta errespetuzko elkarrizketa irekia mantendu behar du guneko partaide guztiekin.

Estatuaren eta gizarte zibilaren arteko elkarrizketa-prozesuak bideratzeko, beharrezkoa erakunde bideratzaileak sendotzea (ikerketa, eragin eta laguntza teknikorako, elkarrizketa politikorako, sinesgarritasunerako eta partaideen aurrean prestigioa izateko gaitasunak sortzea).

8. ondorioa: Eskualdeko gobernuak borondate politikoa adierazi du CORDAK gizarte zibilarekin hitz egiteko gune izaten jarraitzeko

Giza baliabideak, baliabide teknikoak eta aurrekontu-hornidurarik ez izateak zalan-tzan jartzen du gobernuak adostasun-gune horien sustatzaile gisa duen papera.

Ikasketak.

Adostasun-guneak herritarrekin harreman egonkorak eta konprometituak ezartzeko tresnak dira

Idazkaritza teknikoak funtsezko lana egiten du adostasun-guneen lanean.

Adostasun-guneetan egindako akordioak ez badira errespetatzen, ezin da adostasun-guneen gobernagarritasunerako eta legitimaziorako baldintzarik sortu, laborantza-garapenerako politikak sustatzeko gune izan daitezen.

Gomendioak.

Gobernuak elkarrizketarako eta negoziatorako gaitasun handiagoak sortu behar ditu gizarte zibileko talde antolatuekin.

Adostasun-guneen idazkaritza teknikoak sektorearen ezagutza sakona izan behar du, elkarrizketa politikorako eta kudeaketarako gaitasuna, eta dagokion lana egiteko baliabideak.

Beharrezkoa da segimendu-, egiaztatze- eta zigor-mekanismoak ezartzea, adostasun-guneetan egindako akordioak betetzeari dagokionez.

6. KAFEAREN SEKTOREA LIBERALIZATZEKO PROZESUA: BURUNDIKO GOBERNUA KAFE-EKOIZLEEN ERAKUNDEAREN AURREAN

6.1. Kasua ulertzea: kafearen sektorearen pribatizazioa Burundin

Burundi Afrika erdialdeko herrialde txiki bat, Galiziaren antzeko hedadura duena, gutxi gorabehera. Herrialde horren garapena nekazaritzan eta kafearen ekoizpenean oinarritu da ia nagusiki. Gerra zibila bizi izan zuen 1993 eta 2005 urteen artean, eta azken urteotan, herrialdea berreraikitzen ari da. Herrialdeak bi sistema ditu: sistema tradizionala, ahozkotasanak funtzio giltzarria duela, eta sistema demokratikoa, eta haren instituzionaltasuna. Horrez gainera, herria berreraikitze nahia gerra zibil batek eragindako sufrimendu eta minekin batera bizi da.

Testuinguru horretan, lehendakaritzaren 2005eko dekretu batek kafearen sektorea liberalizatu zuen. Eta Lehendakariak 2007an emandako hitzaldi batek erabat aldatu zuen kafearen jabetza-sistemaren osaera. Kafearen sektorea pribatizatzeak kafea ekoizteko prozesuetan eragile berriak sartzeko aukera ematen zuen. Beraz, pribatizazio horren inplementazio eta garapenean talde berriak txertatzeko eta haiek ere parte hartzeko aukerari bide eman zitzaion. Ekoizpen-kooperatibek espazio hori balitu zuten, gizarte-erakundeak lagun.

Hori zen aztertu den kasuaren testuingurua. Baina jarraian, testuinguruari buruzko elementu zehatzago batzuk aurkeztuko ditugu.

Burundiko kafearen sektorearen testuinguru politiko eta ekonomikoa

Burundiko kafearen sektorea pribatizatzeko lehenengo saiakerak 1993koak dira. Baina, urte horretan bertan, herrialdean gerra piztu zen, eta bizitza soziopolitiko guztia kolokan jarri zuen. Gerrak, oro har, herrialdearen garapen-prozesuak eten zituen, eta zehazki, kafearen sektorea pribatizatzekoa. 2000. urtearen inguruan,

Burundiko gobernuak berriro jarri zuen abian kafearen sektorea privatizatzeko programa.

Gobernuak 2000 eta 2005 urteen artean legearen barruan abian jarritako prozesu horretan, sektoreko eragileei mailetan parte hartzeko aukera eman zien. Liberalizazioa pixkanakakoa eta ahula izan zen, eta kezka nagusia zen nekazarien parte hartzea lortzea, kafea urtaroko eta bizirauteko labore bat dela kontuan izanik.

2000-2005 epean, gerrak herrialdea kolpatzen jarraitu zuen. Nazioartean berriz, kafearen prezioak gorabeherak izan zituen. Kafearen sektorearen barruan, desordena zen barne-antolaketaren ezaugarri nagusia. Desordena horren aurrean, nekazarien erakundeak neurketa-prozesuetan izaten zen iruzurra kontrolatu eta neutralizatzeko sortu ziren; izan ere, nekazari analfabetoek arazoak zituzten beren produktuen pisua kontrolatu eta pisu hura balio erreal bihurtzeko. Testuinguru horretan agindu zitzaion Inades-Formation elkarteari nekazariak antolatze ko. Inades Formation Burundi 1996an sartu zen kafearen sektorean, Burundiko Kafearen Bulegoak (OCIBU), garai hartan sektore hura kudeatzen zuen gobernu-erakundeak, antolatutako deialdi bat irabazi ondoren.

2005ean, Lehendakartzaren dekretuan oinarrituta, sektoreko kolektibo osoari kafearen sektoreko edozein mailatan aritzeko askatasuna onartu zitzaion. Sektorearen liberalizazioa egiazkoa zen. 2008an, gobernuak kafea garbitzeko lekuak eta kafeari mamia kentzeko eta kafea garbitzeko lantegiak saltzeko aukera aztertu zuen. 2009an, nazioarteko eskaintza aurkeztu zen.

Eta dinamika horren eraginez, OCIBUK, sektorea antolatu eta kudeatzeko arduraren egitura publikoak, bere agintea eta erantzukizuna nola aldatzen zen ikusi zuen. Une horretatik aurrera, OCIBU kalitatea kontrolatzeaz eta sektorea arautzeaz soilik arduratu zen. Bien bitartean, bi egitura berri sortu dira:

- **Kafearen Sektorea Arautzeko Agintaritzak**, ARFIC, 2009ko azarotik OCIBU ordeztu duena;
- **Kafearen lanbide arteko erakundeak**: ekoizleak, mami-kentzaileak, esportatzaileak, ikertzaileak, biltzaileak, garraiolariak...

Oro har, talde guztiek parte hartzea eta sektorean (maila batean edo bestean) arduratsua izatea da nahia eta elkarrizketa eta negoziazio jarraitua izatea haien guztien artean.

Botere publikoaren proposamenak: Lehendakariaren hitzaldia

2007an emandako hitzaldietako batean, Errepublikako Lehendakariak kafearen jabetza ekoizleena zela onartu zuen. Adierazpen horrek ekoizleek prozesuan izan dute kokapenari lagundu dio. Hitzaldi hartan, Lehendakariak erakutsi zuen ekoizten denetik esportatzen den arte, kafea ekoizten zutenena zela. Hitzaldi hark eragindako kritikak eta ondorioek adierazten dute zer funtzio bete behar duten gainerako eragileek.

Kafea ekoizten denetik esportatzen den arte ekoizleen kolektiboaren jabetzat hartzen onartzean, lehendakariaren hitzaldiak ahaztu egin zuen, edo ez zion onarpenik eman, kafea eraldatzeko prozesuan beste eragile batzuek egindako lanari, ekoizpenetik hasi eta esportazioraino. Zoritxarrez, nekazariak hitzez hitz hartu zuten Lehendakariaren hitzaldia, azterketa sakonik egin gabe. Ahozko tradizioak oraindik ere indar handia duen espazio batean, estatuburuaren hitza gai hari buruzko dokumentu ofizial baten parekoa zen. Beraz, ekoizleek hartutako jarre ra itxia neurritz jarri behar da zalantzan, ezin baita herrialde horretako errealitate garrantzitsu bat ahaztu: estatuburu batek emandako hitzaren balioa.

6.2. Eragindako eragileak

Kafearen ekoizpen-sektorea

Kafearen sektorea liberalizatzeko prozesuan, kafe-ekoizleek izan ziren dinamika-
ren erdigune. Sektoreko eragile nagusiak dira. Kafearen kolektibo hori izan ezean, ez legoke kafearen sektorerik. Liberalizazio-prozesuan, ekoizleen ekintzen eta parte hartzearen ezaugarriak hauek ziren:

- Ekoizleen arteko aldeak kafearen sektorean jokoan zer zegoen ulertzeko garaian.
- Ekoizpenaren jarraitutasunik eza eta motibazio-falta ekoizleen kolektiboan.
- Informazioa oinarriari atzean emateko zailtasuna, zegoen funtzioa erabat bete ez zuten federazioaren lidergoaren aldetik.
- Konfederazioaren eta federazioen baitako tentsioa kolektiboaren lana hobetzera bideratutako barne-baliabideen kudeaketari zegokionez.
- Sektorearen erreforma-prozesua ongi ulertzeko zailtasuna.

Inades-Formation erakundea

Burundiko Garapen Ekonomiko eta Sozialerako Institutu afrikarra, Inades-Formation Burundi, irabazi-asmorik gabeko nazio-elkarte moduan sortu zen 1974an. Inades-Formation International sare panafrikarreko kide da. Inades-Formation Burundi erakundearen misioa da landako biztanleei laguntzea beren garapenaren erronkan.

Inades-Formation Burundi erakundeak 3 lan-ildo ditu:

- **Nekazaritza-sektorea:** kafea, tea, kotoia...; nazioaren ekonomiarako estrategikoak dira. Sektore horiek dira herrialdeak bizirauteko duen aukera bakarra.
- **Landa-munduaren finantzaketa:** baliabide endogeno eta exogenoak mobilizatzea. Aurrezki-kreditu autogestionatua, beren garapenerako elkartasun-funtsa. Nekazariak nekazarietzat kudeatutako mikrofinantzen instituzioa.
- **Natura-baliabideen kudeaketa:** lurrag degradatzearen aurkako borroka, labore-soroak birgaitzea, ekoizpen-gaitasunak berrerabiltzea.

Inades-Formation erakundearen helburua da bere lanaren bidez nekazarien baldintzak, nekazarien erosteko ahalmena hobetzea. Sektorean egindako lanaren oinarria zen eztabaidatzeko espazio bat sortzea. Oraindik dauden kontraesanak edozein izanik ere, onartu behar da Burundiko gizarte osoan mantendu eta partekatu beharreko lorpen batzuk izan direla.

Inades-Formation elkarteak ekoizleei babesa ematen esku hartu du, antolatzen laguntzeko, eta bereziki, kafearen sektorearen liberalizaziori buruzko eztabaidan haien parte-hartzeko boterea areagotzen. Lan hori egitean, Inades-Formation erakundeak ikusi zuen kolektiboa urduritzen ari zela, eta pentsatzen zuela itxarondako erantzunak ez zirela garaiz iristen. Horrenbestez, batzuetan beharrezkoa izan zen produktoreen nahi zuten abiadura hura errealtatean gertarek zuten abiadurarekin harmonizatzea.

Inades-Formation erakundeak eginkizun hauek eraman zituen aurrera, besteak beste:

- Zuzentasunari buruzko sentsibilizazioa.
- Elkarteek sektorean duten funtzioari buruzko nazioko lantegi bat antolatzea.
- Irratsaioen bidez sentsibilizatzea; esperientzia sistematizatzea.
- Hausnarketarako eta erabakiak hartzeko lantegietan parte hartzea.

- Alokairu-gastuak eta estatuaren diru-laguntzak negoziatzea.
- Ekoizleei bilketa-zentroak kudeatzeko prestakuntza ematea.

Gobernua

Burundiko gobernua, Munduko Bankuaren eskaerei jarraiki, ekoizpen-sektoreetatik kanpo geratzea erabaki zuen. Erabaki hura 1993an hartu zuen, herrialdean gerra piztu zen urte berean. 2000. urtearen inguruan, programa hura berriro jarri zen abian. Liberalizazioa pixkanakakoa eta ahula izan zen, eta kezka nagusia zen nekazarien parte hartzea lortzea prozesuan, kafea utaroko eta bizirauteko labore bat dela kontuan izanik.

Gobernua eztabaida-, truke- eta hausnarketa-espazioak sortzeko ekimena bere egin du urte horietan guztietan; hau da, kafearen sektoreko eragileentzako hitzartze- eta negoziatze-espazioak. Horri dagoeneko aipatu dugun Errepublikako Lehendakariaren hitzaldia gehitu behar zaio, kafearen jabetza talde ekoizleari berriaz onartu zionekoa. Zoritxarrez, adierazpen harekin batera ez zen beharrezko neurri iritsi. Horrek nahaste etengabea sortu zuen eta sortzen du, oraindik ere, kafearen sektorean.

Gobernutik etorri diren ekintzen artean, prozesua bera errazten edo zailtzen duten ekintzen artean, hauek ditugu:

- Erreformen segimendu eta koordinaziorako batzorde bat martxan jartzea; batzorde horretan eragileak zeuden, kolektibo ekoizlea barne.
- Ekoizleak biltzen dituen OCIBUren administrazio-batzordeko kontseiluko ki-deak berritzea.
- Talde ekoizleari kafea zuzenean saltzeko baimena ematea 2007an.
- 2008an ekoizleei kafea zuzenean saltzeko baimena eteteko erabakiak sortzen duen kontraesana.

Kafe-esportatzaileen Burundiko Elkarte (ABEC)

ABEC egiturak Burundiko kafe-esportatzaileak biltzen ditu. Esportatzaile-talde hori munduan kafearen sektorean lan egiten duten multinazionalen ordezkaria da Burundin. Prozesuan izan duten eraginak honela laburbildu daiteke:

- Salmenta zuzenaren aurka agertu da: Munduko Bankutik (MB) eta Bujumburako Nazioarteko Diru Funtsetik (NDF) gertukoak dira.

- Eragileak “kriminalizatzeko” kanpaina bat egin dute (ekoizleen taldearen ordezkari diren bitarteko saltzaileak).
- Alearen mamia kentzen lan egiten duten nekazariak sentsibilizatu dituzte lana etxetik egitera; hala, lantegian geratzen zen ekoizpenaren diru-sarreraren % 72 behetik berrikusi da.
- **Lobbying** bat osatu du ekoizleen elkarteen aurka estatuko zerbitzu batzuei dago-kienez; esaterako, Nekazaritza eta Abeltzaintzako Probintziako Zuzendaritzak.

Garbiketa-estazioak kudeatzeko sozietateak (SOGESTAL)

SOGESTAL deritzenak garbiketa-estazioak kudeatzeko sozietateak dira 5 SOGESTAL daude (eta 25-32 garbiketa-estazio kudeatzen dituzte). Liberalizazio-prozesua abian jarri zenetik, garbiketa-estazioak saltzeko aukera mahai-gainean zegoen. Sektorea pro zesu osoan inguratzen zuen testuinguruak nolabaiteko desantolaketa sortzen zuen SOGESTALetan, eta kafeak lantegian galtzen zuen kalitatea.

Sektorea liberalizatze prozesuan hautemandako aurrerapenetako bat izan zen ekoizpen-sektorearen eta SOGESTALen arteko harremanak hobetu zirela, kudeaketak baterako izaten jarraitzen baitu. SOGESTAL eta OCIBUren arteko bilakaera ere positiboa izan da. Labur esanda, kudeaketako gardentasuna pixkanaka-pixkanaka finkatu zen.

Egungo zailtasuna da ez dagoela kontraturik ekoizpen-sektorearen eta SOGESTALen artean, dokumentuaren edukian ados jartzen ez direlako. SOGESTALeko agintarien arabera, ekoizleek ordaindu behar dute ekoizpen-kostua. Eta ekoizpen horren marjina SOGESTAL eta ekoizpen-sektorearen artean negoziatu beharko litzateke. SOGESTALEk ekoizpen-gastuaren zifrak erakutsi dituzte, baina ekoizleak kostu hori eta dagozkion gainerako zerbitzu-tasak ordaintzeko zalantza egiten du. Liberalizatzeko erreformaren eztabaidan, SOGESTALEk eta ekoizleen sektoreak gauzak egiteko moduari buruzko proposamenak aurkeztu dituzte, baina estatuak ez ditu kontuan izan.

6.3. Kafea liberalizatzeko prozesuaren ondorioak gizarte-erakundeetan

Inades-Formation erakundearen lana kafearen ekoizpen-sektorea antolatze prozesuan

Sektorean lanean aritutako 10 urteetan, oso lankidetzat estua izan da Inades-Formation eta sektoreko gainerako eragileen artean. OCIBUK, adibidez, Inades-Formation

erakundeari onart zen dio modu eraginkorrean esku hartu duela kafe-ekoizleen eskubideak defendatzen.

Inades-Formation erakundeak jarduera hauetan lagundu dio, eta oraindik ere laguntzen dio, ekoizpen-sektoreari:

- Batzar orokorrak egiten.
- Antolaketari eta testuinguruaren azterketari buruzko laguntza ematean.
- Eztabaidari buruzko hausnarketa hobe baterako laguntza teknikoa ematen (lantegiak).
- Irratsaioak antolatzen, hitza ekoizleei emateko eta erabakiak hartzen dituztenek haien ikuspegiaren berri izan dezaten.

Jarduera operatiboez gainera, aholkularitza jarraituko jarduerak ere egin dira.

Kafe-ekoizleek elkarrekin

Nekazari-elkarrekin garbitze-estazioen inguruan osatzen dira. Probintziako federazioak dituzte, eta nazioko konfederazio bat (CNAC). Kafe-ekoizleen erakundeak babes teknikoa ematen diete nekazariei, uzta hobetzeko kalitateari eta kopuruari dagokienez.

Haren ardurua nagusia da laguntza ematea eta ekoizleen lana hobetzea, eta ekoizleen elkarrekin inguruko herrialdeak bisitatzeko aukera ematen zaie, han zer egiten duten ikusi eta kafearen sektoreko lana hobetzeko.

Inades-Formation erakundeak antolatutako prestakuntza-saio eta -lantegietan oinarrituz, ekoizleek parte hartzeko dituzten gaitasunak areagotu egin dira, eta haien ulermen-maila ere hobetu da. Prestakuntza-saioek etapa hauei jarraitu zieten:

- Parte-hartzea erakundean.
- Mobilizazio kolektiboa.
- Sektorean duten lekuari buruzko hausnarketa (CNAC eta Inades-Formation).
- Beren interesak kontuan hartu ez direlako kexatu eta salmenta zalantzan jarritzen duten ekoizleen babesa.

Inades-Formationek egindako lanean, lidergoa osatzea zen federazioen eta konfederazioaren jarduera jakin batzuen helburu nagusia.

6.4. Gobernuaren eta gizarte zibilaren arteko elkarrizketa-prozesuaren emaitzak eta erronkak

Gobernuak sektorea privatizatzeke zuen nahia Munduko Bankuaren eta Nazioarteko Diru Funttsaren presioaren ondorio zen, herrialdeari bultzada berri bat eman eta hazkunde ekonomikoa izateko beharrak eragindakoa. Horiek horrela, liberalizazio-prozesuan, gobernuak kafearen transformazio- eta ekoizte-jardueretatik kanpo geratzea erabaki zuen, jarduera horiek ongi egin baitzitzakeen sektore pribatuak.

Kafea liberalizatzeke prozesuan, Burundiko gobernuak bere funtzioa mantendu du erreformaren, ikerketa zientifikoaren eta inputen kudeaketaren espiritua zabalitzen. Gobernuarentzat, eragile bakoitzak sektorearen barruan lortzen duen errentagarritasuna da bere kezka nagusia. Gobernuak, bere hitzetan, ez du guztia aldatu nahi izan, horren aurka egiten duenik bai baitago. Ekoizleak urduri jartzen dira, beste bitartekariak ere bai. Gobernuaren egitekoa eragileak lasaitzea da, elkarrizketari bide ematea. Botere publikoarentzat berarentzat ez da erraz sektorearen kudeaketan dituen pribilegio batzuk uztea. Baina prozesuan funtsezkoena izan da guztiek onartu dituztela oinarrizko printzipioak, joko-arauak, urduritasunak badauden arren.

Ezin da maila honetan behin betiko emaitzei buruz hitz egin, elkarrizketak aurrera jarraitzen baitu. Prozesuak aurrera egin ahala, gaizki-ulertuak desagertu egiten dira eta eragileen arteko konfiantzarik eza gero eta txikiagoa da. Laburbilduz, eragileen arteko elkarrizketa zintzoa pixkanaka-pixkanaka lortzen da, eta ekoizleek parte hartzeke duten gaitasuna handiagoa da egunetik egunera.

Hala ere, komeni da adieraztea gobernuaren aldetik garrantzitsua dela kafe-ekoizleei emandako hitza errespetatzea, eta bereziki, neurri populistak eta hitzaldi beteezinak ematea ekiditea, prozesua zaildu eta batzuen eta besteen fedea ona zapuztu baitezakete.

6.5. Helmugak: ondorioak, ikasketak eta gomendioak

Kafe-ekoizleen erakundeekin lotutako ondorioak, ikasketak eta gomendioak

1. ondorioa: Testuingurua aztertzea, hausnartzea, elkarrekin lan egitea eta aukerei etekina ateratzea, esperientzia honetan oinarrituta

Kafearen sektoreko ekoizleek herrialdean sektorea aldatzeko abian jarritako erreforma-prozesuan parte hartzea erabaki dute. Aurrekaririk gabeko aukera hori baliatu dute sektorearen etorkizunean modu aktiboan parte hartzeko erabakiak hartzen dituen klase politikoaren ondoan. Horretarako, asko nekazarien erakundeetan antolatu dira, eta helmen handiagoko elkartzemugimenduak ere sortu dituzte; esaterako, eskualdeko federazioak edo CNAC (Nazio Konfederazioa). Hala, herrialdeko ekoizleen % 20 antolatu da (600.000 familiatik, 100.000 antolatu dira). Egoera hori aztertzeko eta etorkizunari buruz hausnartzeko nahi sendo baten fruitua da, eta horrek antolaketa-prozesu bat eskatzen du ezinbestean, bai mendixkatan, bai probintzian, bai nazioan.

Ikasketak.

Testuinguruari etengabe begiratzeko eta ematen dituen aukerak ikusteko beharra. Elkarrekin egindako eta antolatutako lanak indartu egiten gaitu.

Gomendioak.

Testuingurua aztertzea gure ekintza aurrera eramateko aukerak identifikatzen eta balioztatzen saiatuz.

Taldeak antola daitezen animatzea, helburu partekatu bat dutela, negoziatzeko eta eragiteko gaitasun handiagoa izateko.

2. ondorioa: Prestakuntza etengabea: arrakastaren eta aldaketaren elementu giltzaria

Artikulazio hori erreala izateko, ekintza eta prozesurako erantzun ugari behar zituen, ordura arte isolatuta eta produktua lantzen buru belarri zebiltzan ekoizleentzat ezezagunak zirenak: hainbat mailatako mugimendu-elkarteak sortzea, aurrera egiten jarraitzeko funtsak bilatzea (bilketa-egoitzak eta -zentroak), batzarretan funtzionatzea erakunde horietako batzuek, baliabideen eta finantzen kudeaketa kontrolatzea, beste eragile batzuei eragiteko eta haiekin elkarrizketak eta negoziazioak izateko metodoak, erreformaren eta sektorearen fase guztien funtzionamenduaren berri izatea, etab.

Hala, ekoizleen kolektiboak Inades-Formation Burundiri lan egiten utzi dio, eta erakundeak lagundu egin dio, eta oraindik ere laguntzen dio, eta prestakuntza ere eman dio prozesu osoan zehar.

Ikasketak.

Garrantzitsua da egingo den prestakuntza jasoko duen subjektua ezagutzea; beste erakunde batzuetatik etorri daitezke haien erakundeak, ekoizpena eta politika indartzera.

Gomendioak.

Garrantzitsua da prestakuntza jarraituari irekita egotea.

Ekoizpen-sektoreari, antolaketari, negoziazioari eta legediari buruzko prestakuntza etengabea da prozesuaren giltzarria, baita hirugarren erakunde batzuekin ezartzen den harremana ere.

3. ondorioa: antolaketa indartu duten elementuak: legitimitatea, lidergoa eta komunikazioa

Azken urteetan, ekoizleek bere irudia indartu dute gobernuaren eta gizartearen aurrean, ara zoei aurre egiteko indarrak mobilizatzeko gai izan baitira: lantegiak saltzeko saiakerak; esportatzaileen kolektiboak eta lantegien arduradunek aurrera eramandako kanpainak, mugimenduaren adierazgarritasuna zalantzan jartzeko; eta, azkenik, gobernuak 2008an sektorea liberalizatzeko onartutako estrategia. Ara zo horiek, eta beste batzuek, manifestazio eta protesta etengabeak sortu dituzte, errekurtsoak epaitegietan, eztabaidak irratietan eta maila goreneko topaketak. Horrek baliozko solaskideen irudia eman dio ekoizleen kolektiboaren ordekaritzari, eta gobernuak errespetatu egin ditu.

Hala ere, ekoizle askok oraindik ez du ulertu erreformaren espiritua. Gobernuaren erantzukizuna eta betebeharra da erreforma-prozesua herritarrei modu egokian esplikatzea. Orain arte, ekoizleak sektorearen zati batzuk beste eragile batzuen eskuetan uztea negoziatzeko erresistentzia handia dago, ekoizleek beste eragile horiengan konfiantzarik ez dutelako. Konfiantza-falta hori iraganetik dator, ekoizleak sektorean etekin handirik atera ez zuelako: onuradun handiena esportatzaileen kolektiboa zen.

Urte hauetan zehar, ekoizleen taldeen artean hutsik gabeko lidergoa izateko behar handia izan da, ez baitira arra roak baliabideak gaizki kudeatu dituzten kasuak, edo zegozkion betebeharrak bete ez dituen lidergoak informaziorik ez ematea taldeei. Erakunde batzuetan aurkitu den baterako zalantza bat da erantzukizun-postu horietan izan den txandaketa ahula, eta horrek ekoizleen erakundeen konfiantzarik eza arrazoitzen du.

Ikasketa.

Erakundeen legitimitatea garrantzitsua da oso, eta hori dela eta, lidergo arduratsu bat behar da, elkarteko jendearekin eta komunitateekin elkarriketa erraz sustatzeko gai izango dena.

Gomendioak.

Ezinbesteko baldintza da erakundeen barne-lanaren eta ahaleginaren ideia kon-tuan izatea, eta bereziki zaintzea lidergoaren antolaketa demokratikoa, lidergoa indartu eta txandakatzea eta elkarteko kideekiko komunikazioa.

Gizarte-erakundeen legitimitatea zaintzea bai barrura bai kanpora begira, pre-s-takuntza eta komunikazio etengabearen bidez.

Inades-Formation Burundirekin lotutako ondorioak, ikasketak eta gomendioak

Inades-Formation gobernuak aukeratu zuen ekoizleen sektoreari laguntzeko prozesu osoan. Emaitza onak lortu ditu landa-lanean eta herrialdeko landa-inguruneari prestakuntza emateko lanean, gobernuarekin, nekazariekin eta beste eragile batzuekin dituen harreman onei eta haiekiko hurbiltasunari esker.

4. ondorioa: Bitartekaritza-erakundearen legitimotasuna onartzea

Inades-Formationek ekoizpen-sektorea mobilizatzeko gai dela erakutsi du. Hori prestakuntzaren eta irratiko eztabaiden bidez lortu du azken urteetan. Inades-Formationek komunikabideak menderatu ditu, arlo guztietako ordezkariak bilduz. Hori puntu garrantzitsua da, Saharaz azpiko Afrika irratiak zer rol duen kontuan izanik.

Era berean, erakunde horrek gobernuarekin eta sektorean haren ordekarari diren OCIBU, DPAE... elkarrekin sarrera- eta elkarrizketa-bide bat irekitzea lortu du. Gobernuaren konfiantza irabazi du, lana ondo egin duelako.

Gomendioak.

Komunikabideen bidez komunikazio ona izatea giltzarria da kokapenak arrazo itzeko eta gizarte-borrokari aliatuak mobilizatzeko eta haien babesa izateko.

Erakunde bitartekarien legitimitatea eta onarpena giltzarriak dira proposamenak aurkezteko garaian. Onarpen horrek bi aldetatik etorri behar du: oinarritzko komunitateen aldetik eta toki-erakundearen edo gobernuaren aldetik.

5. ondorioa: Esperientziak sistematizatzea

Inades-Formationek bere lanaren emaitzak dokumentuetan jaso ditu, ALBOANek dituen dokumentuetan ikus daitekeen moduan (Askatu nire hitza eta nire kafea loratu egingo da eta Hitz egin dezagun ahots bakar batez. Gure kafeak ekoitziko du). Hala ere, azken urtean esperientziak sistematizatzeko beste metodologia bat jaso du Inades-Formation erakundeak ALBOANetik. Metodologia hori azken lau urteetan (2005 – 2008) kafearen sektorean hitzartzea oinarri hartuta egindako lana sistematizatzeko erabili da; beste era batera esanda, pro zesua kapitalizatzeko.

Gomendioa.

Garrantzitsua da gizarte-erakundeetan datuak jasotzea eta ekintzen erregistroa egitea, eta azterketarako eta esperientzietatik ikasteko espazioak irekitzea eta baliabideak areagotzea.

6. ondorioa: Ekoizleen osoko prestakuntza-beharra

Inades-Formation erakundeko ordezkariak onartu dute kafe-ekoizleak antolatzeko prozesuan advocacy prestakuntzari lehentasuna eman zaiola, erreformaren espirituari eta edukiari buruzko informazioaren aurrean. Zoritxarrez, hori tresna juridikoen ezagutzaren eta horiek kolektiboarentzat eta sektoreko aurkariarentzat izango zituen ondorio errealean ezagutzaren kaltetan izan da. Prestakuntza-prozesu horren beste muga bat izan da batzuetan ekoizleek prozesua bera baino azkarrago joan nahi zutela pentsatu dutela, eta itxarondako epeetan ezinezkoa zela ekoizleen eskaera batzuei erantzutea.

Ikasketak.

Erakundeei prestakuntza emateko prozesuetan, prestakuntza teknikoaren (sektorearen elementuei buruzko prestakuntza espezifikoa), metodologiaren (antolaketa eta proposamenak kudeatzea, negoziazio-tresnak eta eragina), komunikazioaren eta politikaren (testuinguruari buruzko alderdiak, legeak, etab.) arteko oreka kontuan izan behar da.

Kontuan izan behar dira aldeek eskatutako lan-erritmo desberdinak, eta erritmo horiek ezin direnean errespetatu, ekoizleen kolektiboari horren berri ematea komeni da, eta arrazoiak esplikatzea.

Gomendioak.

Erakundeei eta/edo komunitateei eskaintzen eta proposatzen zaizkien prozesuetan, garrantzitsua da orekari eustea alderdi estrategikoen eta taktikoen, edukien eta metodologiaren, antolaketa ahaleginen eta kanpo-onarpenaren artean.

Funtsezkoa da eragindako eragileek zer itxaroten duten jakitea, baita esperientziaren garapen-erritmoaren eta haren arrazoen berri ematea ere, eragindako eragileen artean ilusio faltsurik ez sortzeko, eta, horrenbestez, porrotera eta motibazioa galtze ra ez eramateko.

Erakunde publikoekin lotutako ondorioak, ikasketak eta gomendioak

7. ondorioa: Ekoizleen taldearen funtzio berria txertatu dute, Lehendakariak onartua, eta normala iruditzen zaie haien ordezkariekin hitz egitea

Agintariak funtzio giltzarri bat izan dute prozesuan, Munduko Bankuak eskatutako erreforma-prozesuaren erdigunean baitaude. Horrenbestez, pentsatzekoa da prozesuari bide emateko funtzioa izan duela. Hori onartuta, egia da, halaber, oso zaila izan dela sektorean eragina duten eragile askoren pentsaera aldatzea, bereziki landa-eremukoena (DPAES, toki-prestakuntzako eragileak); izan ere, ekoizleak bere lanpostuetarako arriskutzat hartzen zituzten.

Ikasketa.

Aldaketa politikoak egiten unean, erreforma eta erreforma hori aurrera eramateko mekanismoak zehaztu behar dira, aldaketa ona izan dadin.

Gomendioa.

Antolaketa eta/edo egitura aldaketek aldaketarako proposamen politiko bat izan beharko dute, baita aldaketa hori aurre ra eramateko behar diren mekanismo eta tresnak ere.

8. ondorioa: Enpresari tradizionalaren klasearen (esportatzailea eta eraldatzailea) presioak ekoizleen kolektiboa bazterrean uzteko

Bistakoa da Burundiko gobernuaren politika eliteen mende dagoela. Tradizioz, herrialdeko botere ekonomikoa izan dute, eta kafearen sektorea ez da salbuespena. Horrek esplikatzeko du gobernuak izandako jarre ra aldaketak eraldatze-lantegiak saltzeri zegokionez edo ekoizpen-taldeak kafea zuzenean saltzeko aukerari zegokionez.

Gomendioak.

Aldaketa politikoak egin nahi direnean, eragindako eragile guztiekin negoziatu behar da ekimenak arrakasta izateko.

9. ondorioa: sektorean duen funtzio berria egiaz onartzea

Prozesuaren hasieran, askotariko hitzart ze-espazioak ireki behar ziren, baina ez da halakorik egin orain arte. Garrantzitsua litzateke gatazkan dauden kolektiboen (ekoizleak, bitartekariak, esportatzaileak) arteko elkarrizketan bilatzea konponbidea. Gobernuak alderdi bati soilik ematen dizkio pribilegioak: botere ekonomikoa dutenei.

Ikasketa.

Alderdi arteko elkarrizketa da aldaketa politikoak egin eta aplikatzeko akordioak lortzeko modu onena.

Gomendioa.

Alderdi guztien arteko elkarrizketa kontuan izan behar da politika espezifikoetan aldaketak sartzeko eta/edo haiek garatzeko.

7. AURRERANZKO BIDEA: ADIVASIAK ETA DEMOKRAZIA INDIAN. BHILODAN, GUJERATEN, INFORMAZIOA ESKURATZEARI BURUZKO LEGEA ETA LANDA ENPLEGUARI BURUZKO LEGEA INPLEMENTATZEKO EGINDAKO LANARI BURUZKO AZTERKETA

7.1. Kasua ulertzea: Bhilodako testuingurua

2005ean, Indiako Parlamentuak pobreen aldeko arau garrantzitsuenetako bi onartu zituen: landa Enpleguari buruzko Legea (NREGA) eta Informazioa Eskuratzeari buruzko Legea (RTI). Biak Indian demokrazia eraginkorragoa eta pobreen aldekoagoa izateko egindako gizarte-borroka luze baten emaitza dira, eta borroka horren gidaria, hein handi batean, gizarte zibila izan da. NREGA legeak ehun eguneko legezko bermea ematen die eskuzko lan publikoa egiteko prest dagoen landa-eremuko edozein etxetako heldu guztiei, eta, lan horrengatik, zehaztutako gutxieneko soldata jasoko dute. RTI legeak, berriz, Indiako herritar guztiek agintari publikoei informazio eskatzeko eskubidea dutela berresten du, eta agintari izak hogeita hamar eguneko epea izango du libreki erantzuteko. Azterketa honen helburua da Bhilodako misio jesuitak eta adivasien komunitateek hiru herri aukeratuetan bi legeak inplementatzea sustatzeko prozesuan izan duten rolari buruz hausnartzea; hiru herri horiek Budharasan, Ode eta Saliyat dira.

Jarraian, esperientziaren testuingurua, lege horien inplementazioaren eraginak eta esperientzia horrek eragindako ondorio, ikaskuntza eta gomendioak aurkeztuko ditugu.

Jendea eta haien lurra: landako adivasiak eta basoko biztanleak

Bhiloda Sabar Kantha eskualdearen bihotzean dago. Eskualde hori Gujerat estatuaren ipar-ekialdeko ertzean dago, eta Rajastan estatuarekin muga egiten du.

2001eko Indiako Erroldako¹⁶ datuen arabera, Bilhoda azpieskualdean (edo *talukan*) 206.000 bizilagun zeuden; 114.000 (% 55,3) adivasiak ziren, eta ofizialki, tribu onartutzat hartzen ziren. Kontuan izanik Gujerat estatuan 50 milioi bizilagunetik % 15 adivasizat hartzen direla, nabarmena da adivasiaren kontzentrazioa nahiko handia dela Bilhodako eremuan. Zehazki, esperientzia hau gauzatutako eremuetan, adivasiaren kontzentrazioa % 70 eta % 100 artekoa da.

Adivasiaren taldea ere India osoa bizitzen ari den modernizazio-prozesu azkarrean erabat murgilduta dago. Administrazioaren, legeen, erlijioaren, hezkuntzaren, kastaren, politikaren eta garapenaren bidez, korrante menderatzaileak xurgatua izateko prozesuan dago. Baina modernizatzeko eta korrante menderatzailean integratzeko prozesu konplexu hori ezin da prozesu neutralizat hartu, ezta iraganarekin loturarik ez duen prozesutzat ere. Izan ere, prozesu hori kultura-aurreiritzien, menderakuntza ekonomiakoaren eta Indiako gizarteetako tribuen zapalketa bortitzaren historia luze baten gainean eraikitzen ari da. Gujeraten, gainera, herrialdeko hazkunde ekonomikoaren indize azkarrenetako batekin eta eskuineko fundamentalismo erlijioso hindua azaleratzearekin bat egin du. Horrek guztiak aldaketarako kokapen zail batean jarri ditu Gujerateko tribuak, desberdintasunerako baldintza ideologiko eta egiturazkoek irauten duten bitartean.

Oro har, Bhiloda azpieskualdean azken 20 urteetan gizarte-aurrerapen garrantzitsu bat izan dela nabaritzen da. Aurrerapen hori faktore ugariaren eta parte hartu duten eragile eta prozesu ugariaren emaitza izan da. Faktore horietako bat da hezkuntzarako sarre ra zabala izatea, eta gurasoak gero eta kontzienteago izatea hezkuntza gizarte-aurrerapenaren funtsezko adierazlea dela. Prozesuari lagundion elementutzat adierazi da, halaber, hezkuntzak gobernuan lan egiteko aukera eman duela, bereziki armadan eta poliziaan, baina baita irakaskuntza-arloan ere, eta hala, adivasiaren komunitateetako kide batzuek beren bizimodua hobetu ahal izan dute, eta gizarte-mugikortasunean gorantz egin.

Gizarte-mugikortasuneko kasu apur horiek izan arren, eta gizarte-aurrerapen adierazle batzuk hobetu egin diren arren, pobrezia oso orokorra da adivasiaren kolektiboan, eta oso komunitate ahula da.

Bhilodako Dungri Garasias tribuaren kokapen-eredua nabarmena da haren sakanatzeagatik eta independentzia-zentzu biziagatik. Batasun sozial eta politikoa

¹⁶ Indiako errolda 10 urtetik behin egiten da. Hartutako referentzia 2001eko errolda izan da.

(baita herrixketakoa ere), mehatxuan dago, politika ekonomiko berriengatik, fundamentalismoagatik eta banaketa horiek manipulatu ohi dituztelako komunitat eak sekta erlijioso desberdinetan banatu nahi dituzten alderdi politikoeak, irabazi politikoak lortu ahal izateko.

Azkenik, aipatu behar da Bhilodan generoen artean tarte handia dagoela oraindik. Generoen arteko desberdintasunen alde nabarmenetako bat emakumeen arteko analfabetismo handia da, bereziki adindunen artekoa. Analfabetismoak klase-esplotazioaren aurrean ahul bihurtzen ditu emakumeak, eta eskubideetan modu eraginkorrean parte hartzea eta eskubide horiek baliatzea ere zaila egiten du horrek; adibidez, hiritartasuna erabiltzea. Bhilodaren inguruko herrixka gehienetan gizarte-eraketa praktikak batzuek irautea ere genero-desberdintasunaren adierazle garrantzitsu bat da; esaterako, *leej*, aurpegia tapatzea.

Bhilodako misioa eta AKY: 50 urte

La 50 urtez jarraian, Jesusen konpainiak hezkuntza- eta gizarte-jarduerak egin ditu Bhilodako *talukan*. Mankora-Bhiloda misioa Bhilodaren erdigunetik kilometro bakar batera dago, eta onarpen handiko instituzio bihurtu da eremu horretan. Hezkuntza-jarduera garrantzitsu horiegatik ez ezik, gizarte-garapenerako jarduerengatik ere badu ospe bikaina Bhilodako misioak. Gehienak Adivasi Kheti Yojna elkartearen antolatuta dira.

Adivasi Kheti Yojna (AKY) “adivasi lurraren proiektua” da, eta 1966ko abenduaren 20an sortu zen. Elkartearen memorandumean elkartearen helburutzat jasotzen da karitatearekin, gizarte-zerbitzuen sustapenarekin eta landa-garapenarekin zerikusia duten jarduera ugari egitea.

43 urteko ibilbidean, AKYk gizarte- eta landa-garapenerako jarduera ugari egin ditu, eta bilakaera eta aldaketa garrantzitsua izan ditu, Indiako gizartean izan diren antzeko beste aldaketa batzuekin batera eta landa-munduaren eta adivasi munduaren bilakaerarekin batera.

2006an, “Sabarkanthako adivasi gaitasunak eta norberarekiko konfiantza, batasuna eta osoko garapena eraikitze kontzientzia-prestakuntza” proiektua jarri zuen martxan AKYk. Herrixketan autolaguntza-taldeak sortzea proposatu zuen estrategiak gizon-emakumeak bereizi zituen, eremuko adivasi batasuna eta identitatea eraikitze eta sustatzeko lehen urrats moduan. Hurrengo urteetan, AKYk ildo horretan lanean jarraitu du, eta tokiko erakundeekin koordinazio hobea ere lortu du, kontzientziazioaren bidez (hurrengo atalean esplikatu dugu nola).

7.2. RTI eta NREGA: goitik begiratuta

Sarrera: aurretiatzko borroka luzea

2005ean, Indiako Parlamentuak pobreen aldeko arau garrantzitsuenetako bi onartu zituen: Informazioa Eskuratzeari buruzko Legea (RTI) eta Landa Enpleguari buruzko Lege Nazionala (NREGA). Bi legeak gizarte zibilak pobreen aldekoagoa den Indiako demokrazia eraginkorrago baten alde egindako borroka luzearen emaitzatzat aukerazten dira. MKSS erakundea Indian informazioaren eskubidea sustatzen aitzindarietako bat izan da.

Litekeena da gizarte zibilaren, GKEen, komunikabideen eta alderdi politikoen arteko adostasun-puntu bakarra hau izatea: aldarrikapen eta inplementazio indartsurik ezean, lege horiek estatutua apaindu bai, baina herritarrentzat balio txikia duten beste bi lege bihurtuko dira. Zalantzarik gabe, erronka inplementazioa da.

RTI legearen ikuspegi orokorra

2005eko Informazioa Eskuratzeari buruzko Legeak (22/2005 zenbakiko Legea) Indiako herritar guztiei gobernu orokorraren eta estatuetako gobernuen erregistroetarako sarrera aitortzen die. Lege horretako xedapenei jarraiki, agintaritza publiko bati (gobernuaren erakunde bati edo estatuaren instrumentu bati) informazioa eskatzen dion herritar orok hogeita hamar eguneko epean jaso behar du e rantzuna. Legeak, halaber, agintaritza publiko guztiei agintzen die erregistroak informatizatzeke, errazago zabaltzeke, eta informazioaren maila jakin batzuk modu aktiboan argitaratzeke.

Legeari jarraiki, legeak kontuan hartzen dituen agintaritza guztiek **Informazio publikoko funtzionarioa** (PIO, ingeleseko sigla) izendatu behar dute. Pertsona orok egin diezaioke eskaera bat PIOri informazioa idatziz jasotzeke. Eskaera beste agintaritza publiko bati badagokio (heine batean, edo osorik), PIOren ardura da eskaeraren atal interesdunak dagokion PIOari igortzea, gehienez ere 5 eguneko epean. Horrez gainera, agintaritza publiko orok Informazio publikoko funtzionario laguntzaileak (APIO, ingeleseko sigla) izendatu behar ditu, RTIrekin zerikusia duten eta bere agintaritza publikoko PIOei bidaltzekeak diren eskaerak eta helegiteak jasotzeke.

Informazioa ez bada ematen horretarako zehaztutako epean, eskaera ukatutzat hartuko da. Eta arrazoiren bat eman edo ez, uko hori helegite edo kexa bat aurkezteko arrazoa izan daiteke. Gainera, zehaztutako epeetan ematen ez den informazioa inolako kosturik gabe eman beharko da.

Legearen 26. artikuluan, Indiako Errepublikako gobernu zentralari nahiz estatuetako gobernuari agintzen zaie beharrezko urratsak egiteko helburu hauetarako: RTI ren arabera, desabantaila bereziak dituzten komunitateentzako hezkuntza-programak garatzea; agintaritza publikoak animatzea programa horiek garatzen eta antolatzen parte hartzeko, jendearen artean informazio zehatza egoki zabaltzea sustatzea; funtzionarioak heztea eta prestakuntza-materialak garatzea, Erabiltzailearen Gida osatzeko, dagokion hizkuntza ofizialetan; PIOen izenak, posta-helbideak eta harremanetarako datuak nahiz bestelako informazio oro argitaratzea (dagokien zerbitzu-sariari buruzko abisuak, eskaera bat ukatuz gero zer legezko irtenbide dauden, etab.).

NREGA legearen ikuspegi orokorra

Landa Enpleguari buruzko Lege Nazionala (NREGA) 2005eko abuztuaren 25ean atera zen. Finantza-urte bakoitzean ehun egunez enplegua izateko legezko bermea ematen die, eskuzko lan publiko ez-kualifikatua egiteko prest dagoen landa-eremuko edozein etxetako heldu guztiei, eta ordainetan, zehaztutako gutxieneko soldata jasoko dute.

Lege hori landa-herriek erosteko ahalmena hobetzeko onartu zen, eta Indiako landa-eremuetan bizi diren pertsonei lan kualifikatua edo erdi-kualifikatu ematen die nagusiki, pobrezia ren mailatik behera bizi edo ez. Hitzartutako lan-indarraren heren batek, gutxi gorabehera, emakumeak izan behar dute. Legeak ez du gizon-emakumeen arteko diskriminaziorik onartzen. Beraz, biek soldata bera jaso behar dute. Heldu guztiek eska dezakete lana, ez pobrezia ren mailatik bera daudenez soilik.

Obra publiko berriak aurretiaz dauden eskemen bidez lana eman ezin zaien 50 langile prest daudenean has daitezke. Eskemaren araberako lana ez bada eskaera jaso eta hamabost eguneko epean ematea, eskatzaileari diru-kopuru bat eman behar zaio eguneko, langabeziagatik.

7.3. RTI eta NREGA: behetik begiratuta

Aurrekariak

Legeak tokian-tokian aztertzeak erakusten du zer faktore konplexu dauden demokrazia praktikatzeko eta lan-eskubideak berresteko. Egia esan, ez dago berehalako erlaziorik lege bat onartzen denetik inplementatzen den arte; izan ere, ahalegin handia eta lan handi eta sortzailea egin behar da hura praktikan jartzeko,

legearen kalitatea edozein izanik ere. Aldarrikapena bermatuta dagoenean soilik izan daiteke eraginkorra, eta itxaroten diren inpaktuak sortu.

Gertaerak eta prozesuak: Budhasaran, Ode eta Saliyat

2006tik, AKYk modu aktiboan parte hartu du RTI eta NREGA legeak implementatzen Bhiloda azpieskualdean duen eragin-eremuan. Lege hori hiru herrixketan implementatzeko egindako jarduerak aztertzen baditugu, garrantzitsua da ikustea zer alde dagoen hiru herrixketako txanda-kopuruan eta informazio-eskaeretan.

Budhasaran

Budhasarango herrixketako biztanleek NREGA eta RTI legeei dagokienez aurrera eramandako ekintza kolektiboak NREGAko obrak egiteko 5 txanda ekarri zituen, eta 2006 aurrera egin ziren. Horrez gainera, Herriko Informazio Zentroa ireki zen 2009an. RTI legeari jarraiki, berriz, hiru informazio-eskaera garrantzitsu egin ziren: herrixkako eskolako obrei, anoa-dendari eta *Gram Panchayat*-eko obrei buruzkoak. Garrantzitsua da, halaber, herrixkak 162 etxetarako lurraren jabetza-eskubidea aldarrikatu zuela 2009an, Baso-eskubideei buruzko Legeari jarraiki.

Herrixkako jendearen testigantzari jarraiki, AKYk NREGAri buruzko prestakuntzarako funtsezko bilera bat antolatu zuen 2006ko azaroan, misioaren egoitzan, Himanshu Banker abokatuarekin. Prestakuntza hark Budhasaranen NREGA legeari jarraiki obra publikoak eskatzeko erabaki kolektiboa sustatu zuen. Herrixka familia-enpleguko txartelak lortzeko antolatu zen; horixe zen NREGA legearen araberrako obrei ekiteko lehen urratsa.

Gertatu dena desikaste-prozesu bat izan da, Budhasaranen aurretiazko esperientzietan oinarrituz garatutako obra publikoetako programei buruzko ezagutzei zegokienez. Desikaste-prozesu horretarako, herrixkako biztanleek eta AKYk funtzio garrantzitsu oso aktiboa hartu zuten, herrixkako jendea kontzientziazteko, eta bereziki, hezteko, jendearen soldatetan eragin zuzena izan zezaketen NREGA legearen xehetasunetan.

Oro har, herrixkako jendeak uste du NREGA legeak haien pobrezia arintzen laguntzen duela, eta aldi berean, landa-eremuko azpiegitura funtsezkoenetako batzuk eraikitzeke eta mantentzeko aukera ematen duela.

Budhasaranen, herritarrek funtzionarioek lan-txartelak emateko unean agertu zuten erresistentziari aurre egin zioten. Funtzionarioek NREGA legeak eskatzen duen administrazio-lanaren gainzamaren argudioa erabili zuten. Herritarrek,

ordea, inprimakiak beraiek betetzen hasi ziren, eta funtzionarioei sinatzeko soilik eskatu zieten.

RTI legea inplementatzeari dagokionez, Budhasarango herritarrek informazio-e eskubidea hiru aldiz baliatu dute, eguneroko hiru errealiteri buruzko informazio argi eta zehatza eskatzeko: eskolako obrak, anoa-denda eta *Gram Panchayat*.

Informazio-eskubidea aldarrikatzeak haien bizi-baldintzak hobetzen zituela ikusita, Budhasaran herrixkako buruzagiek RTI inplementatzen jarraitzea erabaki zuten, eta herrixkan Herritarren Informazio Zentro bat irekitzeko aukera aztertu zuten. Ideia hura buruzagietako batek Koliyari-ra, Rajastanera egindako bidaiara batean sortu zen. Herri hartan dagoeneko bazuten Herritarren Informazio Zentro bat. Itzultzean, ikusi zuenaz hitz egin zuen, eta gobernuak eta herrixkako buruzagiek Budhasaranen halako bat irekitzeko aukera eztabaidatu zuten.

Ode

Bi herrixketako pobrezia-mailak eta lanaren behar orokorrak antzekoak diren arren, Odeko bizilagunak bi txandatarako soilik antolatu dira. Hala ere, harrotasun handiz kontatu zuten 2009ko otsailaren 29an Herritarren Informazio Zentroa irekitzeko jarraitutako prozesua.

Beren eskubideak aldarrikatzeko eta ekintzak inplementatzeko garaian izan zituen oztopo eta zailtasun nagusiak identifikatzeko orduan, lantegietan parte hartu zuten lau taldeek hau adierazi zuten: “herrixkako pentsamoldea eta zurrumurrur faltsuak”. Horri dagokionez, aipatu zuten komunitateko kide batzuek, bereziki helduenek, barre egiten zutela. Herritarren Informazio Zentroko arduradunek aipatu zuten, gainera, auzoko batzuek hau errepikatzen zutela: “inoiz ez dituzue alabak ezkonduko etxea elkarte kristau bati alokatzen badiezue”. Azkenik aipatu zuten baso-saileko funtzionarioek norabide okerra eman zutela beren eskubideak aldarrikatzeko garaian; izan ere, eskaera-inprimaki okerrak (fotokopiak, ez jatorrizkoak) eman zizkieten. Prozeduran akats garrantzitsuak ere haute-man zituzten.

Saliyat

Saliyat hiruetan pobre eta urrunena da. Herritar gehienak lanean arituak ziren NREGA legearen bidez, eta legeari buruzko oso iritzi positiboa zuten; pobrezia arintzeko izandako eragina aipatu zuten, eta horrek inguruko herrietara edo *patelen* eremuetara joateko beharra murriztu zuela.

Herrixkan egindako obra publikoak ere oso modu positiboan baloratu zituzten: eguneroko bizitzan laguntzen dien zubi bat eraiki zuten.

Administrazio-prozesua argi deskribatu ezin izan zuten arren, jende guztia konturatu zegoen zer garrantzitsua den lan-txartela izatea eskubideak aldarrikatu ahal izateko. *Gram Panchayateko* kide batzuen funtzioaren berri ere eman zuten lehen hiru txandetan izandako zailtasunak konpontzeko, eta hori beren eskubideen nolabaiteko kontzientziazio-mailaren adierazle bat da.

7.4. RTI eta NREGA: barrutik begiratuta

Gertaera garrantzitsuak

Hiru komunitateek (Budharasan, Ode eta Saliyatek), azken emaitzetara iristeko bultzada eman duten zenbait une kritiko identifikatu ahal izan dituzte.

Prestakuntza, erakuste-programak edo -kanpamenduak

2005etik aurrera, prestakuntza-programak eta/edo erakuste kritikoak egin dira, eta buruzagien talde nagusi bati lagundu diete bi legei buruzko kontzientziazio eta ezagutza espezifiko handiagoa izaten. Zuzendaritza-taldeak nahiz animatzaile-leen taldeak “ezinbestekotzat” hartu dituzte prestakuntza horiek, bi legeak nola inplementatu behar diren esplikatzeke. Prestakuntza-ikastaro eta erakuste-bidaia horietako batzuek erabaki garrantzitsuak ekarri dituzte; izan ere, buruzagien taldeak, herritarrekin batera, eskubide horiek aldarrikatzeko erabaki kolektiboak hartu dituzte.

Prestakuntza-ikastaroak, erakuste-programak eta -kanpamenduak oso argigarritzat hartu dituzte herrixkako buruek, AKYko animatzaileek eta zuzendaritza-taldeak. Antzeko gizarte-lana egiten duten beste erakunde eta jendearekin harremanak izateko aukera nahiz esperientzia aitzindarietan aritutako jendea *in situ* bisitatzeke aukera ere oso estimatu dituzte.

Talde-erabakiak

Prestakuntza-jarduera horiekin hertsiki lotuta daude beren eskubideak inplementatzeko erabaki kolektiboak, nagusiki herrixkako zuzendaritza-taldeak edo auzokoen taldeak hartuak. Hauek aipatzen dira: prozesuaren arduradun 28 lagun izendatzeko erabakia; Ode eta Budhasaranek NREGA legearen arabera obrak hasteko, Herritarrentzako Informazio Bulegoa irekitzeko eta RTIri jarraiki hartutako erabaki giltzarriak. Erabaki horiek guztiak taldean hartu dira, eztabaida

zabalen ondoren. Halaber, garrantzitsua da aipatzea erabakiak hartzeko prozesu honetako lidergo funtzioa, eta gazte eta emakumek herrixkan hartutako funtzioa. Parte-hartzaile batzuek adierazi zuten erantzun hobekak lortu zituztela gazteen eta emakumeen aldetik adindunen aldetik baino, bereziki Oden, erabaki batzuk konfiantzarik ez eta zurrumurru faltsuak zeuden giro batean hartu baitziren.

Data sinboliko espezifikoengatik egindako bilerak edo ospakizunak

Mugarrien hirugarren kategoriak data sinboliko espezifikoengatik egindako bilera edo ospakizunekin zerikusia du. Kultura, musika eta dantza kontzientziazio eta hezkuntzarekin nahasten dira taldearen pozaren eta adivasi izatearen harrotasunaren egunetan. Parte-hartzaileek mugari garrantzitsu eta esanguratsuenetako bat argi identifikatu dute: adivasi nazioarteko lehen eguna ospatu zuten eguna, 2006ko azaroaren 9a. Emakumeen egunaren (martxoak 8) edo giza eskubideen egunaren (abenduak 10) ospakizunak ere identifikatu zituzten, eta Adivasi Mahasabha, beste estatueta adivasiarekin egindako ospakizuna (urtarrilak 14-15). Ospakizun horiek adivasiaren batasunari zentzua ematen dioten mugarriztat hartzen dira.

Oztopoak eta irekitasunak

AKYk azken urteotan RTI eta NREGA legeak inplementatzen parte-hartzerakoan izandako oztopo eta irekitasun nagusiei buruzko ikuspegi partekatua bat dago.

Kanpo-oztopoen artean, aipatzen lehenengoa da gobernuko funtzionarioen eta aukeratutako ordezkarien “ezagutzarik eza”, bereziki *talati* eta *sarpanchena*, RTI eta NREGA legeei dagokienez. “Ezagutzarik eza” hori “aldaketarako erresistentzia” orokorrekarekin eta “eremu eroso bat uzteko erresistentziarekin” ere lotu da, baita “boterea galtzeko beldurra rekin” ere. Beste batzuek boterearen kokapen jakin batzuetan zeudenen “interes ekonomikoa” aipatu dute, herrixkako ustelkeria zitala izan daitekeenaren onurak jaso baitituzte.

Barruko oztopo eta aukeren azterketa ere garbia izan da. Batasunik eza eta zatiketa dira AKYk herrixketan bilatu dituen barne-oztopo nagusiak. Zatiketa egiturazko aldagai eta barne-oztopo oso garrantzitsutzat hartu daiteke talde-ekintza bat lortzeko edozein ekimenetan. Ode herrixkari dagokionez, AKY erakundea “kristautzat” hartu izanak herrixkako jendeak parte hartu nahi ez izatea eragin zuen, eta adierazten zuten “ebanjelizatuak izateko” beldur zirela, baita “bakartuak izateko” beldur ere, kristauekin harremanak izateagatik (alabei buruzko iruzkina).

Aipatu diren beste barne-oztopo garrantzitsu batzuk: pentsamoldea eta buruko paradigmak aldatzea auzokoen artean gobernuaren lanari nahiz GKEen inplikazioari dagokienez. Desikasteko eta berriro ikasteko prozesu esan diezaiokegu: auzokoek desikasi behar izan zuten lanak ez zirela zoriaren opariak, baizik eta aldarrikatu eta borrokatu behar zituzten eskubideak. Gainera, GKEen eta AKYren lanari buruzko ikuspegia ere desikasi behar izan zuten: karitatean oinarritutako e rakunde izatetik, eskubidean oinarritutako erakunde izatera. Horrekin nolabait lotuta, oztopotzat hartu ziren kontzientziazio politikoaren maila txikia, hezkuntza-maila baxuak eta analfabetoekin lan egitearen zailtasun osagarriak. Generoen arteko tarte sakona eta emakumeek parte ez hart zeko izaten dituzten inhihitzaileak ere gizarte patriarkal eta maskulinoarekin lotutako oztopotzat hartu ziren. AKYren barne-indartzat hartu zen adivasien harrotasun eta batasunari zentzua ematen hastea, misioko aiten aldetik lortutako orientazio indartsua, haien loturak eta sareak adivasien beste erakunde batzuekin eta eskubideen erakundeekin eta jarduerak aurrera eramaten jarraitzeko finantza-laguntza jasotzeko aukera.

Emaitzak eta eraginak

RTI eta NREGA legeak inplementatuta lortu diren emaitzak eta inpaktuak hainbat mailatan eztabaidatu dira. Alde handia nabaritu dugu herrixketako bizilagunek eta herrixkako buru eta zuzendaritzako kideek erabilitako diskurtso-elementuetan. Azken horiek azterketa botere-harremanaren aldaketara eta taldearen ekintza eta batasun aukereta rabideratzen dute, tribu-identitatearen bidez. Herrixketako jendeak, berriz, ogibidean izandako eragin zuzenean jartzen zuten arreta.

Identifikatutako lehen eragina **batasuna** izan zen. Batasuna herrixkaren eta tribuaren batasun moduan azaldu da; herrixketara batasuna nola iritsi zen azaltzean, autolaguntza-taldeak nahiz NREGAko txandak inplementatzeko eta RTI legeari jarraiki informazioa garrantzitsua eskatzeko egindako talde-ekintzak aipatu zituzten. Ideia hori irudikatzen zuen esaldi esanguratsu bat lantegietako batean baliatu zen “kolektiboa hobea da” izan zen, eta “zuhaitz baten peko bilera” sinboloren erabilera erabatekoa izan da. Bestalde, batasuna tribu-identitatearen bidez aipatu dute, eta adierazi dute ospakizunek eta bilerek lagundu egin dutela tribu-identitatea indartzen eta gizarte-arlo desberdinetako adivasiak biltzen, baita “intelektualtzat” hartzen den kolektiboetako ere.

AKYk RTI eta NEGA legeak inplementatzen izandako inplikazioaren beste eragin bat **boterea hartzea eta botere-harrenak aldatzea** izan dela adierazi du, eta “boterea herraren eskuetan dago” esaldiarekin irudika daiteke. Botere-harremanen aldaketak

garapen-abantaila bat ematen die auzokoei, beren ahotik eta beren garapen-beharrei buruz hitz egiteko kokapen hobea baitute, baita interes eta beharretarako onuragarriak izan daitezkeen erabaki kolektiboak sustatzeko ere.

Eraginen hirugarren kategoria bat **bizi-baldintzak hobetzearekin** lotuta dago, diru-sarrerak sortzen dituzten jarduerekin hertsiki lotuta; esaterako, NREGAko txandak edo autolaguntza-taldeak. Eraginen kategoria hau auzokoen taldeek, herrixkako buruek eta zuzendaritza-taldeak eman dute.

7.5. Helmugak: ondorioak, ikasketak eta gomendioak

1. ondorioa: Gizarte-aldaketako prozesuetako “desikastearen” kostua

Gizarte-aldaketako prozesuetan, “desikastea” “ikastea” bezain erronka handia izan daiteke. Zama gehigarri bat eragiten du, eta kontzienteago izatea eskatzen du aurretiaz ikasitako jarrera, pentsaera eta jokabideak ekiditeko, zuzentzeko eta haien gainean eraikitzeko. AKYk “desikasteko” eta “berriro ikasteko” aparteko kostu hori bi zentzutan bereganatu duela uste dugu: GKE moduan, karitatean oinarritutako ikuspegitik eskubideetan oinarritutako ikuspegiarako trantsizioa eginez; eta gobernuak diruz lagundutako obra publikoen eskemei buruz kontzientziatzen laguntzen duen GKE moduan. Herrixketako biztanleek GKEek eta garapen-bidean dauden gobernuak duten funtzioari buruzko pentsaera “aldatzeko” erronkari aurre egin dio. Garapenerako eskubidea eta betebeharra herritarren eskuetan jarri ditu.

Sarre-murrizketarik gabeko autolaguntza-taldeak sortzea; taldeen artean jabetza-zentzua indartzea, antolaketa-era berritzaile baten bidez (AKY Bachat Mandal); interferentziarik eza; apaiz katolikoen ikusgarritasun txikiagoa, eta jardueren gunearen aldaketa. Guztiak funtsezkoak izan dira GKEei buruzko desikaste-prozesuan.

Horrez gainera, bi legeak implementatzen zuzenean esku hartu duten eragileek NREGA legeari buruzko kontzientziazio-prozesuan konpromisoa hartzeko kostu osagarriari aurre egin behar izan diete.

Laburbilduz, gizartea aldatzeko prozesuek, Bhilodako esperientziaren bidez deskribatutakoaren modukoek, aurretiazko pentsaera, jarra eta praktikekiko “desikasteko” kostua barneratu behar dute.

Ikasketa eta gomendioa eragile guztientzat

Ikasketa.

Aldaketa bat inplementatu aurretik, aurretiazko praktikak, pentsaerak eta jarre-
rak arretaz kontuan hartu eta aztertu behar dira.

Gomendioa.

Aurretiazko praktika, pentsaera eta jarrerei buruzko azterketa bat egitea gizarte-
aldaketaren bat eragin nahi duten proiektuak eta programak diseinatzean.

Ikasketa eta gomendioa AKY- Bachat Mandal elkartearentzat

Ikasketa.

Desikasi eta ikastea eraginkorragoa da komunitateko liderrek parte-hartze akti-
boa dutenean aldaketa-prozesuan.

Gomendioa.

Buruzagiek aldaketarako jardueetan esku hartzea ahalbidetuko duten estrate-
giak diseinatzea, bereziki esku-hartze berri baten lehenengo faseak inplementa-
tu nahi direnean.

Ikasketa eta gomendioa AKY-Misioarentzat

Ikasketa.

Eskubideetan oinarritutako ikuskeraranzko aldaketa egiten denean, “desikaste-
aren” kostua ebaluatu eta barneratu behar da.

Gomendioa.

Ikuspegiaren aldaketak eragin ditzakeen gaizki-ulertu edo arazoei aurre hartze-
a, eta asertibitatez erantzutea eta gatazkak sortzean aukerak ematea.

Ikasketa eta gomendioa nazioarteko komunitatearentzat

Ikasketa.

Testuinguru espezifiko batean aurretzako esku-hartzeen eragin negatiboak eta positiboak daude, eta horiek aztertu egin behar dira testuinguruan jarri aurretik.

Gomendioa.

Aurretzako eragin negatiboak ezagutzea eta ikuspegia beste moduren batera diseinatzea aukerarik dagoen aztertzea, eragin “negatibo” txikiagoa izan dezan.

2. ondorioa: Eskubideak talde-ekintzaren bidez aldarrikatzea estrategia giltzarri bat da

RTI eta NREGA inplementatzean eragileek izan duten parte-hartzeari buruzko ikasbide garrantzitsuenetako bat da talde-ekintza (kontzientziazioa, parte-hartzea eta negoziatzeko boterea areagotzen dituen) estrategia giltzarri bat dela funtsezko eskubide horiek errealak izan daitezen jendearentzat.

Ikasketak eta gomendioak eragile-talde guztientzat

Ikasketak.

Eskubideak talde-ekintzaren ikuspegi zabalagoan kontzeptualizatu behar dira.

Legeen zehaztasunen eta eskubideak aldarrikatzeko moduen berri izateko ikaskuntzaren kostua handia da, eta denbora asko eta askotariko bitartekoak behar dira hori inplementatu ahal izateko.

Eskubideak banaka eta/edo etxeka aldarrikatzeak oso kostu handia eta eragin txikia izan dezake.

Gomendioak.

Lege-esparru berriak ikastea eskatzen duten proiektuak diseinatzean, komeni da kontuan izatea zenbat denbora eta zer baliabide behar diren epe ertain eta luzerako prozesu horietan.

Talde-ekintza indartuko duten estrategiak identifikatu behar dira, eskubide indibidualak modu eraginkorrean inplementatu ahal izateko.

Ikasketa eta gomendioa AKY- Bachat Mandal eta AKY-Misioarentzat

Ikasketa.

Talde-ekintza guztien onarekin nahiz banakoen onarekin erlazio zuzena duten arazo eta beharren baitan antolatzen denean, autolaguntza-taldeek inplikazioa lortzen laguntzen dute.

Gomendioa.

Autolaguntza-taldeak eta beste jarduera sozioekonomiko batzuk sustatzea, talde-ekintza osatzen lagundu dezaketenak.

Gomendioa nazioarteko komunitatearentzat

Gomendioa.

Talde-ekintza indartzeko, jarduera sozioekonomikoen eta kontzientziazio-jardueren arteko artikulazio hobea sustatzea arakasta-estrategia bat da oso biztanleria pobre eta ahulekin lan egitean.

3. ondorioa: Batasuna tribu-identitatearen eta baterako interesaren bilaketaren bidez

Talde-ekintzak batasuna eta baterako eta antzeko interesak onartzea eskatzen ditu. AKYk Bhilodan erabat zatikatuta zegoen testuinguruari aurre egiteko erabili duen estrategia bat izan da eremu horretako adivasi guztien ezaugarri komun baten kontzientzia eta harrotasuna sustatzea: tribu-identitatearena, hain zuzen.

Tribu-identitatea nahiz herrikkarentzako helmuga sinplea bilatzea eraginkorrak izan dira adivasi kolektiboen arteko batasuna sustatzeko.

Ikasketak eta gomendioak eragile guztientzat

Ikasketak.

Argi identifikatu behar dira herritarrak biltzen dituzten elementuak, bereziki gizarte-zatiketak dauden testuinguru zatikatuetan.

Kulturak eta identitateak batasunerako bitartekotzat zer rol duten ezagutu behar da.

Kultura eta identitatearekin lotutako elementu sinbolikoek erakutsi dute tribuaren batasunari laguntzen dioten elementu estrategikoak direla; adibidez, ospakizunak, topaketak eta jaiak.

Tribuaren harotasunaren ospakizuna ez ezik baterako interesen bilaketa dakarren aurpegi ugariko ikuspegi baten bidez tribu-batasuna indartzea estrategia giltzarri bat izan dela ikusi da.

Gomendioak.

Mobilizazio-ekintzak garatzeko estrategikoa da eremuko tribuko pertsona giltzarraren parte hartzea areagotzea.

Tribu-identitatearen ezaugarri sinbolikoak erabili eta haietara jotzea, kultura-jarduerak sustatuz, estrategia bat da gaitik urrunen dauden kolektiboetara iristeko.

Komeni da komunitatearen barruan baliabide materialak eta ez-materialak partekatzeko espazioak eta moduak sortzea, batasuna lortzeko.

Ikasketa eta gomendioa nazioarteko komunitatearentzat

Ikasketa.

Kulturaren eta identitatearen osagai sinbolikoak garapen proiektuetan/programetan hobeto integratu behar dira.

Gomendioa.

Zatiketa handia dagoen testuinguruetan, kultura eta identitatea integratzeko estrategiak diseinatu behar dira, batasuneranzko bidea egiten lagundu dezaten.

4. ondorioa. Jabetza eta lidergoa itzultzea, komunitate-antolaketa- estrategia jasangarritzat

Garapen-prozesuen eta eskubideen komunitate-jabetza funtsezko abiapuntu bat da gizarte-sareetan arrakastaz inplikatzeko. AKYk (misioak) herriari jabetza itzultzeko egindako prozesu arduratsua AKYren Bachat Mandal-ekin sortutako antolaketa-egituraren baitan oinarrituta antolatu da. Herrixkan lidergoa autolaguntza-taldeen inguruan sustatzea ere abiapuntu bat izan da talde-ekintza eta jabetzarako beharrezko batasun-zentzua garatzeko.

Ikasketa eta gomendioa eragile guztientzat

Ikasketa.

Komunitateek demokratikoki bereganatzea beharrezkoa da talde-ekintza modu eraginkorrean eta osasuntsuan antolatzeko.

Gomendioa.

Komunitateekin lan egitean, komunitateengandik ahalik eta gertuen dauden antolaketa-moduak garatu behar dira.

Ikasketak eta gomendioak AKY- Bachat Mandal elkartearantz

Ikasketak.

AKY Bachat Mandal-en Zuzendaritza Kontseiluaren askotariko osaerak erakundearen legitimitatea eta adierazgarritasuna areagotu du.

Autolaguntza-taldeen lidergoa herri-talde baten baitan antolatzeak antolaketa-formularen eta lurralde adierazgarritasunaren eraginkortasuna areagotzen du.

Gomendioak.

Lidergoa bereganatuko duten taldeak sortzeko orduan, inguru horrentzat adierazgarriak izatea komeni da, haien legitimitatea handitzeko.

Autolaguntza-taldea antolaketa eta lurralde adierazgarritasuneko oso estrategia eraginkorra da.

Ikasketak eta gomendioak AKY-Misioarentzat

Ikasketak.

“Jabetza” komunitateei itzultzea eskubideetan oinarritutako ikuspegirantz egiteko estrategia arrakastatsua dela egiaztatu da.

AKY Bachat Mandal-i laguntza estrategikoa, finantzarioa eta logistikoa ematea elementu giltzarri bat izan da bi legeak inplementatzeko orduan.

Gomendioak.

Gizartea aldatzeko prozesuetan, epe ertain eta luze rako laguntza estrategikoa eta finantzarioa eman behar da.

Tokiko elkarteek finantzaketa-iturriak dibertsifikatu eta epe ertain eta luzerako plangintza egin dezaten sustatzea komeni da.

Ikasketa eta gomendioa nazioarteko komunitatearentzat

Ikasketa.

Eskuratze demokratikoa eta tokiko lidergoa elementu giltzarria da antolaketa komunitariorako.

Gomendioa.

Komunitateko erakundeak demokratizatzeko prozesuak eta lidergoa sendotzeko prozesuak erraztu eta babestu behar dira.

5. ondorioa: Kontzientziazioa: denbora, iraunkortasun eta emaitza kontua

Badirudi erlazio bat dagoela hezkuntzaren eta kontzientziazioaren artean. Hala ere, erlazio hori ez da automatikoa: hezkuntza formaleko maila altuena izateak ez du bermatzen eskubideei buruzko kontzientziazio handiena izango denik. Heziketa handiagoak jendea hobeto prestatu dezake parte-hartzearen konplexutasuna ulertzeko eta demokrazia praktikatzeko, baina hezkuntzak ez du demokrazia “erosten” ezinbestean. Aldi berean, giza analfabetismoak eta ahultasunak ez dute, ezinbestean, eskubideei eta demokrazian parte-hartzeari buruzko kontzientziarik edo ulermenik eza adierazten. Zail eta itogarriagoa izan daiteke kontzientziazio-prozesua, baina erakundeen eskuetan dago hori lortzeko estrategiak garatzea.

Esperientziak erakutsi du kontzientziazioa denbora, iraunkortasun eta emaitza kontua dela. Herrixketako jendeak lanerako eskubidea errealitate bihurtzen dela ikusten eta bizitzen duenean, eta hori taldean eskatu behar dela eta arau batzuk dituela ikusten duenean, kontzientziazioa eraginkorragoa da.

Ikasketak eta gomendioak eragile guztientzat

Ikasketak.

Kontzientziazioa ikuspegi multianiztunetik landu behar da, eta arreta berezia jarri behar da emaitzak aurkeztean.

Analfabetismo orokorrari, bereziki emakumeen artekoari, aurre egin behar zaio, eskubideei buruzko kontzientziazio-mailak areagotzeko.

Gomendioak.

Eskubideetarako sarreraren eta haiek abian jartzearen eta banakoaren nahiz taldearen bizi-baldintzen hobekuntzaren arteko erlazioa nabarmentzen duten kontzientziazio-estrategiak diseinatu behar dira.

Analfabetismoaren aurkako borroka urrats giltzarri bat da parte-hartze prozesuetarako eta herritarren inplikazioa lortzeko.

Ikasketa eta gomendioa AKY- Bachat Mandal eta AKY-Misioarentzat

Ikasketa.

Zuzendaritza Kontseiluko kideek, dagokien komunitatean, prozesua gertutik monitorizatu behar dute.

Gomendioa.

Buruzagien parte-hartzea sustatu behar da jardueretan, legitimazio eta ikaskuntza handiagoak lortzeko.

Ikasketa eta gomendioa nazioarteko komunitatearentzat

Ikasketa.

Eskubideei buruzko kontzientziarioa helmen luzeko eginkizuna da.

Gomendioa.

Kontzientziario-praiektuek eta/edo programak epe luze rako finantza-eskemak garatzea eskatzen dute.

6. ondorioa: Ezagutza: prestakuntza eta sareko lan kontua

AKYk Bhilodan izandako esperientziak erakutsi du legeak ezagutzea ere, eta ez haiei buruzko kontzientziazio orokorra izatea soilik, funtsezkoa dela azterketan jasotzen diren historia arrakastatsuetarako. Ezagutza hori prestakuntza-jardueretan eta sareko lanetan lortu da (erakuste-eremuak, beste erakunde batzuekin egindako lankidetzahaleginak, trukeak) eta herrixketako buruzagiek, animatzaileek eta zuzendaritza-taldeak oso positibotzat hartu dituzte. Ezagutzak konfiantza eta segurtasuna eman dizkie herrixketako buruzagiei gobernuko funtzionarioen eta ordezkari hautatuaren erresistentziari aurre egiteko, boterea herriaren eskuetan jarritz. Emaitez, gainera, herrixketako bizilagunen kontzientziazioa areagotu dute.

Ikasketa eta gomendioa eragile guztientzat

Ikasketa.

Legezko arauen edukiak ongi ezagutzeak komunitateak ahalduntzen ditu.

Gomendioa.

Eragile guztien lege-ezagutza indartzeko estrategiak diseinatzea.

Ikasketa AKY- Bachat Mandal elkartearentzat

Ikasketa.

Zuzendaritza-taldeko kideen eta tokiko buruzagien zenbait esku-hartze giltzarri eraginkorrak izan dira legeak arrakastaz inplementatzeko.

Ikasketa eta gomendioa AKY - Misio eta komunitatearentzat

Ikasketa.

Misioak sarean lan egiteko eta legearen beste profesional batzuekin harremanetan jartzeko izan duen gaitasuna oso eraginkorra izan da lankidetzarik ezari eta itoguneei aurre egiteko.

Gomendioa.

Toki-erakundeen sareko lana babestu eta sustatzea.

7. ondorioa: Generoa: isileko kontzientziaioa?

Genero-desberdintasuna munduko fenomeno bat da. Patriarkatua sakon erotuta dago komunitate osoarengan, eta gure jarrera indibidualen eta kolektiboen zati handi bat menderatzen du. Bhiloda ez da salbuespena. Desberdintasunaren nabaritasun ikaragarria dago; horren adibide dira analfabetismoaren indizea emakumeen artean gizonen artean baino handiagoa izatea edo oraindik indarrean dagoen *Leej* praktika.

Baina genero-desberdintasunaren alderdi harrigarrienetako bat da herrixketako e remu garrantzitsuetan emakumeek duten isiltasuna. AKYk emakumeen ahotsak entzunarazteko ahaleginak egin arren, amakasta-indizeak txikiak izan dira; horri aurre egiteko estrategiak, berriz, ezezagunak AKYrentzat. Hala ere, buruzagiek eta zuzendaritza-taldeak onartu dute isiltasun horrek ez zuela adierazten emakumeak ez daudunik kontzientziazatuta. AKYk egiaztatu du emakumeak eta gazteak jarduera berritzaileen defendatzaile sutsuenen artean daudela.

Ikasketa eta gomendioa talde guztientzat

Ikasketa.

Emakumeen parte hartzea aktiboa da, egiturazko mugak izan arren.

Gomendioa.

Presakoa da genero-ikuspegia kontuan hartzea esku-hartzearen ikuspegietan, eta hura kultura-testuingurura doitzea.

Ikasketa eta gomendioa AKY- Bachat Mandal elkartearentzat

Ikasketa.

Emakumeak Zuzendaritza Kontseiluan parte hartzen ari dira.

Gomendioa.

Adierazgarritasun txikiko testuinguruetan emakumeek ordezkaritza izateko estrategia eraginkor bat da emakume eta gizonen bidezko parte-hartzea izatea ordezkaritza-kontseiluetan.

Gomendioa AKY-Misioarentzat

Gomendioa.

Erakundearen bera ren zailtasunak gainditzeko, estrategikoa da sarean lan egi-tea emakumeen beste erakunde aktibo batzuekin, proiektuetan genero-ikuspe-gia txertatuko duten baterako estrategiak garatzeko.

Gomendioa AKY-nazioarteko komunitatearentzat

Gomendioa.

Kontzientziatio-programak garatzean, emakumeen gaikuntza-behar espezifikok kontuan izan behar dira.

8. ONDORIOAK

Aztertutako esperientzietan aberastasun handia dago. Hiru herrialdetako lau esperientziari buruz hitz egin dugu. Bi Perukoak dira, bat, Indiakoa, eta beste bat, Burundikoa. Munduan herritarren parte-hartzeari buruzko milaka esperientzia daude. Inolako zalantzarik gabe, azterketa honetan hainbeste esperientziak osatzen duen aberastasunaren zati bat soilik jaso ahal izan dugu.

Lau kasu soilik direlako nahiz hurbilpen orok esperientziak osorik jaso ezin dituelako, gure asmoa ez da jarraian aurkezten ditugun ikaskuntza eta gomendioak Perun, Burundin eta Indian gauzatzen ari diren parte-hartzearen esperientzia anitzetara hedagarriak izatea. Hala ere, hainbat kontinentetako esperientziak erkatzeak baieztatu digu elementu batzuk errepikatu egiten direla, eta elementu horiek giltzarriak direla gizarte zibilaren eta estatuaren arteko parte-hartze prozesuetan. Hori dela eta, hausnarketa- nahiz jarduera-urrats hauek aurkeztera animatzen gara, parte-hartzeko espazioetan murgildu nahi duenarentzat.

Ondorio eta gomendio hauek aurkezteko, gure ikerketa-proposamenaren hiru atalak aipatuko ditugu. Hasteko, parte hartu nahi izatearen ideia-aren pean laburbiltzen dugun herritarren parte-hartzea motibatze eta parte-hartze hori praktikan jartzeko ikaskuntzak eta gomendioak aurkeztuko ditugu. Jarraian, parte hartu ahal izateko ideiarekin lotutako ikaskuntzak eta gomendioak aurkeztuko ditugu. Jendeak parte har dezan laguntzen duten eta aukera hori ematen duten mekanismo eta proposamenei erreparatuko diegu. Hirugarrenik, parte hartu ahal izateko aukera ematen duten espazioei buruzko ikaskuntza eta gomendioak aurkeztuko ditugu; parte hartzeko espazioei eta gizarte zibilaren eta estatuaren arteko hitzartze-espazioei buruzkoak. Eta, bukatzeko, prozesuan nazioarteko

lankidetzari eta partaidetza- eta adostasun-proposamenei ematen dien laguntzari buruz sortutako gomendioei buruz arituko gara.

Esperientzia guztietan, ondorioztatu dugu testuinguruaren elementuak funtsezkoak direla herritarren adostasun- eta partaidetza-esperientziak bideratzeko edo oztopatzeko. Ezinbestekoa da, beraz, partaide guztiek, aldizka, testuinguruari erreparatzea eta aztertzea, partaidetzarekin eta adostasunarekin lotutako estrategiak martxan jartzen edo mugatzen dituzten elementuak detektatzeko.

8.1. Herritarren partaidetza: hasteko, parte hartzeko nahia

Herritarren parte-hartzearen eta inplikazioaren borondate ona ez dute, hasiera batean, pertsona eta kolektibo guztiek ikusten. Batzuek ongi ikusten dute parte-hartzea eguneroko arazoak konpontzeko, eta publikoa dena kudeatzeko estrategia interesgarritzat hartzen dute. Beste batzuek, berriz, ez aldaketarik ez etekinik ematen duen ahalegin osagarritzat hartzen dute.

Hori dela eta, taldeak sentsibilizatu eta kontzientziatu behar dira, parte hartzearen ekarpenez jabetu daitezzen. Kontzientziazioa epe ertain eta luzerako lan bat. Eta horretarako, aztertutako esperientziei jarraiki, denbora behar da, iraunkorrak izan eta parte hartzeari buruzko emaitza zehatzak eskaini. Aztertutako esperientzia askok beste esperientzia batzuk eta haiek jendearen eguneroko bizitzan izan dituzten eraginak ikusi eta ezagututa mobilizatu dute jendea parte-hartzera. Kontzientziatze-lan horretako erronka argi eta giltzarri bat da arreta berezia jartzea baztertuen daudenengan, eta haiengana modu berezian gerturatzea. Aztertutako esperientzia batzuetan giltzarria izan da emakumeekin eta generori buruz egindako lan espezifikoa, emakumeak parte-hartzearen eragiletzat har daitezzen. Garrantzitsua da emakumeek eragiletzat hartzea beren buruak eta hala jokatzeari; garrantzitsua da, halaber, beren komunitateek ekarpen handiak egin ditzakeen kolektibotzat onartzea.

Parte-hartze hori motibatuzko, esperientzien azterketan agertu den elementu giltzarri bat da talde-identitatea eta interes bera duen kolektibo bat izatea. Kasu gehienetan, errespetatzen ez ziren eskubide batzuk aldarrikatzeak identitate eta baterako komun hori talde-ekintza bihurtzea eragin du, eta ekintza horietan parte-hartzea bitarteko giltzarria izan da errespetua lortzeko eta eskatutako eskubidea edo eskubideak praktikan jartzeko.

Alde horretatik, beharrezkoa da parte hartzeko guneak eta prozesuak sustatzea komunitateen barruan, haien kideek, gertuen dituzten esparruetatik, partaidetza

berreganatu dezaten eta parte hartzen dezaten. Partaidetza motibatzeko, funtsezko elementuak dira, edozein esparrutan, herritarrek parte hartzeko izandako esperientzia positiboak. Esperientzia positibo horiek komunitate baten esperientziatik edo beste komunitate batzuen esperientziatik sor daitezke. Alde horretatik, beste toki batzuetako arazoetan parte hartzeko, kudeatzeko eta arazoei aurre egiteko izandako praktika arrakastatsuen esperientziak bisitatzeak eta ezagutzeak eragin handia du komunitateen barruan partaidetza-prozesuak eratzeko orduan.

Partaidetza garapen- eta hazkuntza-prozesu indibidual eta kolektibo moduan ikusi eta sentitu behar da. Talde-osagaia ere arrakastarako baldintza bat da parte hartzean bertan. Pertsona batek egoera batean eragiteko eta hura aldatzeko duen gaitasuna mugatua da; talde baten kasuan, arrakastarako aukera handiagoa da, baita parte-hartzearen zama arinagoa izatekoa ere. Horrez gainera, prozesu parte-hartzaileek taldearen ordezkariaren garapenari lagundu ez ezik, taldearengan ere izan behar dute eragina, ordezkariak eta parte-hartze horrek zentzurik galarik ez duen, edo zalantzarik ez duen.

Konturatu behar dugu sentsibilizazio- eta kontzientziazio-lana ez dela amaitzen gure kolektiboak edo komunitateak prozesu parte-hartzaileari ekiten dionean; izan ere, batetik, aztertu behar da nire taldearen barruan talde edo pertsona guztiak parte hartzeko aukera berak izaten ari diren, eta, bestalde, beste kolektibo batzuk sartu behar dira hitzartze-prozesuetan. Parte hartzeko espazioak eragindako talde guztiei dei egiten dienean, eta ordezkariak zabaldu daitekeenean, erabaki egoki eta zuzenagoak hartu ahal izango dira, eta parte-hartzeko espazioak legitimitate handiagoa izango du. Alde horretatik, gure iritziz, arreta berezia eskaini behar zaie beti parte hartzeko gaitasun eta aukera gutxien dituzten kolektiboak.

Aurkeztu ditugun esperientziak baztertuta zegoen biztanleria eraginkortasunez berreratzeko prozesu errealek dira. Kolektibo jakin horietako batzuk sartzeko, zenbait ikasketak sortu ditugu. Dagoeneko aurkeztu duguna laburbilduz esango genuke landa-taldeen kasuan esperientzia arrakastatsuek izan direla, eta arazo tekniko espezifikoak irtenbidea parte-hartzearen sustapenarekin bateratu dutela. In kolektibo guztiak inplikatzeko, partaidetza arazo jakinak konpontzeko mekanismo edo bitarteko gisa aurkeztea komeni da, edo, arazo jakinak konpontzeko, kezka eta sentsibilitate guztiak bere baitan hartzen dituen mekanismo gisa. Alde horretatik, landako emakumeen kasuan adierazten da zer interesgarria den haien baldintza ekonomikoak hobetzea prozesu produktiboen bidez, eta aldi berean, parte-hartze politikoa eta herritarra indartzea.

8.2. Parte hartzen jakitea: ikastea eta desikastea baldintza bat da eragindako erakunde guztientzat

Parte-hartzeko prozesuak jendearengana, beste talde batzuegana etengabe irekitzea eskatzen du. Eta irekitze horretan etengabe ikasten eta desikasten dute eragileek: egiteko modu berriak, harremanak izateko modu berriak; eta proposamen berriak. Egiteko modu batzuk, ikuspegi eta irtenbide tradizional batzuk desikastea ere eskatzen du.

Prestakuntza, dagoeneko aipatu dugun moduan, estrategia giltzarri bihurtzen da parte hartzea eta ikaskuntza gauzatzeko. Parte hartu nahi izateaz gainera, nola parte hartu jakin behar da. Parte hartzeko forma berriak ikasteko, kultura arteko, genero arteko eta belaunaldi arteko onarpenera behar da, parte hartzeko modu tradizionalak parte hartzeko modu instituzionalizatuagoetan txertatzeko aukera izateko, baita parte-hartze instituzionalizatuaren ibilbiderik egin ez duten taldeek zenbait trebetasun eta gaitasun bereganatzeko, haien parte-hartzea ahalbidetu ahal izateko, beren proposamenak defendatzeko eta beren proposamenekin arrakasta izateko beharrezkoak diren bitartekoak erabiltzeko.

Aztertutako esperientzia gehienetan, prestakuntza hori bitarteko erakunderen batek eman du. Erakunde hori egotea aztertutako esperientzia horien baldintzeta-ko bat zen. Erakunde horiek prestakuntza, orientazioa eta aholkularitza eman dizkiete gizarte zibilaren eta estatuaren arteko hitzartze-espazioei eta parte hartzeko espazioei. Beraz, ezin dugu baieztatu hitzartze-espazioetako bitarteko erakunde horiek beharrezkoak direnik, baina esan dezakegu aztertutako esperientzietan rol garrantzitsua bete dutela: gizarte zibilaren nahiz estatuaren gaitasunak sendotu dituzte, eta aholkularitza eta laguntza eman diete bi alderdiei.

Bitarteko erakundeak hitzartze-prozesuetan egoteak aukera berriak sortu ditu kasu guztietan. Ezagutza tekniko espezifikoak ematen eta elkarlanerako konfiantzazko gune bat sortzen lagundu dute erakunde horiek. Eragile horien laguntzarekin, posible izan da oinarrizko arazoak identifikatzea eta arazo horientzako irtenbideak proposatzea. Dena den, haien rola eraginkorra izateko, bereziki zaindu behar izan dira horizontaltasun-harremana komunitateekin, taldearen diziplina arteko ikuspegia eta sortu diren ekarpen teknikoak.

Bitarteko erakundeek prestakuntza eta laguntza eman diezaiekete komunitateei eta tokiko agintariei, alderdi teknikoehi nahiz parte hartzeari dagokienez. Trebakuntza-prozesu horietan, gomendagarria da trebakuntza teknikoaren, metodologikoaren, komunikazioaren arloko trebakuntzaren eta eragin politikoaren arteko

oreka egotea. Horretarako, diziplina arteko talde bat behar da, eta arrakasta handiagoa izango du taldearen inplikazioa eta konpromisoa izanez gero. Taldeak eskaintzen duen prestakuntzak lan egiten den taldeen behar eta interesetara egokitu behar du, eta, beraz, eduki batzuei beti erantzuten bazaie ere, metodologiak nahiz ikuspegiak talde espezifikoetara egokitu behar dute (emakumeak, nekazariak, hiritarrak...). Prestakuntza horrek ezin du osagai eta ikuspegi politikoa galdu, eta bi aukerako parte-hartzeari bide eman behar dio: jende guztiaren baldintzak hobetzeko aukera; gu inguratzen gaituen eta etorkizuneko belaunaldiak inguratuko dituen ingurumena errespetatzeko aukera. Beraz, funtsezkoa da prestakuntza etengabe inbertitzea, bai lan egiten den taldeenean, bai bitarteko erakundearenean eta erakunde publikoenean. Prestakuntza-prozesu horietan, ikaste-prozesuaz gainera, desikaste-prozesua ere txertatzen da. Desikaste horrek kontzientziatzea dakar, aurretiaz ikasitako jarrera, pentsaera eta jokabideak ekiditeko, zuzentzeko eta haien gainean eraikitzeko.

Prestakuntza-prozesuen nahiz parte hartze eraginkor hori ahalbidetzen duten mekanismoen elementu giltzarri bat da gatazkak maneiatzeko aukera emango duten mekanismoak ikastea eta ezartzea.

Prozesu horietan, benetako beharra sortzen da adostasun-guneetan parte hartzeko trebatzeko eta gaitasunak sortzeko. Trebakutzaz gain, partaidetzari laguntzeko beste elementu batzuk behar dira: adostasun- eta lankidetzagiroa sortzea; gune horretan landutako gaiak; eta gune espezifikoak sortzea (adibidez, batzordeak), kolektibo bakoitzaren interes bereziko gaiak lantzeko.

Erabakiak hartzean parte hartzeko aukera izatean, komunitateak indartu eta ahaldundu egiten dira beste eragileen aurrean. Parte hartzeko prozesu horrek komunitatearen gaitasunak garatzeko aukera ematen du, eta lidergo berriak eta parte-hartzean konfiantza duten agintariak indartzen ditu.

Partaidetza komunitatearen barruan gauzatzen denean, beste eragile batzuekin ados jartzeko prozesua has daiteke. Une horretan, oinarritzko elkarteak ordezkatzen dituzten liderrek funtsezko zeregina dute. Ordezkariek eta ordezkatuaren arteko komunikazioak eta ezagutzak transferitzeko mekanismoak (ordezkariak txandakatu gero) elementu estrategikoak dira hitzartze-espazioetako parte hartzea kalitatezkoa izan dadin.

Prestakuntzarekin lotuta dago taldeei eta kolektiboek laguntzea edo haien arteko sareko lana. Aztertutako kasuetan, bitarteko erakundeek laguntza errazteko rola bete

dute; aholkularitza eta orientazioa eman dituzte ikasitako ezagutzak praktikan jaritzeko. Hala ere, laguntza hori bi norabideko bidea da, komunitateekin eta erakunde publikoekin harremanetan egoteak testuinguruko arazoei edo taldeen beharrei erantzun diezaiaketen beharrak identifikatzeko aukera ematen baitugu.

Laguntza eta sareko lan horren bidez, hau lortzen da: politika publikoen garapeneren plangintza egiteko beharraz kontzientziatzea; eta parte hartzeko espazioak ez bizitzea erantzun-espaziotzat, espazio aktiboagotzat. Hitzartze-espazio horietan proposamen-gaitasuna irabaztea da arrakastarako giltzarria.

Horrekin batera, beste prozesu bat behar da: komunitateak parte-hartzea arazo batzuk hobetzeko edo konpontzeko tresnatzat hartzetik, hiritartasun-eskubideztat hartze ra igarotzea. Pauso horrek partaidetza-prozesuen bideragarritasunari laguntzen dio, proiektu edo esperientzia jakin batetik haratago, eta inguruko kultura politikoaren zati izatera pasatuko da. Tokiko komunitateek protagonismoa eskuratu dezaten laguntzea nahiz komunitateko lidergoak sustatzea (autolaguntza-taldeen bidez, Indian bezala, edo batzorde zehatzen lidergoaren bidez, Peruren kasuan bezala) abiapuntu bat dira ekintzarako beharrezkoa den batzuzen zentzumena gartzeko nahiz prozesu parte-hartzailean aukeratuko diren hitzarmenatarako eta estrategietarako.

Azkenik aipatu behar da aurretiazko parte hartzeko esperientziak sistematizatzea egindako prozesuen eta lortutako emaitzen kontzientzia hartzen laguntzen duen elementu bat dela. Sistematizazio horrek ikaskuntzak prestakuntza-prozesuetan eta erakundeen beraien jardueretan txertatzea ez ezik, hirugarrenentzako edo parte hartzeko prozesuetan murgildu nahi duten taldeentzako erreferentziak izaten ere laguntzen du.

Atal honetan proposatutako ekintza guztien helburua da gobernuen eta gizarte zibileko taldeen boterearen, informazioaren eta gaitasun instituzionalen arteko asimetriak orekatzea. Testuinguru horretako talde guztien parte hartzea indartzera ere bideratzen dira, haiek zuzenenean eragiten dieten erabakiei buruzko ezagutza, argudiatzeko eta alternatibak aurkezteko gaitasuna eta parte hartzeko aukera izan ditzaten.

8.3. Parte hartu ahal izatea: erabakiak hartzeko espazioen garrantzia

Estatuarenetagizarte zibilaren artean topaketarako eta hitzarmenatarako espazioak izatea (azterketaren helburua) parte hartzeko prozesuari laguntzen dion

elementu bat da. Espazio horiek beharrezkoak dira demokrazian sakontzeko, bai eta herritarrek beren kezkek eta arazoak adierazteko eta gobernatzeko erantzukizuna dutenen eta herritarren artean elkarrizketa izateko ere. Horretarako, erakunde publikoen nahiz gizarte zibileko erakundeen borondate politikoa behar da.

Adostasun-guneek balioa dute bere horretan, partaidetza martxan jartzen den eta garatzen den guneak direlako. Horregatik, beharrezkoa da gune horiek sortzea, bai gobernatzeko ardura dutenen borondateagatik bai herritarrek eskatzen dutelako. Gune horiek ezaugarri jakin batzuk eduki behar dituzte, guztiek legitimitatea nahi badute: gai zehatz horretan inplikaturako eragile guztiei dei egin behar die; komunitateak espazio propioztat hartu behar ditu; parte hartzeak erabakiak hartzean eragina duen espazioak izan behar dute; haren eraginkortasuna eta segimendua ahalbidetuko dituen mekanismo eta baliabideak izan behar ditu; erabakiak hartzeko eta gatazkak maneiatzeko mekanismoak sortu behar dituzte.

Legitimitasuna, lidergoa eta komunikazioa giltzarriak dira parte hartzeko eta hartzartzeko espazio horietan parte hartzen dutenak nahiz haietara joateko deialdia egiten dutenak onartzeko. Legitimitatea eragileek instituzio edo erakunde horrek prozesu parte-hartzaileari ekarpena egin diezaiokeela onartzean datza. Kasu batzuetan, legitimitatea ematen du kolektiboa izatea hartuko diren erabakien subjektu edo “helburu”, edo lurralde baten gainean arautzen denean, bertan bizi den kolektiboa izatea. Gizarte-erakunde kasuan, aztertutako esperientziek erakusten dute haietako askoren (berezi bitarteko erakunde izendatu ditugunen) legitimitatea gizarte-erakunde moduan izan duten ibilbidean oinarritzen dela. Historia, ospe, legitimitate eta agintaritzaren bidez onartzen dira gizarte-erakundeak parte hartzeko espazioetako eragile protagonistatzat. Erakunde publiko askok parte hartzeko espazioen bidez indartu nahi izaten dute legitimitatea. Horiek horrela, erakunde publikoek talde berrien parte-hartzea sustatzeak prozesu parte-hartzaileak nahiz kolektibo horien eta erakunde publikoaren beraren legitimitatea indartzen du.

Bistakoa da testuinguru politikoa eta lankidetzaren politikak gizarte zibilarentzako parte hartzeko espazioak sortzen eta sustatzen ari direla. Alde horretatik, esperientzietatik ikasitako puntu bat da tokiko mailan parte hartzeko espazio horiek sustatzeak komunitateen gaitasunak indartu ditzakeela, gero eta tokikoez haragoko espazioetan parte hartzeko, eta espazioak “behetik” indartu ahal izateko. Aztertutako esperientziek erakusten digute eskualde-mailako espazioetan eta goragoko mailakoetan parte hartzea beharrezkotzat eta zentzuzkotzat hartzen dela taldetik hurbilago beste maila batzuetan parte-hartzeko ibilbide bat egin denean.

Dena den, parte hartzeko eta hitzartzeko espazioek elkarrizketari irekitako espazioak izan behar dute, eragile guztiek iritziak, kezak eta iradokizunak adierazki ahal izateko espazioak, eta horiek errespetuz jaso eta kontuan hartu behar dituzte bertan parte hartzen duten gainerako kolektiboek. Beharrezkoa da, beraz, lidergo elkarrizketatzaileak eta parte-hartzaileak finkatzea, erakunde sozialetan nahiz instituzio publikoetan, eta adostasun-guneen instituzionaltasuna finkatzea.

Parte-hartzeko espazioen instituzionaltasuna garatzeko unean, puntu hauek mugatu behar dira: espazioaren helmeneko gai-arloak; erabakiak hartzeko prozedura edo politika publikoekiko lotura; hartutako erabakien segimendua egiteko mekanismoak; erabakiak errespetatzen ez dituzten taldeentzako mekanismo zigortzaileak, eta ordezkariak txandakatzean informazioa transferitzeko prozesuak. Nolanahi ere, eragile askoko parte hartzen duten eta eskualde-izaera handiagoa duten adostasun-guneetan, garrantzitsua izan da lana dinamizatzeke eta bultzatzeko pertsona bat egotea. Hitzartze-espazioan idazkaritza teknikoaren funtzioa dinamizatzeke edo betetzeko ardurua hartzen duenak sektorearen eza-gutza handia izan behar du, eztabaida politikarako eta kudeaketarako gaitasuna eta bere lana aurrera eramateko behar dituen baliabideak izan behar ditu.

Ikaskuntza horiek guztiek gizarte zibilaren eta estatuaren arteko hitzartze-espazioetan parte-hartzearen alde egiten laguntzen digute. Ziur gaude beste kolektibo batzuekin parte hartzeko eta haien partaidetza sustatzeko ahaleginak merezi duela. Horrez gainera, komeni da ohartzea parte hartu nahi, jakin eta ahal izatea beharrezkoa dela, eta aipatu ditugun baldintzetan egin behar dela, parte-hartze hori ona izan dadin parte hartu duten alderdientzat, eta, bereziki, talde ahulentzat.

Azkenik, nazioarteko lankidetzari buruzko ikasketa eta gomendio batzuk aipatzea baino ez zaigu geratzen.

8.4. Nazioarteko lankidetzarako ikasketak eta gomendioak

Parte hartzea banako eta talde guztien eskubide bat da. Garapenerako lankidetzan inplikaturako nazioarteko komunitateak eskubide hori praktikan jartzeko aukera eman beharko luke, eta praktikan jartzeko gonbidapena egin, bereziki testuinguruagatik, tokiko dinamikengatik eta esperientzia edo ezagutza faltagatik egoera zailenetan dauden kolektiboen kasuan.

Alde horretatik, partaidetza proposamen metodologikoa izateaz gain, pertsonen eta komunitateen garapene osorako bitartekoa da. Esperientzia horiek erakusten

digute, mugak izan arren ere, parte hartzeko espazioak sortu, indartu eta mantentzearen alde egiteak herritarren aukerak sendotzen dituela. Kasu horiek gizarte zibileko taldeei politika publikoen arlorako gaitasunak ematen dizkieten **estrategietan** oinarritzen dira: informaziorako sarre ratik edo eskualdeko politika baten formulazioa ulertzetik proposamenak eztabaidatu eta arrazoitzeko hizkeraraino.

Esperientziek erakusten digute komunitateei botere-tresnak eman dakizkiekeela beren eta komunitateen garapena indartzeko. Hori dela eta, komeni da talde eta kolektiboek parte hartzeko elementuak sustatu eta babestea: motibazioa, kontzientziarioa, prestakuntza, aholkularitza, laguntza eta hiritarren hitzartze-espazioak sortzea.

Zalantzarik gabe, ez da nahikoa guneak eskaintzea. Pertsonentzako eta kolektiboentzako baldintzak eta aukerak sortu behar dira, adostasun-gune horiek adierazgarriak eta eragingarriak izan daitezen eguneroko bizitzan.

Horregatik guztiagatik, nazioarteko lankidetzari arlo hauek babestea eta sustatzea proposatzen diogu:

- Tokiko taldeen, oinarritzko komunitateen eta GKEen edo bitarteko instantzien demokrazia eta adostasuna **finkatzeko partaidetza-prozesuak iparraldean eta hegoaldean**. Prozesu horiek osagai hauek izan behar dituzte: **prestakuntza, trukea** (Hegoaldea-Hegoaldea, Iparraldea-Hegoaldea), **parte hartzeko laguntza, hausnarketa, sistematizazioa, komunikazioa eta eragina**.
- Zehatzago, **sektore-proiektuak (ekonomia, hezkuntza...)** eta **partaidetza-proiektuak artikulatzen** laguntzea. Bereziki, talde baztertuenak eta emakumeak indartzeko prozesuak eta genero-, kultura- eta klase-rolak aldatzen laguntzeko prozesuak.
- **Gizarte zibila eta tokiko gobernuak indartzea, hitzartze-espazioak sortzeko**, bereziki nazioarteko lankidetzaren inguruan, Iparraldean eta Hegoaldean, gutxieneko eraginkortasun-baldintzetan (ikuspegia, plangintza eta aldizkariotasuna). Parte-hartzearen bidez aurrera eramandako hitzarmenak eta/edo politika publikoak sortzera bideratutako parte hartzeko espazioak.
- Iparraldean eta Hegoaldean **bitarteko erakundeak** indartu eta finkatzearen alde egitea, hitzarmenak lortzeko halako prozesu parte-hartzaileak laguntzeko eta sustatzeko gai izango direnak.

Funtsezko tresna edo ekintza hauek proposatzen dira:

- **Aurretiazko sentsibilizazio-jarduerak** eta instituzioan eta komunitateetan al-deko giroa sortzeko jarduerak, parte hartzeko eta berdintasunerako diagnosi- eta plangintza-ekintzak behar gisa hartzeko, eta ez inposizio gisa.
- Generoari buruzko **ekintza positiboak eta zeharkakotasuna bultzatzen** jarraitzea, baina tokiko errealitatearen erritmora egokituta.
- Askotariko errealitatea horiei erantzuna emateko gai diren pertsona arduratsuen eta tresnen **trebakuntza eta garapena**.
- Parte hartzeko eta hitzartzeko espazio horiek laguntzen eta sustatzen dituzten tokiko erakundeentzako sendotze instituzionala.
- **Iparraldearen eta hegoaldearen arteko trukeak eta egonaldiak sustatzea**, erakunde komunitarioetako eta bigarren mailako erakundeetako arduradunen artean.
- **Eragina** izateko prozesuak bultzatzea, adostasun-gunerik ez dagoen testuinguruetan edo gutxieneko baldintzarik ez duten adostasun-guneetan.

Eta, azkenik, lankidetzaren horretarako beharrezko baldintzak aipatuko ditugu:

- Epe luzeko **proposamenak eta konpromisoak** taldeekin, prozesuaren barruan lan egiteko aukera ematen dutenak.
- **Tresna** malguak, epe luzeko prozesuetarako esku hartzeetarako laguntza aurreikusteko aukera emango dutenak.
- **Aurrerapenaren adierazleen hausnarketa eta trebakuntza** sustatzea, genero-ikuspegiarekin:
 - **Tarteko aurrerapenak** antzematea eta, bereziki, kolektibo baztertuak hobetzea ahalbidetzen dutenak.
 - Partaidetza-prozesuaren deskribapenari arreta eskaintzen diotenak, emaitzen **kopuruan** nahiz **kalitateari** dagokionez.
- **Denbora eta baliabideak** finantzatzea, trebakuntzarako, bideratze-lanerako eta adostasun-guneak martxan jartzen laguntzeko.

9. BIBLIOGRAFIA

AAVV. (2004). *Sistematizaioa, gure praktiken gaineko begirada berria. Giza transformazioko esperientziak sistematizatzeko gidaliburuaua nueva mirada a nuestras prácticas*. Bilbo: ALBOAN, Pedro Arrupe Giza Eskubideen Institutua eta Hegoa.

AAVV. (2006). *Sistematizazioaren abentura. Nola ikasi gure praktiketarik praktika horietatik abiatuta*. Bilbo: ALBOAN, Elkarlan eta Garapen Ekimenak, Pedro Arrupe Giza Eskubideen Institutua eta Hegoa.

Alboan. (2006). *Herritartasunetik hiritartasunera eta hisitartasunetik herritartasunera. Ibbilitako bidea*. Bilbao: ALBOAN.

Alboan. (2007). *Participación ciudadana y sistematización de experiencias*. Bilbao: ALBOAN.

Ávila, J. (2003). ¿Descentralización desde abajo? Cultura política, sociedad civil y estrategias de concertación en Huanta. Huber, Ludwing (ed.) *Centralismo y descentralización* (105-153 or.). Lima: IEP.

Bebbington, A.; Delamaza, G.; Villar, R. (2005). *Espacios públicos de concertación local en América Latina*. Perú: V Conferencia Latinoamericana de la ISTR.

Cohen, J.; Andrew A. (2000). *Sociedad civil y teoría política*. México DF: FCE.

Cornwall, A.; Schattan P.; Coelho, V. (2007). *Spaces for change? The politics of participaton in new democratic arenas*. Londres: Zedbooks.

Cornwall, A. (2002). *Making spaces, changing places: situating participation in development*. IDS. Working paper 170. Birmingham: IDS.

- Dubois, A. (2000). *Equidad, bienestar y participación. Bases para construir un desarrollo alternativo. El debate sobre la cooperación al desarrollo del futuro*. Lan Koadernoak, 26. Bilbao: Hegoa.
- Gaventa, J. (2006). *Finding the spaces for change: a power analysis*. IDS Bulletin, 37. Birmingham: IDS.
- Grupo Propuesta Ciudadana. (2010). *La descentralización como un proceso participativo*. Perú: Propuesta ciudadana. Eskuragarria: www.participaperu.org.pe/apc-aa/archivosaa/3c6bb51ada688b58c57cb18308d59d73/proceso_participativo.pdf
- Grupo Propuesta Ciudadana. (2004). *La participación ciudadana y la construcción de democracia en América Latina*. Perú: Grupo Propuesta Ciudadana.
- Malena, C.; Finn Heinrich, V. (2007). *Can we measure civil society? A proposed methodology for international comparative research*. Development in Practice, 17. Londres: Oxfam.
- Pinto, S. (1999). *Land alienation and consciousness among the vasavas of South Gujarat*. Gujerat: Social Studies Center. South Gujarat University. Surat.
- PNUD. (2004). *Informe Democracia en América Latina*. México: PNUD.
- Rebollo, O. (2003). *Bases político-metodológicas para la participación*. Boletín Ciudades para un futuro más sostenible, 24. Madrid: Ciudades para un futuro más sostenible.
- Santiso, C. (2011). *Gobernabilidad democrática y reformas económicas de segunda generación en América latina*. Revista Instituciones y Desarrollo, 8 eta 9. Barcelona: Institut Internacional de Governabilitat de Catalunya.
- Velásquez, F.; González, E. (2003). *¿Qué pasa con la participación ciudadana en Colombia?* Colombia: Fundación Corona.